goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-12-16
EGUBAKOITZA
490. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

Iñaki Alkorta. | ENEKO AZKARATE

Instalazio berriak ditu Gureak-ek

2.000 metro koadro Bergaran | 4

Mireia Gabilondo bergararraren 'Hostoak' bihar Arrasaten | 31

Durangoko Azokako zuzendari berriari elkarrizketa | 8

GEHIGARRI BEREZIA, BARRUAN
Gabonak eta Santamasak 2011

Herri afaria eta bestelakoak, 25 urteak ospatzeko

Aretxabaletako Loramendiren jaia gaur eta bihar | 23

Loramendi

Aukeratu urteko onena eta txarrena eta eroan saria

Erabiltzaileen artean argazki kamera zotz egingo du Goienak | 4

2011 ONENA &TXARRENA

Lanean hasi dira kirolean euskara indartzeko

Arrasaten jarri dute abian AEDk, AUKEAk eta kirol taldeek | 13

Bergarako leku izenak mapan eta webgunean

Bergarako Udalak herriko mapa eta toponimia webgunea egin ditu: paperezko mapak udalerri osoa hartzen du eta 1.000 leku izen baino gehiag o ditu, eta webgunean beste hainbat informazio eskaintzen da; atzo aurkeztu zituzten biak. | 16

Estepan Plazaola, Maripi Laskurain eta Miren Pantxeske Azkarate, toponimiaren gaineko webgunea ordenagailuan irekita dutela. | ENEKO AZKARATE

Barauak, elkarretaratzeak eta presoekiko elkartasuna

Donostiako Ibaetan bezala, gure ibarrean ere presoen aldeko baraualdiak eta elkarretaratzeak egin dituzte hainbat eragilek egunero; eta gaur ere, egubakoitza, elkarretaratzeak egingo dituzte, 12:00etan. Arrasaten, urtarrilaren 7ko Bilboko manifestaziorako dei egin dute. | 4

SINADURAK

Beldurraren ekonomia? | 6
JON ETXEBERRIA

6 | **Urteko onena eta txarrena**
MIREIA BIKUÑA

Debagoieneko tobera | 40
MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 29
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36
EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Oparitu txartela

- Gabonetarako opariren bat falta bazaizu, aukera paregabea duzu: oparitu Goiena Klubeko txartela.
- Urtean 50 euro ordainduta askotariko abantailak izango dituzu.

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: *kluba@goiena.com* | www.goienakluba.com | Urteko kuota: 50 €.

SEAT
EXEO ST

120 ZP
2000 TDI
23.000 eurotik aurrera

Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70
SEAT

Bide luze eta gogorrena ez dago zertan bakarrik egin

▸ Heriotza bat gainditzeko laguntza elkarteak daude

▸ Alaia taldea Gipuzkoa osora zabaltzen dabil

Seme-alabaren bat hil zaien gurasoek Alaia elkartera jo dezakete. | PHIL SCOVILLE/GOIENA

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Heriotzak tabua izaten jarraitzen du gaur egungo jendartean, etxean, kalean, komunikabideetan… eta baita heriotzaren ondorioak ere: geratzen direnen dolua. Hasierako uneak eta eginbeharrak pasatu eta gero, oraindik bide luzea egin behar dute norbait galdu dutenek, eta bide hori, sarritan, bakarrik egin behar izaten dute, edo euren egoera berean dagoen pertsonarik gabe. Bide hori dolua da, eta beharrezkoa da, baina ez dago zertan bakarrik egin.

Horretan laguntzeko helburuarekin, zenbait elkarte sortu dira. Horietako bat Alaia Gipuzkoa da. Donostian du egoitza, baina Gipuzkoa osoan bere burua ezagutarazi nahi du. Irabazi asmorik gabeko elkartea da, apolitikoa eta akonfesionala, eta doluan dauden pertsonei zein larriki gaixorik daudenei eta haien senideei laguntzea du helburu. Debagoienean laguntza mota hori behar dutenei ere gerturatu gura dute, eta hemengo boluntarioak ere badituzte.

25 urteko esperientzia

Gure artean berria da Alaia, baina beste leku batzuetan ibilbide luzea du. Lydia Boticario Alaiako psikologoak esaten duenez, "Madrilgo Alaiak 25 urtean egiten diharduen lan ona ikusi eta gero, Gipuzkoan gauza bera egiteko jaio da. Gure ibilbideari 2011 hasieran ekin genion, baina oso pozik gaude jaso dugun babesarekin eta dagoeneko lortu ditugun emaitzekin". Koordinatzaile batek, dolu-bideratzaile batek, psikologo batek, bazkide kolaboratzaileek (norbanakoek eta diruz laguntzen duten erakundeek), borondatez diharduten boluntarioek eta erabiltzaileek osatzen dute Alaia.

ESANAK

"Denborarekin dolua gainditu ez dutenei laguntzeko jaio da Alaia"

LYDIA BOTICARIO | PSIKOLOGOA

"Negar egiteko, gogoratzeko... lekua topatu dugu Alaia elkartean"

ALAIAKO ERABILTZAILEAK

"Denok ezagutzen dugu doluan laguntza behar duen norbait"

UNAI BERGARETXE | BOLUNTARIOA

Dolu konplikatua

Baina zer da dolua, eta noiz bilatu behar da laguntza?

Lydia Boticario psikologo eta psikoterapeutaren esanetan, "norbait hiltzen denean, haren gertukoek pena eta min handiz eta hil den pertsonaren falta asko igarriz egiten dute dolua. Hori da ohikoena. Denbora baten ondoren, berriz bizi-proiektuak eta ilusioak izaten dituzte, nahiz eta ezer ez izan berdin". Dolua, normala ez ezik, beharrezkoa ere bada, mina gainditzeko eta norbere burua bizimodu berrira egokitzeko.

"Baina pertsona batzuek dolu konplikatua delakoa dute, izan ere, denbora baten ostean, ez dute dolua gainditu. Baliteke gaixo ipintzea horregatik, edo lanetik bajan egon behar izatea, edo depresio luzea izatea. Horiexek behar dute laguntza psikologiko espezializatua". Horiendako guztiondako zabalik dago Alaia.

Alaia Gipuzkoa

Doluan eta gaixotasun larrietan laguntzen dute.

Telefonoa: 943 24 53 95

Webgunea: www.alaiagipuzkoa-duelo.es

E-posta: alaiagipuzkoa@gmail.com

Eurengana jo daiteke telefonoz, eta norbere izena eta telefono zenbakia eman. Gero, Lydia Boticariok deitzen die. Hori eta gero, elkarrizketatu egiten du pertsona hori, bera eta bere kasua ezagutzeko eta baloratzeko. Orduan, bere dolurako zer gomendatzen dion esango dio psikologoak. "Pertsona gehienek norbanako gisa deitzen dute, eta ez familian, izan ere, denok doluan izan arren, denek ez dute modu berean bizi izaten", esaten du Boticariok.

Lehen elkarrizketa doakoa da. Gerora ohiko gauza bezala Alaiako erabiltzaile izan behar denak diru-kopuru txiki bat ipini behar du.

"Galerari zentzua eman diogu"

Alaiaren lanaren zutabeetako bat konfidentzialtasuna da. Hori gorde arren, euren esperientziaz zerbait kontatu nahi izan digute Gipuzkoako erabiltzaileek. "Denetariko galerak izan ditugun pertsonak gaude: seme-alabaren bat galdu duten gurasoak, ama galdu duten alabak, eta bikotekidea edo anai-arrebaren bat hil zaienak".

Borondate onez ingurukook esaten dituzten gauzek ez dute laguntzen: "Senideek eta lagunek lagundu nahian esaten zigutenaz gogaituta geunden: *kemena izan behar duzu, zure aldetik ipini behar duzu, denborak dena sendatzen du*… Alaian berba egiteko, negar egiteko, isilik egoteko eta gure senidea gogoratzeko lekua topatu dugu", esaten dute. "Espezialista batek lagunduta, doluaren faseetan aurrera egin ahal izan dugu. Orain badakigu gure bizitza ez dela lehengora bueltatuko, eta gure senideak beti izango

Bihar, doluaren gaineko eguna Arantzazun

Gabonetan, oso ohikoa da hil den haren falta are gehiago igartzea. Horrekin pentsatuta, doluan laguntzen duen Bidegin elkarteak *Gabonak... eta etxean aulki bat hutsik* delako hitzaldia antolatu du biharko, zapatua, Arantzazuko Asis Topagunean, 10:30ean. Izaskun Andonegi Bidegin elkarteko arduradunak Gabonetan dolua egiten dabiltzan familiendako zein gaixotasun larriren bat dutenendako gomendioak emango ditu.

Jardunaldiak 12:30ean jarraituko du, eukaristiarekin; gero, bazkaria eta basilikaren bisita izango dituzte.

Parte hartzeko, deitu 943 78 13 15 edo 669 25 68 52 zenbakira.

LYDIA BOTICARIO | ALAIA TALDEKO PSIKOLOGOA

"Heriotza bat gainditu ez duen edozeinen kasua entzungo dugu"

Alaiako psikologoa da Lydia Boticario. Bere hitzetan, "lehenengo laguntza entzutea da".

Alaian lan egiten duzuenok egoera latzak topatuko dituzue, ezta?

Bai, pertsona batzuk egoera benetan gogorrean izaten dira bere senidea hil den moduagatik (umeak, bat-bateko heriotzak, istripuak, suizidioak, e.a.). Kasu horietan zein beste guztietan, lehenengo laguntza pertsona horri entzutea da, emozioak askatzen uztea eta ze premia eta ze euskarri dituen ikustea.

Boluntarioei ze on egiten die lanak?

Oso lan aberasgarria da, eta gustura daude laguntza behar dutenei laguntzen dabiltzalako. Boluntario batzuek norbaiten heriotza jasan dute, eta gaur egun sentsibilitate handia dute sufrimendu horren inguruan.

Lydia Boticario. | ALAIA

Eta zeuri?

Pertsona hobeto dagoela eta bere bizitzari berriz eutsi diezaiokeela ikusteak poztu egiten nau. Gertuko norbait hiltzen zaion pertsonari baloreak eta lehentasunak aldatzen zaizkio. Hori dena erakusten didate pertsona horiek.

Ezer gaineratu nahi duzu?

Bai. Gertuko norbaiten heriotza gainditu ez duela sentitzen duen edozeini dei egin nahi diot Alaia elkartearekin harremanetan jar dadin; berdin da heriotzetik denbora luzea pasa bada ere. Deia bueltatuko diegu eta euren kasua entzungo dugu.

ditugu oroimenean eta bihotzean, baina bizitzan aurrera jarraitu ahal izango dugu, gure galerari zentzua emanda".

Doluan trabatuta, aurrera ezin eginda daudenei, Alaiara jotzea gomendatzen diete erabiltzaile horiek: "Gutako batzuek uste zuten oraindik okerragoa izango zela egoeraz hitz egiteagatik, baina justu kontrakoa da. Etorri izan ez bagina, ezin izango genukeen dolua gainditu. Barruan geneukan errua, amorrua eta ezintasuna atera ahal izan ditugu".

Herri guztietan zabaldu

Astia eta laguntzeko gogoa duen edozein izan daiteke Alaiako boluntario. Horretan dabil Unai Bergaretxe arrasatearra. Ospitaleetan reikia egiten du eta alde horretatik laguntzeko aukera zuela ikusi zuen, izan ere, Alaiak gaixotasun larriak dituztenei ere laguntzen die.

Boluntarioek orain elkartea ezagutarazi nahi dute, izan ere, Bergaretxek dioenez, "denok ezagutzen ditugu egoera horretan daudenak, eta askok ez dute Alaiaren berri". Debagoieneko pare bat familia jarri da eurekin kontaktuan, "baina gehienek lehendik ezagutzen zuten Alaia", dio Bergaretxek.

Bailaran eta Gipuzkoa osoan zerbitzua hedatu nahi du Alaiak, eta, jendea batu ahala, tokian tokiko taldeak ere sortu.

Begiak etorkizunean jarrita ireki du Gureak Taldeak Bergarako lantegia

Momentu honetan 34 pertsona ari dira lanean bertan dagoen kablea prozesatzeko plantan

TXOMIN MADINA| BERGARA

Eguaztenean inauguratu zuen Gureak Taldeak Bergarako Telleria industrialdean abian jarri duen lantegia. Ekitaldian, Taldeko eta Aldundiko ordezkari eta arduradunez gain, Bergarako alkate ohi Jose Luis Elkoro eta Victoriano Gallastegi eta gaur egungo alkate Jesus Elortza ere izan ziren.

Iñaki Alkorta Gureak Taldeko presidenteak Taldearen eta Bergarako herriaren arteko harreman estua azpimarratu zuen eta esan, duela 40 urte Taldea sortu zenean, Bergararena izan zela bultzada nagusia.

Alkortak gaineratu zuen lantegi berriarekin aurretik zegoen tailerrean leku handiagoa izango dutela eta Taldearen ahalmena handitu egingo dela. Krisi garaia izan arren, horrelako inbertsioak egitearen garrantzia azpimarratu zuen Alkortak: "Egia da bezero asko ez daudela egoera onean; baina krisiari buelta ematen zaionerako, garrantzitsua da prest egotea, bezeroei gure ahalmena eta lanerako borondatea eskaintzeko".

Jesus Elortza alkatearen esanetan, pozgarria eta era berean ohorea da Bergararentzat lantegi berria, herrira ere ekarriko dituelako onura eta aberastasuna. Asier Vitoria Taldeko alor teknikoaren arduradunak, berriz, esan zuen horrelako instalazioak beharrezkoak direla merkatuaren eskariei erantzuteko. Vitoriak gaineratu zuen 34 langile ari direla lantegian, baina ekoizpena Taldeko beste ehunka langilerendako dela onuragarria.

Bergarako alkate Jesus Elortza, taldeko presidente Iñaki Alkorta eta Aldundiko Jon Lasa inaugurazioan. | ENEKO AZKARATE

FITXA

DEBAGOIENDARRAK GUREAK-EN

Arrasate: 134 langile
Bergara: 92 langile
Oñati: 36 langile
Aretxabaleta: 28 langile
Eskoriatza: 19 langile
Debagoiena guztira: 309 langile

ESANAK

"Krisiari buelta ematerako, prest egon behar dugu"
IÑAKI ALKORTA | GUREAK-EKO PRESIDENTEA

"Bergararendako ere onura eta aberastasauna dakar honek"
JESUS ELORTZA | BERGARAKO ALKATEA

3,8 milioi euro

2.000 m2 ditu Gureak Taldearen lantegi berriak, eta, hura burutzeko, 3,8 milioi euro inbertitu dira; finantzazio guztia, gainera, Taldeak berak hartu du bere gain. Instalazio horietan, Gureak Taldeak kablea prozesatzeko planta jarri du abian. Produktu hori etxetresna elektrikoen sektorera eta automobilgintzara zuzenduta dago.

Urteko onena eta txarrena aukeratzeko azken egunak

T.M. | ARRASATE

Urte amaiera urteak emandakoaren balorazioa egiteko garaia izaten da, eta horretarako dei egiten die GOIENAk irakurleei. Ekarpenak, gainera, saria izan dezake, parte-hartzaile guztien artean FinePix J20 argazki-kamera digitala zozketatuko du-eta.

Nola parte hartu?

Abenduaren 19ra arte, astelehenera arte, egongo da parte hartzeko aukera, eta, horretarako, urrats erraz batzuk jarraitu behar dira: *www.goiena.net* webgunean sartu eta *2011 onena & txarrena* atalean klikatu behar da. Albistearen azpiko aldean ageri diren galderak erantzun behar dira. Honakoak dira galderak: Debagoieneko, Euskal Herriko eta munduko albiste onenak eta txarrenak; eta Debagoieneko, Euskal Herriko eta munduko pertsonaiak. Zozketan parte hartzeko, izen-abizenak eta telefono zenbakia ere eman beharko dira.

2011 ONENA & TXARRENA

Ekimenaren logotipoa. | GOIENA

Osoko bilkuren aretoan egin zuen agerraldia *Ein deigun bidie!* ekimenak. | ARRITXU BARRUSO

Euskal presoen aldeko ekintzetarako deia Arrasaten

A.B./T.M. | ARRASATE

Arrasateko talde eragile askotako jendea batu zuen eguaztenean osoko bilkuren aretoan *Ein deigun bidie!* ekimenak egindako agerraldiak. Adierazi zuten "zabaldu berri den eszenatokiak" preso eta iheslari politikoen etxeratzea ekarri behar duela: "Azken aste eta hilabeteotan asko izan dira egoera horri erreparatu diotenak: Gernikako Akordiotik hasi eta Euskal Herriko nahiz Espainiako Estatuko hainbat alderditako politikarien eskutik iritsi zaizkigu gaiari buruzko adierazpen eta balorazioak", esan zuten.

Salatu zuten "616 preso politikok osatzen duten kolektiboa estatuen txantajearen begipuntuan" dagoela eta aukera bakarra eskaintzen zaiela: "Edo damutu edo bizi osoko espetxe zigorra".

Ekintza ugari

Hainbat ekintza ere iragarri zituzten: bihar, bigarren eskuko arropen azoka; abenduaren 25ean, goizeko ordu batean bertso-saioa gaztetxean; eta urtarrilaren 1ean, goizeko ordu batean, brindisa Portaloian.

Mobiliziazioak ibarrean

- *Egin dezagun bidea* ekimenak bultzatuta, hainbat sektorek baraualdiak egin dituzte asteon. Astelehenean sindikatuen txanda izan zen, eta Bergarako LABek, esaterako, bat egin zuen. MUko hainbat ikasle eta irakaslek ere egin dute bat: hilaren 13an gazteek eta 14an hezkuntza komunitateak. Gaur, egubakoitza, alderdi politikoen txanda izan da. Oñatiko Bilduko taldea baraualdia egiten dabil; baita Aretxabaletako udalbatza ere.
- Elkarretaratze ugari daude deituta gaurko: Bergaran (12:00etan), Aramaion (18:30etan), Aretxabaletan (19:00etan), Arrasaten (19.30etan) eta Oñatin (19:30etan).

Pintxoak bultzatzeko: 'On egin!' ekimena

G.A./ T.M.| ARRASATE

Debagoieneko gastronomiari eta, bereziki, pintxoei bultzada emateko, lanean dihardu MUko ikasle talde batek. Aurten lehenengo aldiz pintxo lehiaketa egin dute eta datorren urterako bigarren edizioa egingo dutela iragarri dute.

Baina ekintza gehiago ere antolatu gura dituzte, *On egin!* izenburupean: pintxo-poteoko pintxoen arteko lehiaketa; pintxoak jan bitartean tabernan eztabaida sortzea, hizlari baten eskutik; herri bakoitzaren bereizgarri izango den pintxoa sortzea; mokadu horiek kalera ateratzea; eta pintxoen originaltasuna bultzatzea. Ideiak zehazten joateko, ostalariekin batzorde bat osatzea izango da lehen egitekoa.

Akordio bat, bi interpretazio: baina aurrekontua izango du Gipuzkoak

Bilduk eta EAJk hitzartu dute, nahiz hondakinez desberdin mintzatu gero

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Gipuzkoako 2012rako aurrekontuak aurrera ateratzeko akordioarekin hasi zen asteak, aurrera egin ahala erakutsi du Bilduk eta EAJk badituztela desberdintasun batzuk hitzartutakoan jasotzen diren puntuak ulertzeko moduan.

Akordioak jasotzen du, Batzar Nagusien egitekoa izango dela aztertzea Aldundiak Hondakinen Foru Arauari aurkeztu diezazkiokeen aldaketak; eta datorren ekainaren 30a jartzen du muga hondakinen kudeaketaren gainean erabaki bat hartzeko. "Batzar Nagusiek erabakitzen dutena da egingo dena", zioen Aintzane Oiarbide batzarkide jeltzaleak Goienari egindako adierazpenetan.

Larraitz Ugarte Diputazioko bozeramaileak, aldiz, beste hau zioen: "Batzar Nagusien eskumena da planifikazioa, baina Gipuzkoako partzuergoarena exekuzioa eta hondakinen kudeaketa eredua ezartzea. Albiste ona da akordiorako atea zabaldu dugula; espero dugu hondakinen kudeaketarako sistema sostengarri bat adostuko dugula".

Baina zer gertatuko da ekainaren 30ean bat ez badatoz Batzar Nagusiak eta partzuergoa hondakinekin egin beharrekoaren gainean? "Galdera horri erantzuteko goizegi da, zioen Ugartek, Oiarbidek esandakoarekin bat etorri gabe.

EAJk eta Bilduk egindako akordioak ere badio koalizioak gobernatutako erakundeek ez dituztela eragotziko edo oztopatuko dagoeneko aurreikusita eta onartuta dauden azpiegiturak. Gipuzkoako mankomunitateak batzen dituen eta, gaur egun, Bilduk zuzentzen duen Partzuergoak erraustegia eraikitzeko tramitazioa sei hilabetez etetea erabaki du egunotan, proiektuaren kontratuko aukera bat baliatuz. Obrak "gelditu" egingo direla zioen Ugartek; "lanak ez dira geldituko, "eraikuntzarako erosketaren bat" agian soilik, Oiarbidek. Interpretazio bi, beraz.

Akordioan jasotako bestea da 10 milioiko partida enpresei laguntzeko krisiari aurre egiten.

DATUA

679

MILIOI EURO

Kopuru hori du Diputazioak 2012rako prestatutako aurrekontuak.

Gizarte politika da gora egingo duen bakarra

Bilduk eta EAJk hitzartutako akordioaren ostean, hilaren 23an Batzar Nagusietan bozkatuko duten 2012rako aurrekontua aurrera aterako da.

Bilduk prestatutako aurrekontuak jaitsiera nabarmena izan du iazkoarekiko, %13. Gizarte politikena da kopuruz handituko den sail bakarra, %7. "Zorpetzea kontrolatu gura izan dugu, gizarte politikak konprometitu barik. Beste sail denak horren arabera egokitu ditugu, baina oso aurrekontu duina geratu da", zioen Larraitz Ugarte Foru Aldundiko bozeramaileak.

LARRAITZ UGARTE
BILDU

"Bilduk eta EAJk ahalegin berezia egin dugu aurrekontua aurrera ateratzeko. Funtsezkoa zen aurrekontu berria. Aurtengoa luzatu beharra txarra zatekeen Gipuzkoarentzat, ez zukeen eta krisiari aurre egiteko balioko. Hau bada krisiari aurre egiteko aurrekontua. Gipuzkoarentzat ona den heinean, Bildun oso pozik gaude akordioarekin".

AINTZANE OIARBIDE
EAJ

"Akordioaren balorazio positiboa egiten dugu. Ez da guk egingo genukeen aurrekontua, baina kontuan izan dugu krisia eta Bilduren agintaldiko aurreneko kontuak direla; argi genuen arduratsu jokatu behar genuela. Garai berri batean gaude, edozein alderdik edozeinekin egin ditzake akordioak, eta abertzaleon artean bada, are pozgarriagoa da".

RAFAELA ROMERO
PSE-EE

"EAJ eta Bilduren akordioak ez du krisia gainditzeko balio; ezta horri eusteko eta ekonomia berpizteko eta enplegua sortzeko ere. Akordioak ez du eragotziko Gipuzkoa geratzea, are okerrago, nora-eza, zehaztasun eza eta segurtasun eza eragingo ditu Gipuzkoako bizilagunengan. Akordioak ez dakar irtenbiderik, baizik eta arazo gehiago".

REBEKA UBERA
ARALAR

"Aurrekontu proiektuak ez ditu gure nahiak betetzen, baina testuinguru ekonomiko eta sozialak arduraz jokatzea eskatzen du. Aurrekontua oso pobrea da. Ezkerreko gobernu baten lehentasuna ez litzateke izan behar defizitaren kontrola, baina badakigu jasotako herentziak eta arintasun fiskalak ez duela tarte handirik utzi besterik egiteko".

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

ZABALIK

JON ETXEBERRIA
http://goiena.net/iritzia/

Beldurraren ekonomia?

Konturatuko zineten azkenaldi honetan krisiaren inguruko diskurtso ofizialak zeharo aldatu direla eta alde guztietatik egoerari buruzko larritasuna azpimarratzen digutela. Krisi hasieran, egoerari garrantzia kentzen saiatu ziren agintari nagusiak (asko jota desazelerazio bat izango da, guri ez digu hainbeste eragingo...), alde batetik herritarrak lasaitzeko eta beldurra ez zabaltzeko (hori omen baitzen ekonomiaren etsairik nagusiena) eta beste aldetik beraien lan kaxkarraren ondorioa zenik pentsa ez genezan.

Ondoren, krisia sakontzen joan zen neurrian, eta ukaezina bihurtu zenean, egoera onartzen hasi ziren, baina kanpotik etorria zela azpimarratuz eta bere amaiera antzematen hasiak ginela esanez (lehen "hosto berdeak" agertzen hasi dira, azkenak sartu eta lehenak irtengo gara...), berriz ere estrategia bera jarraituz, biztanleria lasaituz krisia ez areagotzeko eta egoeraren larritasunean beraiek izan zezaketen ardurak gutxitzeko.

Udatik hona fase berri baten sartu garela esan daiteke, merkatuen presioak eta hauteskundeen amaierak diskurtsoak transformatu baititu. Horrela, mezu positiboak desagertu egin dira eta negatiboak ugaritu azken aste hauetan: 2012. urtea "oso zaila", "benetan kritikoa", "erabat zaila" edo "ikaragarri zaila" izango dela iragarri dute azken boladan Eusko Jaurlaritzak (Mendia), Estatuko gobernu berria osatuko duten agintariek (Montoro) eta patronalek (CEOE, CONFEBASK eta ADEGI). Herritarrak lasaitu beharrean, izutu egiten dituzte horrelako hitzek, eta, bide batez, hartuko diren neurri zorrotzetarako prestatu. Baina ez al zen beldurra txarra ekonomiarentzat?

"Mezu negatiboak ugaritu egin dira azken asteetan, 2012ari begira"

Joaquin Estefaniak bere liburu berrian azaltzen duen bezala (*Beldurraren ekonomia*, 2011), gure poltsikotarako bai, baina ez merkatuendako, beldurrak beraien boterea handitzen baitu. Eta badakizue, orain lehentasuna merkatuak baretzea omen da.

USTEAK USTE

MIREIA BIKUÑA | mbikuna@goiena.com

Urteko onena eta txarrena

Urtekaria egiten dihardugu GOIENAn. Hilabete bakoitzak eman duena laburtuko dugu, eta azkeneko orrietan hainbat herritarri hauxe galdetu diegu: "Zein izan da urteko albiste onena eta txarrena?". Askotariko erantzunak jasoko ditugu, seguru. Bada, tartetxo hau aprobetxatuko dut nire urteko albiste onena eta txarrena zeintzuk izan diren esateko. Onena, zalantza barik, ETAk urriaren 20an kaleratu zuen agiria. "ETAk armak utzi ditu", esan genuen hedabide askotan. Albiste txarrena, aldiz, emakumeen aurkako genero indarkeria da. Aldarrikapen eta ekintza asko egiten ditugu urtean zehar, baina oraindik biktimak daude. Noiz arte?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/

HANDIK ETA HEMENDIK

Steve Jobs-en biografia

Joxe Aranzabal
http://goiena.net/blogak/faroa/

Irakurri berri dut Steve Jobsen biografia, Walter Isaakson kazetariak idatzia –nire urtebetetzeko oparia izan zen–, eta gustura geratu naiz, iruditu baitzait serio eta zintzotasunez idatzitakoa dela.

Ale mardula da, 700etik gora orrialde ditu, eta irakurri ahala, pertsona zaila eta konplexua azaleratzen da bertan Steve Jobs: aldarte txarrekoa, apetatsua, tiranoa..., eta, aldi berean, sekulako ahalmenarekin proiektuak aurrera atera eta jendea liluratzeko. Perfekzionista akaberakoa. [...]

Argigarri egin zait ikustea Jobs zelan joan zen ikasten bere lehendabiziko porrotetatik, goi mailako enpresario miretsienetakoa izateraino. Orobat, arretaz jarraitu dut Steve Jobs eta Bill Gates enpresarioen arteko harremana, nemesis izatetik zelanbaiteko mirespen konpartitua sentitzeraino.

Astia eta umorea izanez gero, irakurketa ona izan daiteke Gabonetarako. [...]

Espekulazioa

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Krisia medio, Erresuma Batuak bizkarra erakutsi dio Europari.

Cameron ondo dabil, edo hanka-sartze sekulakoa egin du? Inork ez daki. Michel Houellebecq idazlearen *Mapa eta lurraldea* nobelako narratzaileak:

"Hélèneren ekonomiarenganako interesa asko ahuldu zen urtetik urtera. Fenomeno ekonomikoak aztertzeko teoriak (...) oinarririk gabeak iruditzen zitzaizkion, arriskatuak, gero eta gehiago lotzen zituen teoriok funtsik gabeko kalaka hutsarekin; alditan, bere kabutan esaten zuen harrigarria ere bazela urtero Ekonomiako Nobel Sari bat ematea, diziplina hark ez zeukala fisikak edo kimikak bezalako metodologia serio zorrotzik (...) Ekonomia ez zen jada zientzia bat, baina ezta arte bat ere, izatez ez zen deus ere".

Ekonomia, ekonomilariak, ekonomiaren tripak: bere gaia zehaztu ezin duen diziplina itsu bati ezin zaio zientzia deitu. Izatekotan, espekulazioa da. Baina ez ideia ekonomikoen espekulazioa, gure sosena baizik.

Radio Televisio de Mallorcak jada ez du emititzen

Onintza Irureta Azkune
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Abenduaren 9an ateak itxi zituen katalan hutsez emititzen zuen Mallorcako hedabide publiko bakarrak. Urtean 10 milioi euroko aurrekontua zuen eta 115 langile. Denak kaleratu dituzte.

PPk gehiengoa duen Gobernuak adierazi du austeritate eta ardura planaren barruan sartu dela irrati-telebistak bertan behera uztea.

Itxieraren berri Aritz Galarragari irakurri diogu *Berria*-n. *Mallorcan hasi dira* du izenburua haren artikuluak eta ohartarazi du PPk katalanarekiko duen jokaera ikusita, IB3 edo Canal 9ko langilea balitz, ez litzatekeela lasai egongo, ezta TV3koa balitz ere.

Ez zaio ahaztu zerrendan EITB paratzea. Langileak erne, baita ikus-entzuleok ere.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Argi gutxiko Udala

Arantza Akizu eta Juan Karlos Garitano
(Arrasateko EAJ)
Arrasate

Gabonak data esanguratsuak dira Eukal Herriko gehienontzat.

Alde batetik, egia da data hauetan normala baino kontsumistagoak agertzen garela, baina, bestetik, familiak eta lagunak biltzen dituzten eta harremanak indartu eta adiskidetasuna zein solidaritatea azaleratzen dituzten datak dira.

Gurekin ez dauden edo gurekin egon ezin direnen oroitzapena ere badakarte Gabonek.

Horrela, Gabonetan, ohitura da herriko kaleak argiekin apaintzea.

Lehengo urtean, Arrasaten, ohitura honekin apurtu zen, eta aurten ere, Arrasateko Udalak herrian argi bat bera ere ez ipintzea erabaki du.

Inorekin kontsultatu gabe, inoren iritzia eskatu gabe eta erabakia justifikatu ezean, gehiengo absolutuaren erabilera eginez, Udalak argirik ez ipintzea erabaki du.

Arrasateko EAJ-PNVtik gure desadostasuna azaldu nahi dugu; izan ere, Udalak bereak diren eta bere biltegietan dituen argiak ezarri behar lituzkeela uste dugu.

Ez jolastu palestinarren zapalkuntzarekin

Xabier Etxaburu Albes
(Arrasateko Askapena)
Arrasate

Aski ezaguna da palestinarrek egunerokoan jasan behar duten zapalkuntza, ongi dakite euren herriaren alde egiteak zenbateko eta noiz arteko kostu pertsonal eta kolektiboak dakartzan.

Euskal Herrian oro har jakitun gara horretaz eta palestinarrekiko elkartasun sentimendua jendarteratua dagoen gaia dela esan dezakegu.

Ba ote dakigu, ordea, gure elkartasuna modu eraginkorrean bideratzen? Euskal herritarrok zer egin dezakegu albistegiak tristuraz edo amorruz begiratzeaz haratago? Galdera hauen erantzuna duela bost urte palestinarrek eurek eman ziguten: boikota.

Azken urte luzeetan agintariek eta nazioarteko erakundeek arazoari irtenbide bat emate aldera ezer gutxi egiten dutela ikusita, Palestinako jendarte zibilak Israelen aurkako BDS (Boycott, Divestment and Sanctions) nazioarteko kanpaina jarri zuen abian 2005ean. Hegoafrikako Apartheid erregimenaren aurka egindako boikot eta zigor kanpaina ez-bortxazkoa eredutzat hartuz.

Boikotak Israel presionatzea du helburu: lurren okupazioa, kolonien eta harresiarekin amaitu, Israelen bizi diren palestinarren eskubideak bermatu eta errefuxiatuek itzultzeko duten eskubidea errespeta dezaten. Azken batean, nazioarteko legedia eta eskubideak errespeta ditzala eskatzen zaio.

Zenbaitek bestelako irakurketa oker eta interesatua egin badu ere, juduen aurkako kanpaina gisan planteatuz, sionismoaren aurkako ekimena da berau, egitasmo kolonialista eta arrazista baten aurkakoa.

Indar inperialistek, ordea, beti ezkutatu nahi izaten digute arazoen benetako jatorria; honela, erlijio talka gisan erakustarazten saiatzen dira lurraldetasunarekin eta arazo politiko eta sozialekin lotu beharreko gatazka. Honen erakusgarri da Ipar Irlanda, protestanteen eta kristauen gatazka gisan erakutsia, edo, historian atzera egin nahi bada, inoiz ezagutu den genozidio basatiena: hau da, abyayala edo amerikar kontinentearen kolonizazioa, irizpide teologikoen arabera salbamendu bezala azaldua.

Gaur egunera etorriz, boikotaren ildoan azken urteotan ez dira urriak izan lorturiko garaipen txikiak. Besteak beste, sionismoa ordezkatzen duten kantariek neurriko gaitzespena izan dute gurean, Maccabi saskibaloi taldea ere ez da ongietorria izan eta Hondarribian Israelgo gastronomia jardunaldia bertan behera utzi zuten.

Aurrerapausoak eman diren heinean, boikotaren aurkako errepresioak ere gora egin du, badira milaka euroko isunak jaso dituzten kideak hemen ere.

Israelen, bestalde, ohartu dira boikotak duen edo har dezakeen indarraz eta badaezpadako lege aldaketa egin dute boikota bultzatzen dutenak gogor zigortu ahal izateko.

Oraingo honetan, zuen parte hartzea eskatu nahi dizuegu.

Abenduan sartzearekin batera, krisiak krisi, izango da aurten ere zer erosia Gabonetan! Boikotarekin bat eginez, ordea, jostailu israeldarren aurkako egitasmoan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu.

Gure jostailu dendetan, *Made in israel* (729 barra kodea) jostailuak non-nahi topa baitaitezke, batez ere, adin txikiko haurren apaletan.

Erosketa arduratsu baten bidez sionisten botere ekonomikoa kolpatu nahi da, isolamendura bultzatuz, agintariak pausoak ematera behartuz.

Jolasteko eskubidea guztiona den heinean, gure jolasek ez dezatela besteen jolasik zapuztu.

Ez dezagun jolastu palestinarren zapalkuntzarekin.

Joka dezagun arduraz!

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

Hemen
ascensores igogailuak
debagoiena

Debagoienean igogailuen mantentze-lanak

Gurekin 24 ordu, asteburuak barne

Mantentze-lanak:
80 € basikoa
115 € arrisku orotakoa

943 04 40 01 / 691 52 22 04
debagoiena@ascensoreshemen.com
www.ascensoreshemen.com

INFORMA ZAITEZ

GABON ZORIONTSUAK, GUZTIOI!

Aiert Goenaga | Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokako zuzendari berria

"Etorkizun hurbileko azoka ezberdina izango da teknologia berrien eraginarengatik"

- Durangoko Azokako zuzendari berriak urte osoan zeregin horretan jardungo du
- Parte-hartzeari emango dio lehentasuna: berezoen, editoreen, adituen parte-hartzeari

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Durangoko Azokaren zuzendari aldaketa prozesu naturala izan dela dio Aiert Goenagak. Izan ere, urte luzez zuzendari jardun duen Jon Irazabalen ordezkapena modu lasaian egin da, belaunaldi errelebua izan da. Ondarrutarra da Goenaga, Oñatin bizi izandakoa, gaur egun Mutrikun bizi da. Pozik eta ardura handiz hartu du lekukoa, Durangoko Azoka "erreferentzia" delako euskaldunondako.

Zeure agintaldia aurrekoaren ezberdina izango da, ideia berriekin zatoz?

Koordinazio lana izango da nirea, lantalde bateko buru izatea egokituko zait. Belaunaldi aldaketa bat da, duela urte batzuetako azoka eta oraingoa ezberdina da eta modu naturalean heldu beharko diogu erronka berriei. 80ko eta 90eko hamarkadetan azoka beste modu batekoa zen, gaur egun ere bai, bereziki, krisi testuinguru honetan.

Lehentasuna, zeri?

Aurten hasitako lanari jarraipena eman gura diot. Eredu parte-hartzailea jarri dugu abian, eta hortik sakondu gura dugu.

Zertan oinarritzen da parte-hartze hori?

Azokaren antolatzaile Gerediaga elkarteari egokitu zaio, urteetan, euskal kulturaren produkzioa bideratzea, gidatzea, daukan dimentsioagatik. Orain, esparru berrietara jauzi egin gura dugu, baina argi daukagu ez garela adituak ezertan eta bidelagunak, benetako adituak, alboan gura ditugula, eurekin elkarlanean jardun gura dugula. Eragileekin batera, eskutik, sortu gura ditugu gune eta proiektu berriak…

Zein da Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokako zuzendariaren egiteko nagusia?

Elkarte askorekin harremanetan egotea, batik bat. Gerediaga elkartea txikia da eta baliabide mugatuak ditu. Eta ez ditugu egingo urratsak ondorioak ondo neurtu barik. Dena dela, esaterako, azokako zuzendariak urte osoan jardun beharko du, buru-belarri eta, lehen, hilabete batzuetan batzen bazen ere egitekoa, orain, urte osoan barrena banatuko da. Koordinazioa beste modu batera egingo dugu.

Lauzpabost eguneko azokak urte osoko lana eskatzen du?

Gutxiagoan ere egin daiteke, jakina, baina jauzi kualitatiboa eman gura dugu, publiko berriarengana hurbildu eta gaur egungo bezeroei ere gauza berriak eskaini, ohiko salmenta puntuetatik harago, azoka topagunea, herriaren mugimendua da. Eta hori indartu gura dugu gauzak ondo eginez. Aurten lehen aldiz izango da urte osoko lanketa bat duena, eta 47. edizioan ikusiko ditugu emaitzak.

Zelan joan da aurtengo azoka? Ze nabarmenduko zenuke bereziki?

Pozik gaude, ondo joanda. Alor ezberdinetan egin behar da balorazioa, antolaketa, parte-hartzea, publikoa, salmenta, sortzaileak… Eta guztiena izan da positiboa. Hori nabarmendu behar da. Aurten zubia arraro etorri da, eta zalantzak genituen, baina, aurreko urteko esperientziak ikusita, apustua egin genuen domekan hasteko eta ondo atera da.

Zenbat lagun?

Ia 140.000. Aurten kamera termiko batzuk ipini ditugu sarrera -irteeretan.

Zeintzuk izan dira aurtengo izarrak, disko eta liburuen salmentari dagokionez?

Saltzaileei, editoreei, erakusleei galdetzea onena. Bestalde, erlatiboa da izarraren kontzeptu hori. Badira idazle edo talde ospetsuak, zifra handietan mugitzen direnak, baina badira ezezagunagoak, berriak, salmenta kopuru txikiago edukita ere, arrakasta izan dezakeenak. Edozelan ere, Berri Txarrak, Esne Beltza eta Harkaitz Kano denon ahotan egon dira.

Salmentetatik haratago zerk izan du arrakasta aurten?

Gune berriek: Kabia@, Irudienea eta Szenatokiak. Uste dugu beste kultura adierazpide batzuek ere tokia izan behar dutela, ze liburu eta diskoetatik baikatoz, baina aldatzeko tendentzia ere badute. Publiko berriari eta oraingoari eutsi gura badiegu, berritasunak sartu behar ditugu.

Zein da Durangoko Azokaren erakarmen nagusia?

Berritasunengatik datoz batzuk; beste batzuek diote berritasunak beste toki batzuetan ere aurki ditzaketela, Interneten ere bai, baina pertenentzia sentimendua azaleratzen zaiela azokara datozen bakoitzean; beste batzuek diote ez badoaz zerbait galdu dutela sumatzen dutela… denetiko arrazoiak daude, baina kontua da jendea hara doala eta guk horri erantzun egin behar diogula. Euskal kulturaren erreferentzia da azoka.

Zer egiten duzue antolakuntzatik topagune hori indartzeko?

Eredu parte-hartzailea bultzatu. Jendeak gero eta parte-hartze handiagoa baldin badauka, bere egingo du azoka. Inbolukrazio handiagoa izango du eta horrela indartuko dira bezeroen edo jendearen eta antolatzaile edo saltzaileen arteko loturak.

Aiert Goenaga, Goienan, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

"Bisitarien neurgailu termikoa jarri dugu lehen aldiz; 140.000 izan dira"

"Usaintzen dugu nondik etor daitezkeen berritasunak"

"Azoka Telebista estrategikoa da, balio erantsi handia ematen digu"

"Aurtengo izarrak? Berri Txarrak, Esne Beltza, Harkaitz Kano..."

Zer moduz Azoka Telebista?

Oso ondo. Guretako estrategikoa da. Bertan dagoenarendako zerbitzu ezin hobea. Bestalde, streaming bidez azoka jarraitzeko aukera ematen die azokara etortzerik ez dutenei. Balio erantsi handia ematen digu Azoka Telebistak eta segitzeko asmoa dugu.

Jendeak geroago eta gutxiago erosten ditu diskoak fisikoki...

Aldaketa datorrela argi dago. Aldaketa etengabea da. Esaterako, egun, 12 edo 14 urte dituen gazte bati, esan hemendik sei urtera erosteko CD bat, ohituta dagoenean musika edo bestelako artxibo digitalak edozein euskarritan entzuten, eskuko telefonoetan, eta abar. Ideia errotik aldatzen da eta etorkizun hurbileko azoka ezberdina izango da eta teknologia berriek geroago eta presentzia handiagoa izango dute.

Etorkizuneko azoka?

Ez da erraza jakitea, baina ezberdina izango da eta bagabiltza hurbiltze prozesu bat egiten eragileekin, horren gainean dakitenekin… Ez gara adituak hainbat kontutan, baina usaintzen dugu nondik etor daitezkeen berritasunak.

QRak, abestiak jaisteko gailuak, moduak... halakoak aurreikusten dituzue?

Bai, hasi gara horrekin. Stand ohikoez gain, beste berezi batzuk ere jarri gura ditugu. Esaterako, QR kodeekin musika jaisteko, erosteko, moduak baliatu…

Jauzi arriskutsuak?

Poliki, baina gelditu barik, eten barik, eguneratzen, hala joan behar dugu, jauzi seguruak emanez. Baina jakin behar dugu gizartearen aurretik doazela teknologia berriak eta guk, ezinbestean, hor egon behar dugula.

Zein da argitaletxeen kezka nagusia etorkizunari begira?

Etorkizuneko kontsumo tendentziak. Gaur egungo gazteen eta 30 edo 40 urtetik gorakoen kontsumo ereduak ezberdinak dira. Argitaletxeek gaur egungo egoerari, eta kontsumo joera berriei, egokitu behar dute. Egungo argitaletxeek egiten ez badute, gazteak etorriko dira, unibertsitatetik aterako dira, ideia berriekin, eta, akaso, industria honetan sartuko dira teknologia, baliabide, euskarri berriekin.

Opariak geurean

Debagoieneko dendariekin egon ondoren, Gabonetarako azkenengo tendentziak aurkeztu digute.

JANTZIAK ETA OINETAKOAK. Paz Rodriguez, Timberland, lottum, 3 pommes, Quiksilver, Cake Walk, Custo... Subijaik dituen bi solairuetan, gustu guztientzako eta 2 eta 16 urte arteko umeentzako denetariko jantziak eta oinetakoak dituzu. Bergara erdialdean gaude. Etor zaitez gure eskaintza zabala ikustera.
Subijai. Irizar pasealekua 1. Bergara. Tel.: 943 76 42 41

CHANTELLE KONJUNTOA. Lentzeriako marka onenekin egiten dugu lan. Chantelle, Simone Perele, Passionata, Lejaby, Prima Donna, Calvin Klein… opari intimoenak eskura.
Bea lentzeria. Iturriotz 4. ARRASATE. 70 €

LENTZERIAN AZKENA. Jolie Parisienne konjuntoa duzu aurtengo nobedadeetariko bat, lentzerian azkena. Hori eta beste zenbait modelo dituzu ikusgai Iratxon. Pasa zaitez eta topa ezazu Gabon hauetan behar duzun hori. **Iratxo. Telesforo Aranzadi kalea 2. Bergara. Tel.: 943 76 00 79.**

LEVI's. Levis batzuen bila bazabiltza, Bergara erdialdean duzu aukera. Levis markaren denda ofiziala da Xuxu. Etor zaitez eta ikus ezazu negu honetarako eskaintzeko duguna: berokiak, prakak, alkandorak. Denetik, neskendako eta mutilendako, eta neurri guztietako jantziak, 36tik 54ra.
Xuxu. San Pedro kalea 14, behea. Bergara.
Tel.: 943 76 07 55

Lois · omerilolimon · EDC · Bench. · BeyeBet · diKsi · khujo · zergatik · endde · YUMI · Salsa JEANS

DIKSI SOINEKOA. Arropa berezi eta ezberdina Bertan aurkituko dituzu Diksiko arropa eta osagarriak Ezagutu gure txoko berria.
Gabonetako eskaintza berezia: %20ko deskontua.
Belar Meta. Durana kalea 20. Aretxabaleta.
159 € - %20= 127 €

DUELA 10 URTE

2001-12-14

Urrezko domina Ipuruakoentzat

Eibarko Ipurua taldeko Ane Miren Fernandezek eta Aintzane Narvaezek urrezko domina eskuratu zuten, senior mailako sokako eta pilotako ariketetan, Gasteizko Fernando Buesa pabiloian jokatutako Espainiako txapelketan. Gazte mailako Ipurua taldeak, berriz, hirugarren postua lortu zuen taldekako sailkapenean. Ondorioz, Leire Lasak eta Idurre Gartziak brontzezko domina eskuratu zuten.

Urrezko domina sokan eta pilotan. | ANGEL GARTZIA

2001-12-14

'Txarri jolasa' kaleratu zuten

Txatxilipurdi elkarteak *Txarri jolasa* kaleratu zuen Arrasateko Euskal Kulturaren Azokan, hemengo euskara lantzeko asmoarekin. Hain zuzen ere, jolas berezi horren 500 ale kaleratu zituzten orduan, gaztetxoek eta euskaldun berriek Arrasateko euskara lan zezaten. Bada, jolasean, herriko jende nagusiari egindako elkarrizketen gaineko galderak eta udalerriaren gainekoak zeuden, besteak beste.

DUELA 5 URTE

2006-12-15

Bi 'Q' agiri gure bailaran

Oñatiko Turismo Bulegoak kalitatearen *Q* agiria jaso zuen, turismoa garatzeko eta bisitariei zerbitzu onena emateko egindako lanagatik. Horrez gainera, Aretxabaletako institutuak zilarrezko *Q*-a eskuratu zuen, eta, hain zuzen ere, jasotako sariarekin goi mailako zentro integratua izatea lortu zuen.

HERRITARRAK

LEINTZ GATZAGA

Pedro Mari Elkorobarrutia 71 urteko gatzagar honek bere herria maite du, baina hutsuneak ere igartzen ditu, eta, besteak beste, zerbitzuen falta azpimarratzen du | MIRYAM GALILEA

"Kantuan, musean, ziklismoa... saltsa askotan ibiltzea gustatzen zait"

Giro haizetsu baina lasaian elkartu ginen martitzen goizean Pedro Mari Elkorobarrutiarekin Gatzagako Toki Eder erretiratuen elkartean; hango presidentea da. Herriaren gorabeheren gainean solasean aritzeaz gain, hark dituen zaletasunak ezagutu ditugu.

Urteak dira presidente kontuetan zabiltzala; gustura zaude?

6 urte dira, eta gustura, aldi berean bai eta ez. Juntakoak kargu guztietatik pasa dira, eta, herrian jende gutxi dagoenez, baserrietan jende gehiago dago, nik segitzen dut postuan. Egia esan, zeregin handirik ez dago, eta batzarrekook ondo konpontzen garen bitartean, nik ez dut arazorik segitzeko; horrela ez bada, utzi eta listo.

Ekintzarik antolatzen duzue?

Bai, eta urtero berdintsuak izaten dira. Urtean behin Udalak bazkari bat antolatzen du erretiratuentzako; bestalde, Gabon bezperan mus eta briska txapelketak antolatzen dira, eta aurretik pintxo-poteotxo bat egiten da. Irabazlea eskualdekora joaten da, eta, han irabaziz gero, Gipuzkoako elkarteen arteko txapelketara. Eta bidaiatxo batzuk ere antolatzen ditugu: udaberrian kostaldera egiten da irteera bat, eta aurten Islara joan gara (Kantabria); eta udazkenean Lizarrara joaten gara, barrualdera.

Saltsa askotan ibiltzea gustuko duzu gero!

Bai, nahiko saltseroa naiz. Orain herrian ez dut gauza handirik egiten, edadean sartuta nago-eta, baina lehen, 25 urtetik 65 urtera arte, lanean ibili naiz, txirrindulari elkartean, musean... saltsa guztietan sartuta.

Zaletasun ugari dituzu orduan.

Gauza asko gustatzen zaizkit, baina ibili, ibili... Urtebete inguru da eguazten guztietan Aretxabaletara Basotxo elkartekoekin kantuan nabilela. Hango bazkide batek esan zidan joateko, emakumeen ahotsak bazituztela baina gizonezkoenak zituztela faltan. Hasieran ez nuen jaitsi nahi, baina, azkenean, hantxe hasi nintzen. Santa Luzia egunean arratsaldeko 5etan omenaldia du Basotxok 90 urte gorakoentzat eta hara joango gara zorionak kantatzera; aste honetako eguaztenean ere Oñati ibili ginen bost-hamar herrialderekin batera; Santa Ageda Aretxabaletan... Bestela, karta-jokoan egitera joaten naiz Luku aldera, hango surtidorrera. Astelehenetik egubakoitzera batzen dira, eta ahal dudanean joaten naiz. Eta Txirrindulari Komiteko partaide ere banaiz.

Pedro Mari Elkorobarrutia gatzagarra Toki Eder elkartean. | MIRYAM GALILEA

"Astero, Basotxo elkartekoekin kantuan ibiltzen naiz Aretxabaletan"

"Momentu honetan herrian dugun mediku zerbitzua ez da batere egokia"

Bizikletan ibiltzen zara?

Ni neu bizikletan ez naiz ibiltzen; ikusi asko egin dut, baina ibili ez; oso zalea izan naiz gaztetatik. Lanean, propagandako kamioi esposizio batekin hasi nintzen Fagorren: Espainia, Portugal, Kanariak... Hiru hilabete etxetik kanpo egoten nintzen, zortzi egun etxean eta beste hiru hilabete kanpoan. Egunak denetarikoak ziren: onak, txarrak, baina gauean... bizimodu gogorra zen. Gero Fagorren segitu nuen, baina inguru honetan.

Zure zaletasuna herrian bultzatzen duzu?

Gatzagan bi lasterketa antolatzen dira: bat errepidean eta bestea mountain bikekoa. Errepidekoa Gatzagatik irten, Arrasateko autobidean buelta ematen du, handik, Gasteiz aldetik, Arrasate eta herriko udaletxe aurrealdean amaitzen da. Eta montain bikekoa ere bertako mendietan zehar egiten da eta 50 parte hartzaile inguru etortzen dira.

Herrikoa izanda, zerbait aldatuko zenuke?

Gatzagan bertan jaioa naiz, eta herria ez da ni gaztea nintzenean bezalakoa. Oraingo jende gazteak ez du gure denboretako gaztetasun hori, desberdina da. Herrian gauza asko egin beharko lirateke, baina herri txikia da eta ezin da. Elkartea, hotela, jatetxea, Udala... baditu, baina zerbitzu gehiago jarriko nituzke: okindegia, harategia... Dena den, aldatuko nukeen lehenengo gauza mediku zerbitzua izango litzateke: behintzat, momentu honetan dagoen ordutegia aldatuko nuke eta geroago jarri: orain, astean behin eta 8etatik 9ak bitartean bakarrik dator medikua, eta herrikoak bueno, baina baserrietakoentzat...

NIRE HERRIAN

HERRIA BERA OSO POLITA DA

Leintz Gatzagan jaiotakoa izanda, zer esango dut... Herri moduan polita dela esaten dute bertakoek eta kanpotarrek orokorrean, eta nik ere hori pentsatzen dut: kaleak, hotela, eliza, Dorletako Ama... zenbait gauza dotore ditugu, eta bai lekuagatik eta baita duen egituragatik, xarma berezia duen herria dela esan dezakegu.

ZERBITZU GUTXI DAUDE HERRIAN

Gatzaga Siberia da; ez dauka ezer: ez okindegirik, ez harategirik... Mediku-zerbitzua ere eskasa da: martitzenetan 8etatik 9etara dago, eta ordutegi horrekin, herrikoak bueno, baina baserrikoak... Hori ez da mediku bat izateko modua. Nire edadetik aurrerakoentzat txarra da Gatzaga, kanpora joan behar da edozertarako.

HERRIAK

ELGETA

Ostalaritza biziberritzeko beharra ikusten dute sektoreak eta Udalak

Adibidez, Intxortako ibilbidea baliatzea aztertzen ari dira kontsumoa handitzea lortzeko

JULEN IRIONDO | ELGETA

"Duela 8-10 urte oso garai oparoa bizi izan genuen Elgetan. Herriko zazpi tabernek topera egiten zuten lan; adibidez, eguneko 300-350 otordu ematen zituzten denera. Gaur egun, ordukoaren laurdena asko jota", dio Patxi Basauri Udaleko Turismo batzordeko buruak, herrian ostalaritza sektorearen gainean dagoen kezka arrazoitzerakoan.

Sektorea bera da, noski, kezka hau gertuen bizi duena; Bolatoki eta Iñaki jatetxeak eta Haizea taberna dira hiru adibide: kontsumoaren moteltzearen motibo bila jarrita "krisia" aipatzen dute noski, baina baita, adibidez, garai batean herrian egiten ibili ziren "askotariko obrak amaitu izana" edo "tabakoaren legea". "Herri txiki batean dena hartu behar da kontuan", dio Haizeako Bittor Gallastegik, tantaz tanta ostalarien botila husten nola doan irudikatzeko orduan.

Batetik husten dena bestetik nola bete asmatzea da orain kontua, eta horretan ari dira: Udalarekin batera gauzatutako pintxo-domeka ekimena ondo joan omen da, eta aztergai dituzte beste aukera batzuk ere: esaterako, kanpotik jende dezente etortzen ei da Intxortako ibilbide tematikora. Bisitara etortzen diren horiei, hura ikusi eta alde egin beharrean bazkaltzera gera daitezen erraztasunak ematea da aukeretako bat, "ibilbideko txartelarekin batera jatetxeetarako deskontua eskainiz", esaterako; hala dio Patxi Basaurik.

Lehengo barikurik ez orain

"Duela urte batzuk langile asko ibili ziren Pagatza industrialdea eta etxeak egiten", dio Basaurik obra horiek ostalaritzan izan zuten eragin baikorra azaltzerakoan; eta zera gehitzen du Iñaki jatetxeko Begoña Arreitunandiak: "Langile haiek ordu-erdi izaten zuten libre eguerdian, eta etortzen ziren kafesnea hartzera edo pintxoa jatera; tailerrekoak ez dira etortzen, errelebotan egiten dute lan, eta bazkaldu ere etxean". "Garai oparoetan 50 otordu ematen genituen egunero, orain ez gara 30era iristen egun onenetan; eta egun txarretan 15-18 otorduren bueltan ibiltzen gara", berresten du Bolatokiko Jose Monterrosok.

"Eta barikuak"; barikuetakoa aipatzen du Monterrosok berak moteltzearen beste arrazoi batzuen adibidea jartzerakoan. Arrazoiak, krisia eta ohitura aldaketak; ondorioa, "jendea ez dela barikuetan ateratzen". "Barikuak ikaragarriak izaten ziren; orain, gehienez, hilean behin afaltzen du jendeak kalean. Eta txikiteoa ere asko jaitsi da", dio Monterrosok. Eta aurrekoa berresten, Haizeako Bittor Gallastegik beste hau: "Gazteek ez dute tabernarik taberna poteatzeko lehen besteko ohiturarik". Ohiturak aldatzen ari direla dio Gallastegik, eta behin galdutakoak berreskuratzea "oso zaila" izaten dela gaineratu. Ohitura aldaketa horretan, tabakoaren legeak ere, adibidez, eragin duela dio Haizeakoak: "Lehen astean zehar etortzen ziren gazteak, gauean, lasai, kafea hartzera; orain, erre ezin denez, lokalera joaten dira".

Baina, hainbeste trabaren artean, pozen bat sikiera: azaroko pintxo-domekek emaitza ona utzi dute: haurrendako jolasak, bertsolariak eta trikitilariak izan dira kalean, eta pintxoa euro batera sei tabernatan: "Igarri da jendea atera dela kalera, gazteak batez ere; ze bestela gazteak gauez ibiltzen dira, eta egunez ez", dio Iñakiko Begoña Arreitunandiak. "Gauzak egin behar dira, zalantzan daudenak kalera ateratzeko".

Iñaki jatetxean eta gainerakoetan lehen baino askoz ohikoagoa da bazkalorduan mahaiak hutsik egotea. | JULEN IRIONDO

DATUA

350

OTORDU

Bazkari ugari ematen zituzten duela urte batzuk; orain, laurdena soilik.

Jardunaldi gastronomikoekin harrituta

Udala ari da aztertzen herriko taberna eta jatetxeetara jende gehiago erakartzeko egon daitezkeen aukerak. Asteburuetan ikusten dute, argien, egoera hobetzeko modua. Eurek proposa dezaketenaz gain, baina, beharrezko ikusten du Patxi Basauri Turismo zinegotziak ostalariek ere ekimen berrietarako prestutasuna izatea.

Jesus Kalboetxeaga. | J.I.

Bide bat izan daiteke Elgetako Maialde hoteleko Jesus Kalboetxeagak eta Izarra Arriaranek hartua: Mankomunitatearen jardunaldi gastronomikoetan parte hartzera animatu dira, eta primeran joan zaie: "Harrituta gaude erantzunarekin; Bilbotik, Lezotik eta Nafarroatik ere etorri zaizkigu, adibidez".

Hirigintza Saileko ordezkariak eta erakusketan herritarren zerbitzura egongo direnak, aurkezpenean. | JOKIN BEREZIARTUA

Udala, biharko Arrasate eraikitzeko iritzi eske

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) aurrerapena herritarren artean zabaltzeko erakusketa gaur hasi eta otsailaren 5era arte, Kulturaten

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Indarrean dagoen Arrasateko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak (HAPO) zortzi urte bete zuen apirilean eta Udalak berraztertzea erabaki du. Uste dute komenigarria dela planeamenduaren inguruko eztabaida piztea, iritziak elkartrukatu eta gero, erabaki dezaten jarraitzea dagoenetan edo beste proposamen batzuk bultzatzea. Horretarako erakusketa aurkeztu zuten atzo eta gaur ezkero herritarrendako zabalik dago Kulturateko klaustroan, otsailaren 5era arte. Gaur, 18:00etatik 19:00etara, bertan egongo dira udal ordezkariak herritarren edozein zalantza argitzeko.

Plan berrikusiak Arrasateko lurren sailkapena zehaztuko du, zein erabilera eman dakiokeen aztertzeko: basoak, landa eremuak, industria, etxebizitzak, ekipamenduak, berdeguneak... Aurrerapen horretan ez dira proposamen zehatzak jasoko. Omer Arregi Hirigintza zinegotziaren arabera, eztabaida sortzea da helburua: "Eztabaida gauzatzeko 21 proposamen jartzen dira mahai gainean, baina horrek ez du esan nahi beste planteamendurik egin ezin denik edota aurkezten diren proposamen guztiak aurrera ateratzeko behar direnik. Fase honetan herritarren aldetik ahalik eta ekarpen gehien jasotzea da Udalaren helburua". Erakusketa bera parte hartze hori sustatzeko bideetako bat da, izan ere, Udalaren web orrian dago eskuragarri informazio guztia.

> ESANAK
> **"Ahalik eta ekarpen gehien jasotzea da helburua"**
> **OMER ARREGI** | HIRIGINTZA ZINEGOTZIA

Onartzeko prozedura, luzea

Agiria onartzeko prozedura luzea da oso. Erakusketako emaitzak jasoko dira eta behin behinekoz onartuko da agiria, dagozkion aldaketekin. Aldaketok egiturazko funtsa aldatzen badute Udalak hasierako onespena eman beharko dio agiriari eta jendaurreko izapidea irekiko du berriz, beste behin onartu aurretik. Horren ostean Udalak agiria EAEko Lurraldearen Antolamendurako batzordeari igorriko dio eta batzorde horren txostena loteslea izango da lurralde antolamenduko tresnei eta Udalaz harago dauden proiektuei. Hiru hilabete izango du batzorde horrek txostena egiteko. Eta orduan, aldaketa guztiak egin ostean, behin betiko onartuko da. Beraz, plana onartu eta indarrean jartzeko hainbat urte pasa daitezke oraindik.

Presoen aldeko bigarren eskuko azoka asteburuan

'Ein deigun bidie' ekimenaren barruan egingo da bihar eta etzi, Seber Altube plazan

J.B. | ARRASATE

Gabonen atarian euskal presoen aldeko hainbat ekintza egingo dira Arrasaten. Horien artean dago bigarren eskuko azoka, bihar eta etzi egingo dena.

Duela zazpi urte jarri zen martxan ekimena eta ordutik urtero Gabonen atarian egin izan da, Seber Altube plazan. Aurtengo nobedadeetako bat da *Ein deigun bidie* ekimenaren barruan antolatu dela. Iluntz eta Irati tabernetan materiala batu ostean bihar eta etzi jarriko dute salgai, goiz eta arratsaldez. Denetarik egongo da salgai: prakak, jertseak, txamarrak, bufandak, soinekoak eta askotariko osagarriak, besteak beste. Alaitz Arantzabal azokaren antolakuntza taldeko kidearen arabera, iazko antzeko kopurua batu dute aurten: "Hasieran gutxiago jasoko genuela uste genuen baina egunek aurrera egin ahala konturatu gara material askotxo dagoela".

Euro erditik hasi eta 15 euro arteko prezioan erosi ahalko da arropa: "*Ein deigun bidie* herri mugimenduarendako bideratuko da dirua eta beraz, euskal preso eta iheslarien defentsen aldeko borrokari zuzenduko zaio. Izan ere, elkartasun afektiboaz gain elkartasun ekonomikoa oso garrantzitsua da ", dio Arantzabalek.

500 kilometrora gutxienez

Arrasaten une honetan 12 preso daude. Espetxean urte asko daramatzatela dio Arantzabalek eta preso horietako bat ere ez dagoela Euskal Herrian. Gutxienez euren etxetik 500 kilometrora daudela salatu du.

Iazko azoka. | ARTXIBOA

Euskal selekzioaren aldeko bertso afaria bihar, Irati elkartean

Arrasateko Bai Euskal Herriari taldeak bertso afaria antolatu du biharko Irati elkartean. Euskal selekzio propioaren aldeko aldarrikapena egingo dute Miren Amuritza eta Igor Elortza bertsolariek. Afarirako txartelak Basati eta Irati tabernetan daude salgai, 12 eurotan. Era berean, abenduaren 28an euskal selekzioak Tunisiaren aurka jokatuko duen partidurako txartelak salgai daude Basati eta Monte tabernetan. ESAITek deitutako manifestaziora eta partidura joateko aukera egongo da, beraz. Autobusa 15:00etan irtengo da Garibaitik.

Eskaintza berezia gaztegunean, Gabonak direla-eta

Txatxilipurdik eskaintza berezia prestatu du Gabonetarako erdiguneko gaztegunean. Hasteko, aste bukaera honetan opariak euren eskuekin egiteko aukera eskainiko diete hezitzaileek. Bestalde, hilaren 26tik 30era, gaztegunea irekita egongo da 17:00etatik 21:00etara. Denetariko ekintza eta lehiaketak prestatu dituzte: altxorraren bila eta urte amaierako festa, esaterako. Gainera, hilaren 27an Gasteizko izotz pistara joango dira eta hilaren 28an, berriz, euskal selekzioaren partidua ikustera. Izena emateko azken eguna da abenduaren 18a.

SARRAILAGINTZA-LANAK, 24 ORDUZ ZURE ZERBITZURA.
Oinetako konponketak - Giltzen kopiak - Era guztietako labanen zorrozketa
RAOS
Bañez doktorea 6, behea
Tel.: 943 79 74 87 Mugikorra: 687 77 71 57

'Ayurveda bizitzaren zientzia' berbaldia gaur

Dorleta Martinez doktorearen eskutik *Ayurveda, bizitzaren zientzia* izeneko berbaldia egingo dute gaur Arrasaten, Hondarribia kaleko 3. zenbakian. Ayurveda Indiako medikuntzan oinarritutako zientzia da, eta berbaldiaren ostean dastatze-afaria egingo dute (20 euro). Berbaldira joateko 695 78 00 58 telefono zenbakira deitu behar da.

Gaur da Musakolako kantxak erreserbatzeko azken eguna

Musakolako pilotaleku, areto futbol, futbol, tenis, padel eta squash kantxak hiru hilerako erreserbatzeko aukera ematen du AUKEAk. Gaur, egubakoitza, da urtarril, otsail, martxo eta apirileko hilabeteetan erreserba egiteko azken eguna. Horretarako, erreserba finkoen eskaera orria bete behar da, eta Muskolan utzi.

90 urtetik gorakoei omenaldia, gaur, Abaroaren eskutik

Abaroa erretiratu elkarteko zuzendaritza taldeak omenaldia egingo die 90 urte baino gehiago dituzten bazkideei gaur, hilak 16. Distantzia eta adina dela-eta, bi lekutan egingo dira omenaldiak: lehena 10:00etan Iturbide egoitzan eta bigarrena 12:00etan Etxaluze eraikineko lehen solairuko aretoan.

Kirol elkarteetan euskara indartzeko lanean hasi dira

Kirol taldeetako ordezkariak AEDko eta AUKEAko ordezkariekin batu dira klubetan euskararen errealitatea zein den ikusteko

XABIER URTZELAI | ARRASATE

AEDk deituta, Arrasateko hainbat kirol taldetako ordezkariak batu ziren eguaztenean Kulturaten, AUKEAko ordezkariekin batera. Asmoa da Arrasateko kirol taldeetan euskararen erabilera indartzea: "Gutxienez gazteleraren parera iritsi dadin". 30 talde zeuden deituta, eta herena azaldu ziren; antolatzaileek adierazi zuten parte-hartzaile kopurua ez zela nahi besteko altua izan, baina oso positiboa izan zen klubekin izan zuten hartu-emana, bakoitzak bere taldean bizi duen egoera azaldu zuelako.

"Denok egin beharreko lana"

"Hau ez da euskara teknikarien lana, euskaldunon lana da", adierazi zuen Joxemari Muxikak batzarrean, euskara egunerokotasunean erabili nahi bada denon esku dagoela, alegia. Rafa Leturiak aurkeztu zuen egitasmoa; Arrasateko elkarte gastronomikoetan euskara sustatzeko lanean ibili ostean –harrera ona izan zuen SUDCekin batera egindako egitasmo horrek– AEDren hurrengo erronka egitasmo bera kirol taldeetara bideratzea izan da.

Eta bai, badago beharra, klub guztietako ordezkariek onartu zutelako, gehiago ala gutxiago, gaur egungo gazteek erdararako joera handia daukatela: "Alde horretatik Muxikak nagusion ardura ere badela azpimarratu zuen: "Gurasoek eta aiton-amonek hausnarketa egin beharko genuke, guk ze hizkuntz erabiltzen dugun, neska-mutil horien erreferentzia garelako; gu erdara hutsean bagabiltza...".

Euskararen jarraipena egin

Egia da kirol elkarteetan, berez, nahikoa lan dutela taldea bera kudeatzen, horretara dedikatzen ez den jendea dabilelako auzolanean. Horren jakitun izanda, AEDko ordezkariek eskertu egin zuten batzarrean egon ziren kirol taldeek erakutsitako interesa. Hala, AEDko ordezkariek ahalegina egiteko eskatu zieten, talde bakoitzean euskararen erabileraren jarraipena egiteaz arduratuko den ordezkari bat izendatu, eta klubetan euskara garatzen hasteko.

Lehenengo eginbeharra klubean euskararen erabileraren neurketa bat egitea izango litzateke, eta ondoren 6-8 hilero neurketa horiek errepikatu. AEDkoen laguntza osoa izango dute horretarako, eta baita AUKEAren babesa ere, Joserra Askasibarrek adierazi moduan. Hasteko, kirol elkarteen dokumentuak euskaratzeko itzultzaile bat jarriko du Udalak.

Batzarrean egon ez ziren klubetako ordezkariek ez dute trenik galdu. Egon zirenek egitasmoaren berri emateko konpromisoa hartu zuten, eta AEDkoak harremanetan jarriko dira kirol taldeekin, euskara bultzatzeko egitasmora batu daitezen.

ESANAK

"Kirol taldeek AUKEAren laguntza izango dute"

JOSERRA ASKASIBAR | AUKEA

ESANAK

"Egun, gazte guztiek dakite euskaraz, baina egitea falta da"

JOXE MARI MUXIKA | AED

AEDko eta AUKEAko ordezkariak Arrasateko hainbat kirol taldetako arduradunekin, Kulturaten. | XABIER URTZELAI

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Ondo pasau jaixak!
KATAIDE JATETXEA
Kataide poligonoa
ARRASATE
Tel.: 943 77 10 80
Santamasetako menu berezixak 18 €

JOSE MARI SALEGI
HARATEGI • URDAITEGIA
Euskal okela, bertan egindako txorizoa eta janari prestatuak
Olarte kalea 20
ARRASATE
Ondo pasatu Santamasak!

Izozkitegia
Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia
Santamas jai zoriontsuak!
Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE

Otsailaren 5ean egingo du AGTk angula eta bisigu zozketa

Arrasateko Pilota Taldeak angula eta bisigu zozketa egingo du aurten ere. Hala, Santa Ageda egunean egingo dute zozketa hori, otsailaren 5ean: ONCEko zenbaki saritua sarituko dute eurek ere. Hain zuzen ere, kilo bat angula eta bi bisigu zozketatuko dituzte; hain zuzen, dirua klubaren aurrekontua borobiltzeko erabiliko dute.

Gimnasia hipopresibo ikastaroa urtarrilaren 2an hasita Musakolan

Gimnasia hipopresiboko beste ikastaro bat jarriko du abian AUKEAk urtarrilaren 2an, eta hilabete iraungo du. Eskolak astelehenetan eta eguaztenetan izango dira, 17:30etik 20:30era, Musakolan. Izena emateko epea zabalik dago. Hain zuzen ere, AUKEAko bazkideek 37,75 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 10 euro gehiago.

Amilena aire kirol taldeak berbaldia egingo du bihar

Bihar, hilak 17, Debagoieneko Amilena aire kirol taldeak berbaldia egingo du Kulturaten (11:00). Pedro Txapak egingo du berbaldia eta inguruko hegaztien azalpenak emango ditu. Izan ere, parapentean dabiltzanek harreman zuzena izaten dute hegaztiekin. Horrekin batera, bi film labur emango dituzte.

Mikel Goñi, Kilometroen harira egin zen jaialdian, 2007an. | GOIENA

Mikel Goñik Uarkape bete izan du, nahiz eta onenean egon ez

Santamas egunean Lasa III.arekin osatuko du bikotea, Mendizabalen eta Galartzaren kontra

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Uarkape pilotalekura itzuliko da Mikel Goñi Santamas egunean. Ez dugu esango Arrasateko pilotalekuak harreman estua izan duenik Oronozko pilotariarekin, baina haren nondik norakoak harmailetatik segitu dituztenek gogoan dute, oraindik, haren partidu bat baino gehiago.

Hasteko, Uarkapeko inaugurazio egunean jokatu zuena (1999-ko Santamasetan), Titinen kontra. Goñiren urte onak ziren, bai kantxan eta baita kantxaz kanpo; Goñik ikuskizuna eman zuen Uarkapen, eta bai, partidu ostean ez zuen etxera erretiratzeko presarik izan. Pilotazaleek gogoan dute, beste baten, bikoteka jokatzen ari zirela Barriolak aurpegian hartu zuen pilotakada. Jaialdia bertan behera ez uztearren buruz burukoa jokatu zuten, orduan ere, Titinek eta Goñik. Eta han bai, agerian geratu zen Goñi fisikoki behera etorrita zegoela; Titin neurtzen ibili zen komeni baino kalte handiagoa ez egiteko.

Bi partidu izango dira

Datorren eguenean (18:00) pilotari *telebisiboak* Lasa III.arekin osatuko du bikotea, eta Mendizabal eta Galartza VI.a izango dituzte aurrean. Lehenago, baina, lau t'erdi barruan jokatuko dute Chafeek eta Beloki II.ak. Goñik eman ditu urte onenak, jakinekoa da hori, baina hura da, oraindik, erreklamu onena. Urrian, Erro-saixo-domekan Oñatin jokatu zuen, eta jendea oso gustura geratu zen hark emandako ikuskizunaz. Ikusiko dugu Arrasaten.

Santamasetako finalak 17an

Arrasate Pilota Taldeak (AGT) antolatzen duen Santo Tomas pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte abenduaren 17an Uarkapen. Torneo horretan etxeko pilotariek baino ez dute jokatzen, hainbat kategoriatan.

Horrez gain, baina, kluben arteko torneoko finalera iritsi dira Aitor Etxezarreta eta Julen Moron pilotari arrasatearrak. Arrasatekoek asteburuan jokatuko dute finala, Lazkaoko pilotarien kontra.

ZALDIBAR

Dribling-Sonografos	2-4
Abokajarro-Iriztu	----
Fidel & Discip.-Ekaitz	5-3
Portaboleiros-Iluntz	1-7
Iluna-Aldatz	0-3
Dublin-McAwen	7-1
Lasagabaster-AT Betrayer	3-3
Aston Birra	Atsedena

	TALDEA	P	J
1	Dublin	15	6
2	Aldatz	14	6
3	Dribling	12	5
4	Sonografos	12	6
5	Iriztu	10	5
6	Abokajarro	9	4
7	McAwen	9	6
8	Fidel & Discipulos	9	5
9	AT Betrayer	7	6
10	Iluntz	6	6
11	Lasagabaster	5	6
12	Ekaitz	4	6
13	Aston Birra	3	5
14	Iluna	3	5
15	Portaboleiros 2.0	0	5

ABENDUAK 17, ZAPATUA

10:30 Aston Birra-Iriztu / **Ekaitz**
11:30 Dribling-Ekaitz / **Aston Birra**
12:30 Abokajarro-Iluntz / **Dribling**
16:00 Fidel & Discip.-Aldatz / **McAwen**
17:00 Portaboleiros-McAwen / **Fidel &.**

ABENDUAK 18, DOMEKA

11:30 Iluna-AT. Betrayer / **Lasagabast.**
12:30 Dublin-Lasagabas. / **AT Betrayer**
Sonografos **Atsedena**

Hiru talde neguko txapeldun izateko

Asteburuan jokatuko dute oporrak hartu aurreko azken jardunaldia; hala, modu sinbolikoan bada ere, neguko txapelduna zein den erabakiko dute lehen hiru taldeek.

ARPE
Ile apaindegiko artikuluak
• Kalitate onena, prezio ezin hobean.
• Aholkularitza.
• Konfiantzazko denda.
Kontzeziño 4 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

Jose Antonio
GABON ZORIONTSUAK!
ile-apaindegia

Otalora 22 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Jose Ramon Otamendi
haratégia
GABON ZORIONTSUAK GUZTIOI!
Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

eya
etxetresna elektrikoak
estilo guztietako lanparak zure esku
Gabon zoriontsuak!
Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51
ARRASATE

Arrasate Musikaleko biolin ikasleak kontzertua egiten. | GOIENA

Arrasate Musikaleko ikasleak gelditu barik ibiliko dira

Hiru kontzertu egingo dituzte gaur hasi eta datorren martitzenera bitartean

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Arrasate Musikaleko ikasleek urte bukaera bete-betea izango dute. Gaur, egubakoitza, hasi eta datorren martitzenera arte, hiru emanaldi egingo dituzte.

Gaur, egubakoitza, Gabonetako kontzertua egingo dute Kulturaten. 18:30ean hasiko da eta sarrera doan da.

Talde instrumental misto batekin hasiko dute gaurko emanaldia. Horren ondoren, instrumentu bakarreko saioak entzuteko aukera egongo da. Hala, tronpetak, saxofoiak, pianoa eta biolinak entzuteko aukera egongo da, bakarka eta taldean. Saioa amaitzeko, emanaldi horretarako propio sortu den taldeak –bateria, baxu elektrikoa, bi biolin eta gitarra– hainbat pieza joko ditu.

Bihar, txistularien kontzertua

Bihar, zapatua, Arrasate Musikaleko txistularien txanda izango da. 12:30ean egingo dute emanaldia, Herriko Plazan –euria eginez gero, osoko bilkuren aretoan.

Emanaldiak bi zati izango ditu: lehenengoan, txistu ikasleek banaka edo binaka jardungo dute; bigarrenean, berriz, Txistulari Bandak joko du eta, batik bat, euskal doinuak egingo dituzte.

Martitzenean, metala

Martitzenean, hilaren 20an, tronboi, bonbardino eta tuba ikasleek egingo dute kontzertua. 18:00etan izango da, Musika Eskolan, eta sarrera doan izango da.

Saioan, ikasturtean barrena ikasitakoa erakusteko aukera izango dute Mikel Markiegiren eta Iker Olazabalen ardurapean diharduten ikasleek.

Horrez gain, eta tradizioari eutsiz, Arrasate Musikaleko Bandak urteari agur esateko kontzertua egingo du abenduaren 31n: hain zuzen ere, 11:00 aldera kalejira egingo dute eta gero kontzertua, Amaia antzokian. Aurten, berrikuntza moduan, Goikobalu abesbatzarekin abestuko dituzte bi pieza; Häendelen *Aleluya* da bat.

Santamasetako bertso jaialdirako txartelak salgai jarri dituzte

M.B. | BERGARA

Dagoeneko salgai jarri dituzte AED elkarteak, Udalaren laguntzarekin, Santamasetarako antolatzen duen bertso jaialdirako txartelak. AEDn eta Irati eta Monte tabernetan eskura daitezke, 10 euroren truke –8 euro AEDko bazkideendako eta Topakide txarteldunendako–. Jaialdia 20:30ean izango da, Amaia Udal Antzokian.

Emakumeak protagonista

Iazko saioan hainbat belaunalditako bertsolariak gonbidatu zituzten Amaiako jaialdira. Aurten, berriz, emakumeak izango dira protagonista: "Santamasetako bertso saioan proposamen berriak egin nahi izaten ditugulako aukeratu ditugu denak emakumezkoak", adierazi dute AEDtik. Hori horrela, Amaia Agirre, Alaia Martin, Oihane Enbeita, Miren Amuritza eta Andere Arriolabengoa arituko dira taula gainean. Gai-jartzailea ere emakumezkoa izango da, Maite Berriozabal.

Denak emakumezkoak izatearekin batera, bertsolari gazteak ere badira, nagusienak –Amaia Agirre– 34 urte ditu -eta. Saio freskoa izango da, eta ikusteko dago, guztiak emakume izatera, zer-nolako norabidea hartzen duen jaialdiak.

Sormen tailer trinkoa egongo da bihar, zapatua, Laia Bedosen eta Carla Fernandezen eskutik

Laia Bedosek eta Carla Fernandezek zuzenduko dute bihar, zapatua, 15:30etik 20:30era, Emakume Txokoak antolatutako *Sormen tailerra: Gorputzetik eta margotik, argazki eta bideora.*

Askatasuna, sormena eta errespetua oinarri, nork bere gorputzari entzutearen plazeraz eta nork bere desioei eustearen indarraz hausnartzeko bideak irekiko dira.

Izena emateko, deitu 943 79 41 39 telefonora edo idatzi *emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net* helbidera.

Maite Urtzelairen paisaia koloretsuak ikusgai daude Harresi aretoan astelehenera bitartean

Sortzez bergararra den baina 30 urte Arrasaten daramatzan Maite Urtzelaik erakusketa du ikusgai Harresi aretoan. Azkeneko hamaika urteetan egindako lanak zintzilikatu ditu artistak; gehienak, paisaia koloretsuak. Erakusketa ikusgai egongo da astelehenera arte, astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara eta zapatu eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

erreka
taberna - jatetxea
Ondo ibili Santamasetan!
Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate
Tel.: 943 53 32 72
erreka@errekajatetxea.eu

LANDALUZE
HARATEGIA -TXERRIKITEGIA
BEREZITASUNAK
TRIPAKIAK
URDAIAZPIKOAK
ODOLOSTEAK
Zorionak eta
Urte berri on!!!
Iturriotz kalea 7 ARRASATE
Tel.: 943 79 14 86

Pelukak eta ilea berreskuratzeko
sistema berri eta pertsonalizatua
Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74

Ondo pasa
Santamasak!
KING'S
peluqueros
Zarugalde 23 • Tel.: 943 79 84 88 • ARRASATE

ECCO
CLARKS
MASCARÓ
24 HRS
HISPANITAS
LODI
URSULA
PAN
CATS
LOOKFLEX
WONDERS
GEORGES
STONFLY
BRUNO PREMI
BARRAS
MBT
NATURALISTA
SACHA LONDON
OINETAKOAK
Yoar
Biteri 13 • ARRASATE • 943 79 21 71
Barrenkalea 9 • BERGARA • 943 76 22 86

Estepan Plazaola teknikariak eta Maren Belastegi zinegotziak egin zuten aurkezpena. | JULEN IRIONDO

Toponimia mapa eta webgunea herritarren eskura jarri ditu Udalak

Mapak udalerri osoa hartzen du eta, bertan, 1.000 leku izen baino gehiago ditu; 6.000 ale banatuko dituzte eta hainbat lekutan herritarren eskura izango dira

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Osoko bilkuren aretoa beteta zela, eguaztenean aurkeztu zuten Bergarako toponimia jasotzen duen ekimena: herriko mapa eta toponimia webgunea. Azken urteotako lanaren emaitza, euskara batzordetik bideratu den ikerkuntza proiektua, herriko tokien izenak modu egoki eta samurrean kontsultatzeko, papereko euskarrian eta digitalean.

Bada, behin mapa eta webgunea herritarren eskura jarrita, Udalaren asmoa da jendearen ekarpenak jasotzea, webgune bizia egitea, proiektua dagoenetan geldi gera ez dadin; parte-hartzea bultzatzea, alegia. Hala, erabiltzaileei eskainiko zaie zuzenketak eta egokitzapenak egiteko eta argazkiak igotzeko aukera.

Hainbat tokitan eskuragarri

Herriko paperezko mapak udalerri osoa hartzen du eta 1.000 lekuizen baino gehiago ditu, bi aldetan banatuta: batetik, baserri-auzoen aldea; eta bestetik, hirigunea. Toponimia webgunean, mapan agertutakoaz gain, beste hainbat informazio eskaintzen da: mapan sartu gabeko leku izenak, leku izenen gaineko azalpenak, argazkiak, mapa zaharrak eta berriak...

Maparen 6.000 ale banatuko dituzte eta interesa daukan edozeinentzat eskuragarri jarriko dituzte kultura etxean, udaletxean, Agorrosinen eta Labegaraietako kiroldegian, Pol-Poleko bulegoan eta San Joxepe elkartean. Toponimia webgunea hauxe duzue: *www.bergarakoeuskara.net*

Erakusleiho onenak sarituko dituzte eguaztenean

EDU MENDIBIL | BERGARA

Udalak antolatutako erakusleiho lehiaketako sari banaketa eguaztenean, abenduaren 21ean, egingo dute kultura etxean, 15:00etan. Gabonei begira espresuki apaindutako merkataritza establezimendu guztiak aintzakotzat hartu ditu epaimahaiak kontuan. Kultura batzordeak, Bedelkar Bergarako merkatarien elkarteak eta Beart Bergarako arte elkarteak izendatutako pertsonek osatuko dute epaimahaia eta hiru sari banatuko dituzte: irabazleak 300 euro eta garaikurra eskuratuko ditu; bigarren sariarendako 250 euro eta garaikurra izango dira; eta, azkenik, hirugarren saria jasotzen duenak 200 euro eta garaikurra eramango ditu. Gabonen ostera arte, urtarrilaren 7ra arte, erakusleihoa prestatuta izatea eskatzen zaie herriko dendariei.

Erakusketa udaletxean

Nekazaritza familiarra erakusketa ikusgai dago udaletxean, osoko bilkuren aretoan, astelehenera arte. Foro Rural Mundial delakoak eta Mundukide eta Fisc gobernuz kanpoko erakundeek antolatutako erakusketa da eta ondoko ordutegian dago zabalik: gaur eta astelehenean 18:00etatik 20:30era; bihar eta etzi, domeka, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era.

Batzoki Eguna ospatuko dute jeltzaleek domekan

Bergarako EAJk antolatuta, Batzoki Eguna ospatuko dute oraingo domekan, irailaren 18an.

Ohiturari jarraituta, lehenbizi, eguerdiko ordu batean, urtean zehar hildako alderdikideen oroimenezko meza izango da Moja Zaharretan, Goenkalen.

Mezaren ostean, herri bazkaria egingo dute batzokian, 14:30ean. Bergarako EAJk dei egiten die alderdikideei eta jarraitzaileei domekako ospakizunetan parte hartzeko. Bazkarirako izen-ematea zapatu eguerdira arte egin daiteke 943 76 47 00 telefono zenbakian.

Euskal Herriko mus txapelketa: zapatuan kanporaketa Bergaran

Euskal Herriko IV. mus txapelketako kanporaketa jokatuko da bihar, zapatua, Artatse elkartean, 16:00etan hasita. Izen-ematea (20 euro bikoteko) zapatuan bertan egin ahal izango da, kanporaketa hasi baino ordubete lehenago. Batutako diruaren %50 eramango du bikote txapeldunak zapatuan; horrez gain, beste hiru bikote onenendako sariak izango dira.

Bergarako kanporaketaren ondoren, otsailaren 24an, 25ean eta 26an, zazpi herrialdeetako finalak jokatuko dira (lekua zehazteke daukate oraindik). Finala, berriz, Arbizun (Nafarroa) izango da datorren martxoaren 17an.

E.M.

Pol-Poleko bulegoa, azokan

Hasiera baten Udal Pilotalekuko lokal batera joatekoak ziren Pol-Polekoak, baina, azkenean, Oxirondo azokan segituko dute. Astelehen, martitzen eta eguaztenetan egoten dira han, 18:45etik 19:45era, eta telefonoa lehengo bera da: 943 76 48 51. Egunotan, 2012ko federatu txartelekin dihardute. Argazkian Eider Iturrospe idazkaria eta Jose Inazio Larrañaga zuzendaritzako kidea daude.

Arrizuriaga parkeari buruzko azalpenak eman ditu Udalak

EAJk parkearen segurtasun faltari buruzko mozioa aurkeztu zuen azkeneko osoko bilkuran

M.B. | BERGARA

Azaroko osoko bilkuran EAJ alderdiak aurkeztutako Arrizuriaga parkearen gaineko mozioaren harira, bilkuran bertan emandako hainbat azalpen argitu nahi izan ditu Juanje Amasorrain Turismo eta Ondare batzordeburuak. EAJk mozioan eskatzen zuen "Udalak egin dezala beharrezko txosten teknikoa eta zabal dezala Arrizuriagako parkea segurtasun baldintzetan, horretarako aurreikusita zeuden 300.000 euroko diru partida erabiliaz".

Amasorrainek bilkuran esandakoaren arabera, Arrizuriagako parkearen inguruan EAJk aurkeztutako mozioan bi gai desberdin nahasten dira. Hau da, "mozioaren fundamentua berdegunearen segurtasuna izanda, 300.000 euroko inbertsioa aipatzen da, Arrizuriaga erabilgarria eta segurua izan dadin inbertsio horren beharra egongo balitz moduan". Baina hark esandakoaren arabera, "hori ez da horrela".

Amasorrainen esanetan, "Arrizuriagako berdeguneak, berez, inongo ukitu barik, segurtasuna salbuetsita, izugarrizko balioak ditu eta gainditu ezineko edertasuna", eta, horren harira, Bergarako Lorategi Historikoak taldearen bitartez aditu batek egindako ikerketa ekarri zuen gogora. Ikerketa hori Eusko Jaurlaritzara bideratu zela gogorarazi zuen eta "ikerketan ontzat eman zelako eta ikusita Arrizuriagan egindako txikizioak –parkea zatitu zuen errepidea– atzera buelta bazuela" eskatu zutela "bere onera bueltatzea udaletxean jaso zen txosten batean".

Horrez gain, "Arrizuriagako berdegunea guztiz aldatzeko" 300.000 euroko gastuari buruz esan zuen proiektua zuzendu zuen arkitektoak berak aipatutako txostena ezagutu zuenean esan zuela "lehenago jakin izan balu parkeak nolako baloreak zituen ez zuela proiektu hori planteatuko".

Horrekin batera, gogora ekarri zuen hori guztia aurreko agintaldiaren hasieran gertatu zela eta proiektua bertan behera laga zela, nahiz eta lanak hasita egon, eta "gastatu gabeko dirua Udalari ordaindu ziola promotoreak eta Udalak beste proiektu batzuetara" bideratu zuela.

Bukatzeko, esan zuen aurreko agintaldiaren bukaeran parkea zabaltzea pentsatu zela eta egokitze lan batzuk hasi zirela, "pena zelako horrelako berdegune ikusgarria itxita izatea". Egokitze lan horiek aurten abuztuan amaitu direla gogora ekarri zuen, eta egin zirela, "batez ere, segurtasuna bermatzeko, eta dena ondo zegoela konprobatuta" ireki zela.

Patxi Uribesalgo | Gure Ametsa elkartekoa

"Gabonen atarian giro polita sortzen da feriarekin San Antonion"

Napar Feriaren 12. ekitaldia ospatuko dute bihar, zapatua, San Antonion, goizean hasita

E.M. | BERGARA

Urteko sasoi honetan ohiko bilakatu da San Antonioko Gure Ametsa elkarteak antolatzen duen Napar Feria. Biharkoa 12. ekitaldia izango da. 1973an sortutako elkartea da Gure Ametsa, 50 bazkide ditu eta Patxi Uribesalgo dugu kultura batzordeko kideetako bat.

Nola sortu zen Napar Feria egiteko ideia?

Hainbat jakiren gaineko hitzaldiak antolatu izan ditugu elkartean, eta ahatearen ingurukoa egitera Katealdeko lagunak etorri ziren. Haien bitartez, Naparbideak kooperatibaren berri izan genuen; Nafarroako produktuen kooperatiba da Naparbideak, feria askotan ibiltzen dena. Haiekin hasi, eta aurten 12. aldiz egingo dugu Napar Feria: hamar bat postu izango dira zapatuan San Antonion, eta, aurreko urteotan bezala, hainbat ekitaldi antolatu ditugu feriaren inguruan.

Sukaldaritza lehiaketan marmitakoarena deitu duzue aurten. Ez da marmitako sasoia, baina...

Napar Feriaz gain, garai baten Patata Feria egiten genuen, eta, duela urte batzuetatik hona, bateratzea pentsatu genuen, lan handia eskatzen zuten-eta biek. Sukaldaritza lehiaketaren laugarren ekitaldia da aurten eta marmitakoa nork hobeto prestatu herriko bederatzi elkartek jardungo dute. Pozik gaude jasotako erantzunarekin, iaz sei elkarte lehiatu ziren-eta. Eta ez, ez da marmitako sasoia, baina izoztutako atunarekin primerako marmitakoa egin daiteke urteko edozein sasoitan. Ea epaimahaiak zer dioen zapatuan...

Goizetik egongo da zer ikusi eta zer egin San Antonion.

Bai, giro polita sortu izan da aurreko urteotan eta espero dugu aurten ere herritar asko etortzea auzora.



Patxi Uribesalgo. | GOIENA

NAPAR FERIA

10:30 Feriaren hasiera. DJ Angieren saioa.

11:00 Txistularien kalejira eta sukaldaritza lehiaketa.

11:30 Meza.

12:00 Gaztetxoendako jolasak.

12:30 Edariak eta pintxoak.

13:00 Sari banaketa: sukaldaritza lehiaketa eta Gabonetako postalak.

13:30 Alai Taldea.

15:00 Bazkaria.

'Nekazaritza familiarra' erakusketa ikusgai dago udaletxean astelehenera arte, hilaren 19ra arte

Nekazaritza familiarraren nazioarteko urtearen kanpainaren barruan, Foro Rural Mundial delakoaren eta Mundukide eta Fisc gobernuz kanpoko erakundeen eskutik, *Nekazaritza familiarra* erakusketa ikusgai dago udaletxean, astelehenera arte. Erakusketa panelen bitartez osatuta dago, eta, modu didaktiko eta dibulgatzailean, elikadura ziurraren eta subiranoaren, elikadura eskubidearen, emakumeen egoeraren eta nekazaritza familiarraren garapenerako estrategiak planteatzen dira.

Amodiozko gutunen lehiaketarako lanak urtarrilaren 7ra arte jasoko dituzte Jardunen

Jardun euskara elkarteak antolatutako amodiozko gutunen lehiaketa 20. ekitaldira iritsiko da aurten. Lanak jasotzeko epea Gabonen ostera arte dago zabalik, urtarrilaren 7ra arte, eta lau sari banatuko dituzte: irabazleak 500 euro jasoko ditu; bigarren saria 250 euro izango da; bergarar onenarendako, 150 euro; eta, azkenik, 26 urtetik azpiko onenak ere 150 euro eskuratuko ditu. Irakurle gazteek erabakiko dute azken sari hori. Argibide gehiago 943 76 36 61 telefonoan edo Interneten: *www. goiena.net/blogak/jardun*.

San Pedro parrokiako lanei buruzko erakusketa Gabonetan udaletxean

- Berrikuntza lanak ezagutzera eman nahi dituzte
- Juan Luis Bikuñaren hitzaldia hilaren 22an udaletxean

E.M. | BERGARA

Abenduaren 22tik urtarrilaren 8ra arte San Pedroko berritze lanei buruzko erakusketa ikusgai izango da udaletxean, osoko bilkuren aretoan. Jon Molina San Pedroko parrokoaren arabera, helburua bikoitza da: alde batetik, udaberria ezkero egiten diharduten berrikuntza lanak azaltzea herritarrei; eta bestetik, San Pedrok historian zehar herrian izan duen eragina nabarmentzea. Erakusketan, panelez eta argazkiez gain, bestelako elementuak ere jarriko dituzte: kanpai baten mihia, partitura zahar bat eta apurtutako harri bat esaterako. Lehengo egoeraren eta oraingo lanen irudiak jasotzen dituen muntaia ere egongo da ikusgai osoko bilkuren aretoan. Erlijio ikuspuntua ez ezik, parrokiaren beste arlo batzuk ere azpimarratu nahi dituzte.

Hurrengo eguenean zabalduko dute erakusketa, Juan Luis Bikuñak egingo duen hitzaldiarekin. San Pedroren historiaz jardungo du kazetari bergararrak udaletxean, 19:00etan.

Udaberrian jarri zituzten abian San Pedro berritzeko lanak. | E.M.

Herriko eraikin baliotsuena

Udaberrian jarri zituzten abian San Pedro berritzeko lanak. Bergarako Zetabi Arkitektura Bulegoak egin du proiektua; aurreko bi urteotan proiektua garatu ondoren, maiatzean ekin zieten lanei. Dorreko elementuak eta teilatua ari dira konpontzen orain. Amenabar enpresa dabil San Pedron lanean, Zetabiren eta Jesus Laskurain aparejadorearen zuzendaritzapean. Dorrea eta teilatua berritu ondoren, altxaerak, presbiterioko altuerak, sakristia eta bestelako lanei ekiteko ordua etorriko da. Proiektuak 3 milioi euro inguruko aurrekontua dauka eta lanak 2013. urterako amaitzea da asmoa. Molinaren hitzetan, "eliza berritzea ez da kapritxoa izan; oso egoera larrian zegoen eta Bergarako eraikin artistikoen artean baliotsuena da. Orain egiten ari garena azaldu nahi dugu, herritarrek informaziorik onena izan dezaten".

> ESANAK
>
> **"Eliza berritzea ez da kapritxoa izan; oso egoera larrian zegoen"**
>
> JON MOLINA
> SAN PEDROKO PARROKOA

Finantzazioa lotzeke

Finantzazioa da buruhaustetako bat; are gehiago, krisi garai hauetan. Lehenbiziko faseko lanetarako 380.000 euroko laguntza agindu du Diputazioak. Ondoren, finantzazioa lotzen bada, eliza barrutik konpontzea da helburua: argiteria sistema eta zorua berritu, hezetasun arazoa konpondu eta berogailu sistema jarri eta elementu artistikoak zaharberritzea daude egitasmoen artean.

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

Bueltan da lau t'erdiko afizionatuen txapelketa

Lau t'erdiko Soraluce sariaren hirugarren edizioa izango da

XABIER URTZELAI | BERGARA

Datozen hilabeteotan Bergaran batuko dira Euskal Herriko eta inguruko afizionatu mailako pilotari onenak. Aurtengo edizioak 40 pilotari izango ditu, aurreko edizioetan baino gutxiago, baina normala ere bada, hasierako urteetako pilotari kopuru handiak izugarri zailtzen zuen-eta txapelketaren antolaketa –lehen edizioan 80 pilotari gonbidatu zituzten. Aste barruan hasi dira lehenengo kanporaketak jokatzen, baina ibarreko ordezkariek aurrerako jokatuko dute. Hala, martitzeneko kanporaketan aurrera egin zuten Quinak (22-16), Kortaberriak (20-22) eta Bendoirok (23-22).

Bergarakoen artean, Eneko eta Ander Mugurutza final-hamaseirenetan hasiko dira jokatzen eta Aritz Rezustak lehenago hasi beharko du torneoa: datorren martitzenean jokatuko du lehen kanporaketa, 19:00etan hasita. Beñat Rezusta, azkenik, erreserba moduan dago, torneoan egon litekeen hutsuneren bat betetzeko gertu. Baina Bergarakoez gain, ibarreko beste pilotari bat ere gonbidatu dute torneora: Ibai Bolinaga arrasatearra.

2010eko irabazle Ontsalo (atzean), Yoldiren kontra. | GOIENA

Mendizabalen pausoen atzetik

Iazko torneoko irabazlearen pausoak jarraitu nahi dituzte pilotariek. Aitor Mendizabalek Etxeberri hartu zuen iaz mendean, eta Antzuolakoak bigarren mailako lau t'erdiko txapelketa ere irabazi du dagoeneko, profesionaletan lehena. Hala, iaz torneoan finallaurdenetarako sailkatu zirenek final-zortzirenetan hasiko dute aurtengo torneoa, eta aipatzekoa da, esaterako, lehenengo edizioko txapeldun Ontsalo –iaz ez zen egon– Bergaran izango dugula aurten.

Hurrengo jardunaldia martitzenean jokatuko dute, diogun moduan, Aritz Rezustaren partiduarekin. Norgehiagoka guztiak doan dira eta antolatzaileak errifak saltzen ibiliko dira, klubari laguntza ekonomikoa emateko.

Andoni Muxika eta Josu Zalakain, Espainiako txapelketan asteburuan

X.U. | BERGARA

Bergarako Shotokan klubeko Andoni Muxika eta Josu Zalakain Euskadiko selekzioarekin lehiatuko dira asteburuan Tarragonan egingo duten Espainiako txapelketan. Hala, kadete mailako karateka bergararrek Espainia osoko karateka onenak izango dituzte aurrean.

Kumitean

Bergarakoek kumite modalitatean lan ona eginda eskuratu dute Euskadiko selekzioa ordezkatzeko txartela. Esaterako, azaroaren 26an Iruñean egin zuten erkidegoen arteko txapelketan, Nafarroako, Aragoiko eta Errioxako karatekak izan zituzten aurrean, eta ibarreko bi ordezkariak hirugarren izan ziren. Hain zuzen ere, denboraldi hasiera ezkero gogor egin dute lan selekzioan egoteko.

Muxika eta Zalakain. | SHOTOKAN

Gabonetako alebin mailako hiruko torneoa egingo dute

Bergarako saskibaloi taldeak antolatu du saskibaloi txapelketaren hirugarren edizioa. Abenduaren 26an eta 27an egingo dute, Bergarako pilotalekuan. Bada, antolatzaileek iazko arrakasta bera izatea espero dute, 170 neska-mutikok jokatu zuten-eta orduan saskibaloian.

Saskibaloiko seniorrek Tolosan jokatuko dute bihar

Joan den astean ligako azken sailkatu Leihoak taldea mendean hartuta (65-59), Soraluce BKEk liga erdialdean borrokan dabilen Tabe Orbela izango du kontrario (zapatua, 18:00, Tolosa). Tolosarrek bergararrek baino bi puntu gehiago dituzte, baina lasaiago daude sailkapenean.

Bergarako udala

Ondo pasa gabon jaietan!

ERAKUSKETAK AROZTEGI ARETOAN

Buztinzale zeramika elkartearen erakusketa. Abenduaren 16tik 25era
Beart arte elkartearen erakusketa. Abenduaren 30etik urtarrilaren 8ra

Ordutegia: Asteartetik ostiralera: 18:00 – 20:30 **Larunbatetan:** 12:00 – 14:00 eta 18:00 – 20:30
Igandetan: 12:00 – 14:00

ABENDUA **OSTIRALA 16**
18:30 Musika Eskolakoen gabonetako kontzertua pilotalekuan. Antolatzailea Musika Eskola.

ABENDUA **LARUNBATA 17**
10:00 Napar feria San Antonion.
18:00 "Gabon Kontuk" antzerki emanaldia Zabalotegin. 3€.
22:30 Gabonetako kontzertua pilotalekuan. 5€.

ABENDUA **IGANDEA 18**
Zinea Zabalotegin.
17:00 *Arthur y la guerra de los mundos.*
19:30 *Codigo fuente.*

ABENDUA **ASTEAZKENA 21**
Zine kluba Zabalotegin.
20:30 *Corpo delle done. Porque son tan importantes las mujeres? Pantojismos.*

ABENDUA **OSTIRALA 23**
20:00 Bergarako Orfeoia eta Gabero abesbatzaren gabonetako kontzertua Santa Marina parrokian.

ABENDUA **LARUNBATA 24**
11:30 Kalejira Olentzero eta Mari Domingirekin. Frontoitik hasita.
19:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira.

ABENDUA **ASTELEHENA 26**
17:30 eta 18:30 Mondo Flurss antzerki emanaldia Zabalotegin. 3€.
• Gabonetako 3x3 saskibaloi torneoa udal pilotalekuan. BKE.

ABENDUA **ASTEARTEA 27**
• **17:30-19:30** GOAZEN UME ETA GURASOAK ELKARREKIN JOLASTERA! Zabalotegin. Doan.
• Gabonetako 3x3 saskibaloi torneoa udal pilotalekuan. BKE.

ABENDUA **ASTEAZKENA 28**
10:30-12:30 eta 17:00-19:00 Ur jolasak Agorrosin-en.
Zine kluba Zabalotegin.
20:30 *Bienvenidos al sur.*

ABENDUA **OSTEGUNA 29**
10:30-12:30 eta 17:00-19:00 Ur jolasak Agorrosin-en.

ABENDUA **OSTIRALA 30**
17:30 – 19:00 Jolas erraldoiak Munibe plazan.

ABENDUA **LARUNBATA 31**
• Futboleko federatuen gabonetako gazte torneoa Ipintzan. BKE.
• Irristaketa egun herrikoia Labegaraietan. Hanka Labanka.

URTARRILA **IGANDEA 1**
Ongi etorri 2012!!!

URTARRILA **ASTELEHENA 2**
17:30 eta 18:30ean Arrasto Bluak haurrentzako antzerki emanaldia Zabalotegin. 3€.

URTARRILA **ASTEARTEA 3**
11:00 – 13:00 eta 17:00-20:00
• Gabonetako jolas-parkea Udal pilotalekuan.

URTARRILA **ASTEARTEA 4**
11:00 – 13:00 eta 17:00-20:00
• Gabonetako jolas-parkea Udal pilotalekuan.

URTARRILA **OSTEGUNA 5**
11:00 – 13:00 eta 17:00-19:00
• Gabonetako jolas-parkea Udal pilotalekuan.
17:00 Bizar Zuri udaletxean.
19:00 Errege kabalgata.

URTARRILA **OSTIRALA 6**
Errege eguna.

URTARRILA **LARUNBATA 7**
18:00 "Murren bidaia" haurrentzako antzerki emanaldia Zabalotegin. 3€.
• Gabonetako saskibaloi txapelketa Labegaraietako kiroldegian. BKE.

URTARRILA **IGANDEA 8**
18:00 "Herrixa dantzan" dantza zaleentzako saio gidatua Zabalotegin, Patxi Monteroren eskutik
• Gabonetako saskibaloi txapelketa Labegaraietan. BKE.

Musika Eskolakoek Gabonetako kontzertua egingo dute gaur

M.B. | BERGARA

Musika Eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 18:30ean.

Suzuki taldeko biolin joleek irekiko dute emanaldia, eta, Josune Ena irakaslearen gidaritzapean eta Nagore Sanz piano jolearen laguntzarekin, lau pieza joko dituzte.

Txistu taldeak *Adan eta Eva* egingo du eta Akordeoi Orkestrak, berriz, Benito Lertxundiren *Nere herriko neskatxa maite* ezaguna eta Astor Piazzolaren *Libertango* joko dute, Angel Agiriano eta Marije Ugalderen zuzendaritzapean.

Orkestra sinfonikoak filmetako musika klasikoarekin partekatuko du, Kemen Bedialaunetaren aginduetara: John Williamsen *Star wars* filmaren soinu banda egingo du lehenengo eta Schuberten *Marche Militaire* gero.

Hasiberrien abesbatzak ere parte hartuko du eta ikasturtean barrena ikasitakoa erakutsiko dute emanaldian.

Trikiti ikasle guztiak, batera

Herriko trikiti ikasle guztiek lehenengoz hartuko dute parte Gabonetako kontzertuan. Izan ere, Musika Eskolaren eta Jardunen trikiti eskolak bateratu egin ziren irailean.

Haurren abesbatzak eta Gazte Bandak egingo duten emanaldiaren ostean, talde guztiek elkarrekin Warren Barkerren *A Christmas Serenade* joko dute kontzertua amaitzeko, Kemen Bedialaunetaren zuzendaritzapean.

Herriko Bustinzale zeramika elkarteak erakusketa irekiko du gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan

Elkartea osatzen duten dozenatik gora kideek ikasturtean barrena egindako lanak egongo dira ikusgai erakusketa horretan. Platerek, zeramika tradizionalak eta, batik bat, eskulturek osatzen dute. Gaur, egubakoitza, hasi eta 25era arte egongo dira ikusgai, astegunetan, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Iazko kontzertuaren une bat. | JULIO CALLEJA

Gabonetako kontzertua bihar Udal Pilotalekuan

Emanaldiaren bigarren partean, 'The Mission' egingo dute talde guztiek elkarrekin

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Herriko musika hitzordu garrantzitsuenetakoa izango da bihar. 22:30ean, Udal Pilotalekuko argiak ilundu eta Gabonetako kontzertuari ekingo diote Udal Musika Bandak, Aritzeta Abesbatzak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak eta Bergarako Orfeoiak, Musika Eskolaren laguntzarekin.

Ohi bezala, bi atal izango ditu emanaldiak: lehenengoan, talde bakoitzak bakarkako lana egingo du. Udal Musika Bandak *Moses and Ramses* Yagisawaren poema sinfonikoarekin irekiko du kontzertua, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean. Aritzeta Abesbatzak saio bariatua egingo du, Imanol Urtzelaik gidatua: J. Daviden *You are The New Day* obrarekin hasiko dute emanaldia eta Lafuente Aguadoren *Habanera salada* eta Eduardo Carvalhoren *Desafinado* lana abestu eta gero, Guridiren *Hator Hator* Gabon abestiarekin bukatuko dute.

Bergarako Orkestra Sinfonikoak zinemara jo, eta H. Zimmerek *Gladiator* filmerako sortu zuen soinu banda ekarriko du pilotalekura. Bergarako Orfeoiak, berriz, lau obrako emanaldia egingo du: *Con Te Partiró, Mariaren Semea, Angels* eta *Mass*, hain justu ere. Aipatzekoa da R. Williamsen *Angels* kantuan Ainara Uribesalgok (altoa) eta Julen Alberdik (baritonoa) bakarka jardungo dutela; baita Eli Mendiaraz pianoan arituko dela ere. Zuzendari lanak Aitor Biainek egingo ditu.

Bigarren partea, borobila

Bigarren zatian, Gonzalez Chirlaquek orkestrarako egokitutako *The Mission* soinu banda ezaguna egingo dute talde guztiek elkarrekin. Eta, obra hori jota, orkestraren 25. urteurreneko ospakizunak bukatu egingo dira.

Duela 20 urte estreinatu zuen Bergarako Orkestra Sinfonikoak moldaketa hori. Bergaran eta kanpoan asko estimatu den obra izan da eta herri askotan jotzeko aukera eman die. Andoainen, Sopuertan, Agoitzen... hamaika herritan jo dute, hango abesbatzek hala eskatuta. Huelvan astebeteko bira egin zuten, Isla Cristinako abesbatzarekin batera, eta zazpi kontzertu eman.

Txartelak leihatilan egongo dira salgai 5 eurotan.

Oñatiko Udal Musika Banda iazko Gabonetako kontzertuan. | JULIO CALLEJA

Musikariak eta abesbatzak Gabonetako kontzertuan

Banakako eta taldekako saioak egingo dituzte parrokian domekan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Urteko musika emanaldi osoena egingo dute etzi, domekan. Gabonetako kontzertuan (parrokia, 19:00) elkartuko dira herriko musikari eta abesbatza gehienak: Udal Musika Banda, Oñati Abesbatza, parrokiako koruak, Ganbara eta Ganbara Txiki abesbatzak eta Txantxiku Ikastolako abesbatza elkartuko dira. 250 bat parte-hartzaile.

Asteon hainbat entsegu egin dituzte parrokian bertan, baina norberak aurretik egin du lan zailena. "Egunean guztiak koordinatzea ez da zaila, talde bakoitzak aurretik egin duelako lana", esan digu kontzertuko zuzendari Inaxio Ibarrondok.

Kolonbiarako dirua

Parrokia lepo beteko da, beste behin, Gabonetako kontzertua entzuteko. Bada, Parrokiako Misio Taldekoak sarreran egongo dira, Kolonbiako proiekturako dirua batzen.

DATUA

250

KIDE

Horiek dira domekako kontzertuan parte hartuko dutenak.

ESANAK

"Talde guztiek aurretik egin dute lan gogorrena"

INAXIO IBARRONDO | ZUZENDARIA

KONTZERTUAREN EGITARAUA

Musika Banda
Titanic
Olentzero

Banda-Ganbara Txiki
Magnificat

Oñati Abesbatza
Haurtxo txiki eder hori
Gaudete
Arkume eta gaztakin

Banda eta abesbatzak
Adeste Fideles
Mesias sarritan
Cantique de Noel
Pie Jesu
Spiritual Rhapsody
Jaialdia

Umerez eta Lizarralde, Berezaoko txapeldunak

Aurreko aste bukaeran ospatu zituzten Berezaon Santa Lutzia jaiak. Askotariko ekitaldiak egin zituzten; tartean, mus txapelketa. Bada, bikote guztiak gainditu ostean, Elias Umerezek eta Mikel Lizarraldek jantzi zituzten txapelak. Finalean, Julio Larrañaga eta Jose Luis Lazkanoiturburuaren kontra lehiatu ziren.

JOSE MARI LARRAÑAGA

Mikel Garateren folk-rockak girotuko du Antton taberna, 20:00etan, abesti lasai eta dantzagarriekin

Xabi eta Pettiren doinu indartsuen ondoren, Mikel Garateren musika lasaia izango da protagonista Antton tabernan gaur, 20:00etan. Folk-rockak girotuko du taberna. Bob Dylanen bertsioak egingo ditu. Gitarra, harmonika eta ahotsak erabilita (ahots hautsia batzuetan, eta goxoa besteetan), abesti lasaiak eta dantzagarriak joko ditu.

Rap eta hip-hop musikaren gaineko saio didaktikoa egingo du Revolta Permanent taldeak gaztelekuan

Revolta Permanent bikoteak saio didaktikoa egingo du gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 19:00etan. Rap eta hip-hop musika du oinarri Barakaldoko taldeak, eta hori oinarri hartuta egingo dute gaurko saioa. Iker Aginagak eta Iker Villak euskaraz eta gaztelaniaz abesten dute eta bi kanturekin arrakasta lortu dute: *Kantuka* eta *Garrasi egin* kantuekin, hain zuzen ere.

Haitira eguzki-lanparak bidaltzeko elkartasun afaria egingo dute Bidaurretako fraideen etxean

Parrokiako Misio Taldeak elkartasun afaria egingo du Bidaurretako fraideen etxean gaur, 20:30ean. Menua ohikoa izango da: patata tortilla eta entsalada. Oraingo honetan batzen den dirua Haitira bidaltzeko eguzki-lanparak erosteko bideratuko dute. Lanpara bakoitzak 15 euro balio du, eta, bederatzi orduan kargatuz gero, hiru orduko autonomia dauka.

Bizarzurik, Olentzeroren postariak, umeen gutunak jasoko ditu domekan gaztelekuan

Olentzeroren gutunak gertu egongo dira etxe askotan. Bada, horiek batzera etorriko da Bizarzuri, Olentzeroren postaria, domekan, hilaren 18an. Gaztelekura helduko da 17:00 aldera eta neska-mutiko guztien gutunak jasoko ditu. Ondoren, Olentzerori eman, eta oparien zain geratuko dira umeak hilaren 24ra arte.

Kontsumoaren zergatien gaineko tailerra hilaren 21ean, Oñatiko Zero Zabor taldearen eskutik

Oñatiko Zero Zabor taldeak azaroan hasitako bidearen bigarren etapa egingo du hilaren 21ean. Kontsumoaren gaineko tailerra egingo dute, 18:30ean, kultura etxean. Hirugarren tailerrerako eguna ere zehaztu dute: urtarrilaren 11n egingo dute, eta gizarte iraunkorra lortzeko segitu beharreko pausoak zehaztuko dituzte. Lehenengo tailerrean 16 lagunek parte hartu zuten.

Margo taldekoek margolan salmenta egingo dute Kolonbiarako dirua batzeko: bihar, zapatua, plazan

Oñatiko Margo Taldeko kideek elkartasun jardunaldia egingo dute hilaren 17an. Parrokiako Misio Taldeak Kolonbian duen proiekturako dirua batzeko salmenta berezia egingo dute. Alegia, pintura ikastaroan egindako margolanak salgai ipiniko dituzte herriko plazan, 11:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Iaz 15 koadro saldu zituzten, eta 1.200 euro batu.

Indiarren eta 'cowboy'-en gaineko emanaldia egingo dute Hipo eta Tomax pailazoek Zuazolako aretoan

Errekalde Herri Eskolako guraso elkarteak antolatuta, Hipo eta Tomax pailazoek *Dinbi Danba* ikuskizuna egingo dute bihar Zuazola institutuko aretoan, 17:30ean. Indiarren eta *cowboy*-en istorioa da. Magiak, kantuek eta jolasek bat egiten duten ikuskizuna. Bada, sarrerak eros daitezke gaur Herri Eskolan, 1,5 eurotan, eta bihar leihatilan bertan, 3 eurotan.

2012ko Aratuste herrikoiak prestatzen hasteko deialdia egin du Oñatz dantza Taldeak

2012ko Aratuste herrikoiak prestatzen hasi da Oñatz dantza taldea. Aratuste-zapatuan egiten duten herri-kalejira antolatzeko deialdia egin dute. Eguaztenetan (20:00etan) eta zapatuetan (12:00) elkartuko dira Errekaldeko lokalean. Urtea bukatu aurretik bi entsegu egingo dituzte: bihar, zapatua, eta hilaren 21ean. Gainerako entseguak urtarriletik aurrera egingo dituzte.

Jose Maria Llavorirendako argazki lehiaketako sari nagusiak

'Mendia eta natura' eta 'Denuntzia' ataletako lehen sariak irabazi zituen

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aloña Mendi elkartearen mendi sailak deitutako argazki lehiaketak baditu irabazleak, eta guztien artetik izen bat aipatu behar da: Jose Maria Llavori zumaiarra. Hark irabazi ditu argazki lehiaketak dituen bi ataletako sari nagusiak: *Mendia eta natura* saila *Alas al sol* erretratuarekin eta *Denuntzia* atala *No a las alambradas III* argazkiarekin.

Sari banaketa ekitaldia gaur arratsaldean egingo dute kultura etxean, 19:00etan.

Gainera, Llavorirekin batera beste saritu guztiak egongo dira gaurko ekitaldian. *Mendia eta natura* atalean bigarren saria irabazi du Iñaki Idigoras oñatiarrak *Ez da giro* argazkiarekin eta hirugarren saria Benito Cantero bergararrak *Neila*-rekin. Atal horretan beste bi sari emango dituzte: mendiko ekintza erakusten duen argazki onena Jose Agustin Gurrutxagaren *Gorbea*-k jasoko du eta Oñati saria Jokin Astigarraga oñatiarraren *Ursa* erretratuari emango diote.

Jose Maria Llavoriren *Alas al sol* erretratua. | JOSE MARIA LLAVORI

Epaimahaian hiru kide

Denuntzia ataleko gainerako sarituak hauek dira: Jose Agustin Gurrutxagaren *Muerte en la carretera* (bigarren saria), Josu Garai oñatiarraren *Goi tentsioa* (hirugarren saria) eta Eusebio Novoa oñatiarraren *Burdin hesi hiltzailea* (Oñati saria).

Epaimahaiko kideak izan dira Xabier Mata (Ikatza argazkilari elkartea), Raul Esteban (Portfolio Natural) eta Jorge Murgiondo (Arizondo elkartea).

Erakusketa zabalduko dute

Aloña Mendik antolatutako VIII. argazki lehiaketan 67 argazkilarik hartu dute parte eta 248 erretratu aurkeztu dituzte (gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal zituzten pertsonako eta ataleko): 179 *Mendia eta natura* atalean eta 69 *Denuntzia* atalean. Antolatzaileak pozik daude erantzunarekin. "Digitalerako pausoa eman dugunetik, nabarmen igo da parte -hartze kopurua: iaztik hona %21 igo da", esan digu mendi elkarteko Iñaki Idigorasek.

Sari banaketa ekitaldiaren ostean erakusketa zabalduko dute.

Elkartasuna sustatzeko azoka erraldoia egingo dute plazan

M.B. | OÑATI

Elkar Hezi ikastetxeak elkartasun azoka erraldoia egingo du bihar Herriko Plazan. 10:00etan hasita, elkartasunaz gain, beste hainbat ekitaldi izango dira protagonista.

Askotariko produktuak

Elkartasun azokan 18 GKEk parte hartuko dute. Euren proiektuen berri eman eta produktuak salgai ipiniko dituzte. Besteak beste, Nikaragua, Peru, Sahara, Boli Kosta eta Ukrainako produktuak egongo dira: Ukrainako kabiarra, Indiatik ekarritako oihalak, bidezko merkataritza azokako txokolatea, marmelada eta gailetak.

Gainera, beste hainbat ekitaldi egingo dituzte elkartasun azokaren inguruan: Elkar Heziko ikasleek egindako birziklatutako bitxien salmenta, aurpegiak margotzeko eta mugikortasun tailerrak, gozogintza postua, eta txorizo, salda eta sagardo dastatzeak.

Bestalde, Eskolako Agenda 21ean lantzen diharduten mugikortasun gaiarekin lotuta, Beninera bidaltzeko bizikleta eta zapata bilketa egingo dute plazako arkupeetan.

Mugikortasun zozketa ere egingo dute. Elkartasun azokara bizikletan, patinetan edo patinetean doazenen artean sariak zozketatuko dituzte.

OHARRAK

HITZALDIA

Ilatargi taldeak hitzaldia egingo du hilaren 28an, 19:00etan. Mikel Bastarrikak *Big bang: horrela sortu zen guztia* delako berbaldia egingo du.

SARRERAK SALGAI

Gabonetan dauden hainbat ekitalditarako sarrerak salgai daude kultura etxean. Hain justu ere, hilaren 16ko gospel kontzerturako eta hilaren 30eko *Anaki* haurrendako ikuskizunerako. Kultura etxean eros daitezke 10 eta 3,5 eurotan, hurrenez hurren.

BASERRIKO PLASTIKOAK

Hilaren 27an batuko dituzte baserrietan sortutako plastikoak. Murgiako ermitan, Olabarrietan, Zañartuko Zuazolan eta ETEO atzealdean.

ZELAIA
OÑATI
www.zelaia.net
41 urte elkarrekin 1970-2011
Gabon zoriontsuak eta Urte berri on!
LIKIDAZIOA!
Likidazioa lekualdaketagatik
SANTA MARINA 3
• Sukaldeko eta bainuko altzariak
• Sanitarioak
• Sukaldeko eta bainuko osagarriak
Likidazioa obragatik
EUSKADI ETORBIDEA 3
• Etxeko altzariak eta lagungarriak
• Argiztapena
• Oparitzeko gauzak
Anima zaitez!
SUKALDE ETA BAINUAK
Santa Marina 3 • 943 71 62 81
ALTZARIAK
Euskadi Etorbidea 3 • 943 78 36 99

Kiroldegia kudeatzeko lehiaketa oinarriak onartu ditu udalbatzak

Kiroldegiaren irekiera atzeratu egin da; martxoan izango da, eta ez urtarrilean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Kiroldegi berria kudeatuko duen enpresa hartzeko lehiaketaren oinarriak onartu zituen udalbatzak asteleheneko ezohiko osoko bilkuran, EAJk aurka bozkatu zuen arren. Alderdi Sozialistako zinegotzia izan ezik gainerako alderdiak elkartu ziren, eta oinarri horiek "berandu eta presaka landuta" aurkeztu zituztela esan zieten Bildukoei, bai EAJko kideek, bai Aralarkoek.

Bolinaga alkateak onartu zuen berandu ibili direla, eta gainera-tu lehenbailehen onartu beharrean daudela, gaur, hilak 16, sartuko da-eta indarrean kontratazio lege berria. Berandutze horren arrazoietako bat kudeaketaren gainean egin duten hausnarketa izan dela argitu zuen: "Kudeaketa mistoa ezin izan dugu jarri, baina kudeaketa integralak mistoaren helburuak betetzea gura dugu".

Aurkeztutako oinarri horietan hainbat aldaketa egiteko eskatu zuten Aralarko eta EAJko kideek. Tartean, eskaintzak aurkezteko epea 15 egunetik 26 egunera luzatzea; eta kiroldegiari jarraipena egiteko sortuko duten jarraipen batzordean Kirol teknikaria ere egotea. Eskaera bakarra onartu zuen alkateak: aurkezteko epea 26 egunera luzatzea.

ESANAK

"Oinarriak ez daude onartzeko moduan; zuzendu eta beste bilkura bat egitea eskatzen dugu"

MIKEL URIBETXEBARRIA | EAJ

Kiroldegi berria, martxoan

Bestalde, kiroldegia urtarrilean zabalduko zela iragarri arren ez dela hala izango jakinarazi zuen Bolinagak: "Obrako plan berriaren arabera otsailaren 15ean jasoko ditugu giltzak, gero beste 15 egun beharko dira makinak martxan jartzeko, eta martxoan zabalduko dugu".

Bien bitartean, herritarrek inguruko kiroldegietara joateko aukera izango dutela berretsi zuen: "Eskoriatzako alkatearekin egon gara eta hitzartu dugu hiru hilabeterako bonuak ateratzea aretxabaletarrendako. Eta Arrasatekoekin ere negoziatzen gabiltza". Kiroldegi berrirako abonatze kanpaina, ostera, otsail inguruan egingo du Udalak.

Bidezko merkataritza azoka egingo du Hiruatxek bihar

Udaletxe zaharreko atartean –eguraldi ona bada, kanpoan– jarriko dute bidezko merkataritza azoka Hiruatx gobernuz kanpoko elkarteko kideek bihar goizean (10:00-14:00). Hainbat produktu izango dituzte, gehienak jatekoak: kafea, txokolatea, azukrea... Gainera, umeendako jolasak egongo direla iragarri dute.

Barriketan egitasmoa martxan dauka Loramendi elkarteak

Astean ordubete euskaraz jarduteko taldetxoak osatzen dabil Loramendi elkartea. Hala, Barriketan egitasmoari jarraipena emango dio, eta euskaraz egiteko ohiturarik ez dutenei tartetxo bat eskaini. Izena emateko Loramendira jo behar da: telefonoz, 943 77 09 70 edo 685 75 67 29; eta posta elektronikoz, *loramendielkartea@gmail.com*.

OHARRAK

SEXUALITATE TAILERRA
Sexuaren gainean jardungo dute gaur (18:00) gaztelekuan 14 eta 16 urte artekoek (DBHko 3. eta 4. mailak). Bihar, ostera, opariak zelan bildu erakutsiko dute (18:00) gaztelekuan bertan.

ZINEMA: 'MIENTRAS DUERMES' ETA 'ZOOLOCO'
Helduek *Mientras duermes* filma izango dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). Umeek, ostera, *Zooloco* dute bihar eta etzi (17:00).

'MARIDOMINGI' IPUIN KONTAKETA
Ixabel Agirresarobek *Maridomingi* ipuina kontatuko die bihar liburutegian (11:30) 4 urtetik aurrerako umeei.

AKORDEOI ORKESTRAREN EMANALDIA
Aretxabaletako akordeoi orkestrak kontzertua eskainiko du bihar Arkupen (20:00). Sarrera debalde da.

Hirigintzaren gaineko azterketa egingo du Berdintasun Zerbitzuak herritarrekin

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Berdintasun Zerbitzua, Emakunderen laguntzarekin eta Udaleko beste arlo batzuekin batera, hirigintzaren diagnosia egiten dabil genero ikuspegia kontuan hartuta. Helburua da, batetik, herritar guztiek leku publikoetan parte hartu eta goza dezaten berdintasun baldintzak bermatzea; eta bestetik, erabakiak hartzeko garaian dauden aldeak murriztea. Bost alderdi aztertuko dituzte diagnosian: irisgarritasuna; mugikortasuna; hornidura eta zerbitzuak; segurtasuna; eta emakumeen gaineko adierazpen sinbolikoa.

Galdetegia betetzeko

Hala, astelehenean hasita galdetegi batzuk betetzeko aukera izango dute herritarrek, eta bertan, bost alderdien gaineko galderak erantzungo dituzte. Galdetegiak honako lekuetan erantzun ahal izango dira: osasun etxean, udaletxean, Arkupe kultura etxean, ludotekan, gaztelekuan eta Zainduz gimnasioan.

Bestalde, martitzenean, hilak 20, batzarra egingo dute Arkupen (18:00) horren guztiaren gainean jarduteko. Iritzia eman eta ekarpenak egin gura dituztenak gonbidatuta daudela jakinarazi dute antolatzaileek.

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

90 urteko hamar bazkide omendu zituzten Basotxon, Santa Luzia egunean

Bihar tute eta mus txapelketak jokatuko dituzte erretiratuen elkartean

M.A. | ARETXABALETA

Dantzariek egin zieten agurra 1921ean jaiotako hamar bazkideei martitzenean, eta ondoren opariak jaso zituzten: "Gabon jaiak senideekin batera ospatzeko jatekoak", esan zien elkarteko presidente Xabier Urtzelaik. Basotxoko abestaldeak *Zorionak* abestu zien elkartutako guztien izenean, eta gero, txokolate beroa hartu zuten trikiti doinuak lagun zituztela.

Omendu batzuk urduri agertu ziren, baina guztiak pozik eta eskerrak eman guran antolatzaileei. Sekulako osasuna dutela erakutsi zuten, gainera. Hona hamar omenduak: Francisco Abasolo; Vicenta Izurrategi; Maria Luisa Uribesalgo; Maria Angeles Esteban; Petronila Olmedo; Visitacion Altzola; Laureana Bolinaga; Antonia Josansoro; Fredesvinda Gartzia; eta Jose Zubiria.

1921ean jaiotako Basotxoko bazkideak, omenaldia jaso ostean. | M.A.

Mus eta tute txapelketak

Bihar, ostera, tute (11:30) eta mus (15:30) txapelketak jokatuko dituzte Basotxon; sari banaketa ekitaldia 18:00etan izango da. Eta abenduaren 21ean, eguaztena, opariz betetako 40 otzara zozketatuko dituzte bazkideen artean, eta gero, merienda egin. Bestalde, hilaren 23an GSR zaharren egoitzara joango da Basotxoko abestaldea emanaldia egitera.

BENGOA
URDAITEGIA
Bertako okelak eta odolosteak
Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

Mobiliario
ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

M5
Mitarte 5 | ARETXABALETA
www.m5denda.com
GABONETARAKO ESKAINTZA
AZAROAK 28 TIK AURRERA
%25eko DESKONTUA
Gizonezkoen
Bruck soft shel txaketa eta latton softshel frakak % 25 eko deskontua.
Emakumezkoen
Baclay soft shel txaketa eta Azumac soft shel frakak % 25 eko deskontua.
Gure marka batzuk
ARCTERYX TERNUA ASTORE BEAL Black Diamond diamir GRIFONE LA SPORTIVA PETZL SALOMON MERRELL KEEN FALKE Marmot ROCK PILLARS

Loramendi elkartearen sorrera ospakizuna. | LORAMENDI

Lanean segitzeko gogotsu bete ditu 25 urte Loramendik

Gaur kontzertua eskainiko du Anarik; bihar arratsaldean ekitaldi nagusia egingo dute plazan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Loramendi elkarteak 25 urte bete ditu, eta 25 urte badelako zerbait, ospakizun ekitaldiak egingo dituzte gaur eta bihar artean. Jai giroan eta aurrera begira lanean segitzeko gogotsu daudela erakutsiz ospatuko dute urteurrena, eta herritarrak ekitaldi horiekin bat egitera gonbidatu dituzte.

Joakin Arana Loramendi kultura elkartea, baina, ez zen hutsetik sortu; ordurako ereinda zeuden bi hazik bat eginda emandako kimua izan zen: Beinke kultura elkartea eta Loramendi ikastola. Biek ala biek zuten helburu euskararen erabilera sustatzeko lan egitea Aretxabaletan, eta hainbat bileraren ostean erabaki zuten kultura elkarte berria sortzea. Bost lantalde osatu zituzten: Tril emakume taldea; Berri Zahar euskaldun berrien taldea; kultura taldea; sentsibilizazio taldea; eta umeen taldea.

Loramendi kultura elkartearen sorrera Beinke-Loramendi dantzarekin irudikatu zuten, eta betiko gorde. Jose Ramon Vitoria arrasatearrak konposatutako musikarekin asmatu zuten dantza 1994an Loramendi dantza taldeko kideek, eta bi elkarteen bateratzea du ardatz. Bihar gogoratuko dute dantza hori hainbat herritarrek.

Lan ildo berriak

Ordutik hona aldaketa asko izan dira gurean –ekonomikoak, politikoak, sozialak…– eta Loramendik erakutsi du badakiela aldaketa horietara guztietara moldatzen. Hala, iaz, hausnarketa saio batzuen ondoren, lan ildo berriak ezarri zituzten, betiere argi izanik helburua eta lan eremua euskara direla. Eta proiektu berriak lantzeko hiru lantalde sortu dituzte: toponimia taldea; sustapen taldea; eta kultura taldea. Sortu bakarrik ez, lanean ere gogor dabiltza azken hilabeteotan, ekimen berriak eskainita herritarrei.

EGITARAUA

ABENDUAK 16

22:30 Anariren kontzertua, udaletxe zaharreko atartean.

ABENDUAK 17

11:30 Umeendako ekintzak, plazan.

13:00 Bertso poteoa.

18:30 Ekitaldi nagusia: bertso eskolak; Beinke-Loramendi dantza; trikitilariak; txistulariak; perkusioa; eta argazki erraldoia.

21:00 Afaria, Taberna Berri jatetxean.

Hazkuntza taldeen gaineko berbaldia gaur eta astelehenean

Haurren hazkuntzan laguntzeko taldeak jarri gura dituzte abian hainbat gurasok Aretxabaletan. Bi talde egin gurako lituzkete –goizez eta arratsaldez–, eta hilero elkartzeko asmoa dute, bi orduz.

Hazkuntza taldeen gaineko argibideak emateko, Zornotzako amatasunari laguntzeko zentroko arduradun Ana Bacigalupe etorriko da egunotan, eta bi berbaldi egin Arkupeko bigarren solairuko aretoan: gaur (18:30) eta astelehenean (10:30). Herrian sortuko diren taldeak egonkorrak izango dira eta Bacigalupek gidatuko ditu.

Gaztaina saltzailea izan zen atzo eta beste bi eguenetan etorriko da

Aretxarte merkatarien elkartearen eskutik gaztaina saltzailea etorri da aurten ere gurera. Mitarte kalean jarri du gaztainak erretzeko tren txikia eta atzo arratsaldean banatu zituen lehenengoz. Beste bi eguenetan ere etorriko da, 22an eta 29an. Eta egun horietan Aretxarteko komertzioetan erosketak egiten dituztenek poltsa bat gaztaina jasoko dute opari.

Bestalde, 1.000 euroko balioa duen Gabonetako otzararen txartelak banatzen dabiltza egunotan Aretxarteko kideak, eta hilaren 29an zozketatuko dute.

ATXABALTA LEHIAKETA

Hartu parte eta irabazi hainbat sari

1. Zertarako erabiltzen zen garai baten Atxabaltako Santutxuko ermita?

2. Zein ez da sinonimoa?
a) zaltegixa b) lastategixa c) ittuia d) kortia

Erantzunak eta zure datuak (moztu azpialdea) Loramendi Elkartera ekarri (16:00-20:00) edo bidali hona: Aretxabaletako 96 posta-kutxa edo *lehiaketatxabalta@gmail.com*.

1:_____ 2:_____
Izen-abizenak:_____ Tel.: _____
Azken eguna: abenduaren 23a.

Abenduaren 2ko galderen erantzunak:
1: b) Kalegoixena, Erdikokalia eta Kalebarrena
2: "Dakienak badaki, **ez dakienak baleki"**

Abenduaren 15ean, 22an eta 29an
Mitarte kalean, GAZTAINA ERREAK salgai !

Egun horietan, Aretxarte elkarteko edozein dendatan erosketa egiteagatik
POLTSA BAT GAZTAINA DOAN.

Abenduaren 29an Durana kalean,
OTARREA ZOZKETATUKO DUGU!

ANTOLATZAILEA
aretxarte
MERKATARIEN ELKARTEA

Laguntzailea
Aretxabaletako Udala

ESKERRIK ASKO
urte hauetan eman diguzuen konfiantzagatik!

JAI ZORIONTSUAK!

Olazar elkartearen taberna ustiatzeko lehiaketa zabaldu du Udalak

Lehiaketa hilaren 3an argitaratu zuen Udalak eta gaur da proposamenak jasotzeko azken eguna

ASIER ALKORTA | ESKORIATZA

Udalak Olazar erretiratuen tabernaren ustiapena lehiaketara atera du eta proposamenak jasotzeko azken eguna gaur da. Proposamenak egiteko epea amaitzean, Udalak esleipena egingo du eta taberna bi urtean nork eramango duen erabakiko du.

Azaroan Olazar erretiratuen tabernaren aldi baterako esleipena egin zuen Udalak, baina hasiera-hasieratik esan zuen urtarrilean bi urterako esleipena egingo zuela.

Esandakoari jarraituz, orain, urte berria heltzeko gero eta gutxiago falta denean, Udalak lehiaketara atera du tabernaren ustiapena.

Kontratuaren iraupena

Bada, Udalak esleipena egiten duenean, kontratuak bi urteko iraupena izango du. "Bi urte pasatu eta gero, beste bi urtez luzatu ahal izango da kontratua, betiere alde biek idatziz eta berariaz adierazten badute luzapena". Adierazpen hori kontratuaren amaiera eguna edo lehen luzapenaren amaiera eguna baino hiru hilabete lehenago egin beharko dela iragarri du Udalak.

Dena dela, kontratualdiak eta luzapenak kontuan hartuta, kontratua, gehienez ere, hogei urtera arte luzatu ahal izango dela esan du Udalak.

Esleipendunaren baldintzak

Proposamena egiterakoan, 60 euroko fidantza jarri beharko du proposamena egiten duen norbanako bakoitzak. "Hori gainerako lehiaketetan moduan egiten da. Proposamen bakoitzeko 60 euro jasotzen dira, berme gisa. Gero, esleipena egiten denean, aukeratua izan ez denari bueltatu egiten diote dirua. Lehiaketari seriotasun kutsua emateko egiten da".

Azaroan aldi baterako esleipena egin zuen Udalak. | ASIER ALKORTA

Tabernaren ardura hartzen duenak 600 euro eman beharko dizkio Udalari, berme gisa. Horrez gain, taberna ustiatzeagatik Udalari ez dio ezer gehiago ordaindu beharko. "Tabernak pentsiodunen araberako salneurri merkea du salgai dauden artikuluetan, eta, ondorioz, Udalari ez dio diru gehiagorik eman beharko".

Hori bai, beheko solairuko komunen zaintza eta garbiketa ere tabernako arduradunen kargu egongo dela jakin eragin du Udalak. "Baldintzak horiek dira".

Proposamenak aztertu eta guztien gainetik bat gailentzeko orduan, Udaleko Gizarte Ongizate Sailak Klausula Administratibo Partikularren Pleguan ezarritakoaren arabera egingo du. "Horren arabera baloratuko dira proposamenak".

Proposamenak egiteko, eskaintzak Udal Erregistroan aurkeztu behar dira, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 14:00etara.

Horren harira, epea gaur amaitzen da, udaletxea bihar itxita dago-eta.

Santo Tomas eguna ospatuko du Olazar elkarteak eguaztenean

A. ALKORTA | ESKORIATZA

Eguaztenean Santo Tomas eguna ospatuko du Olazar erretiratuen elkarteak, 18:30ean. Txistorra jateko aukera eskaintzeaz gain, opariak ere banatuko dituztela iragarri du Txomin Azpitarte elkarteko lehendakariak.

Hitzordua "urterokoa eta jendetsua" izaten dela gaineratu du Azpitartek. "Normalean, 160 lagun inguru elkartzen gara elkarteko egoitzan, eta ondo pasatzen dugu".

Zozketa eta opariak

Ospakizuna Santo Tomas egunaren aitzakiarekin egiten badute ere, txistorra jatea ez da izango egunean bertan egingo den gauza bakarra. "Egun hori aprobetxatzen dugu opariak ere emateko".

Izan ere, elkarteak hamasei edo hamazazpi opari prestatzen ditu egun horretarako. "Gero, bazkide txarteleko zenbakiarekin zozketa egiten dugu".

Kasu batzuetan zozketan tokatutako oparia momentuan bertan hartzen dutela dio Azpitartek: "Beste batzuk, aldiz, ez dira bertan egongo, baina berdin dio, zozketan tokatzen bazaie, saskia gorde egiten diegu".

Dagoeneko 80 lagun inguruk eman dute izena, eta eguaztenean askoz gehiago batuko direla esan dute elkarteko kideek.

Gabonetako marrazkiak egiteko aukera izango dute bihar, zapatua, 3 eta 12 urte arteko umeek

Bihar, 17:00etan, Gabonetako marrazkiak egiteko aukera izango dute 3 eta 12 urte bitarteko umeek. Marrazkiak egiteaz gain, 18:00etan *Galtzagorriei to, Inaxito* antzezlana ikusteko aukera ere izango dute. Bi ekintzak frontoian egingo dira. Arratsaldeko ekintzekak amaitzeko, 19:00etan txokolate-jana egingo dute, plazan. Ekintzetan parte hartzeko, umeek hara joan baino ez dute. Marrazki, antzezlan eta txokolate-janarekin, ondo baino hobeto pasatzeko aukera izango dute guztiek.

ASIER ALKORTA

Zinemaldi soziala abian da

Astelehen iluntzean zinemaldi soziala hasi zen Eskoriatzan. Hain zuzen ere, Mugarik Gabe eta Elkarhezitzen gobernuz kanpoko erakundeek antolatuta, hogei herritar inguru batu ziren lehenengo proiekzioan. *Propiedad privada* eta *Hechos son amores* film laburrak proiektatu eta gero, eztabaidarako tartea izan zuten herritarrek .

LENIZ ESKORIATZA
SUZUKI
Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa,
injektoreen konponketa eta I.A.T. aurreko azterketa
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 40 10 • Faxa: 943 71 31 45

27 urteren ostean, jarduera etengo du Mari Paz Ugalde argazkilariak

Urte bukaeran, hilaren 30ean zabalduko du denda azkeneko aldiz

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Duela 27 urte Arrasaten hasi zen Mari Paz Ugalde argazkilaritza arloan lanean, eta, zeregin horretan urte asko egin ostean, jarduera etetea erabaki du. Argazki-denda itxi eta "bizitza berriari" ekingo dio; abenduaren 30a izango da denda irekita izango duen azken eguna. Urtarrilean belardenda jarriko dute orain argazki-denda dagoen plazako lokal horretan.

1985eko martxoan jarri zuten argazki estudioa Kalebarren 1eko etxebizitza baten Mari Paz Ugaldek eta Juan Kruz Lizarraldek. Han urte eta erdi egin ostean denda zabaldu zuten Kalebarren 1eko etxabeetan. Argazki dendaz gain, bitxi eta erloju-denda ere bazen hura. Azken urteotan ezagutu dugun plazako denda 1989ko abenduaren 18an zabaldu zuten; oraingo argazki, erloju eta bitxi-dendak 22 urte egingo ditu.

Urte hauetan guztietan antzuolarron argazkilari izan dira Ugalde eta Lizarralde eta asko izan dira dendako estudiotik pasa diren herritarrak. Herriko festa guztietan ere hor ikusi izan ditugu argazkiak egiten; horren adibide dira eskuman ikus ditzakegun aspaldiko argazkiok.

Mari Paz Ugalde, dendan. | USOA AGIRRE

Ezkontzak, berezienak

Mari Paz Ugaldek kontatu digunez, harreman berezia izan du beti bezeroekin eta bereizituko luke argazkiak ateratzea estudioan edo ezkontzetan: "Ezkontzekin oso harreman berezia gelditzen da. Lan zailagoa da, arduratsuagoa eta asko jokatzen duzu. Dendan ere oso gustura egon naiz beti; gustatu egiten zait jendearekin harremanetan egotea". Horregatik, eskerrak eman nahi izan dizkie Ugaldek urte hauetako guztietako bezeroei: "Dendak asko eman dit; asko aberastu nauen harremana izan dut jendearekin dendari esker".

Digitalerako pausoa

Duela zazpi bat urte eman zuten argazkilaritza digitalerako pausoa, eta, hasieran gogorik ez bazuen ere, "gustua hartu" diola aitortu digu Ugaldek: "Analogikoarekin aurretik egin behar zen lan guztia, baina digitalarekin lan handia egin dezakezu ondoren. Txarrena da duen lan hori guztia kobratzea ezinezkoa dela". Digitalak badu beste alde txar bat ere: "Analogikoarekin errebelatzen zenarekin konparatuta, gaur egun horren %10 edo %20 errebelatzen da". Argazkigintzan negozioa aldatu eta errebelazio gutxiago egiten zirenez, denda itxi edo beste zerbait jartzeko asmoa azaldu zuten duela hiru urte. Hala, oinetakoak saltzen hasi zen Ugalde: "Ondo saltzen ziren oinetakoak, baina asko erosi behar izaten zen eta herri txiki baten zaila izan da. Erre egin naiz", esan digu. Horrek eraman du, batez ere, jarduera eten eta denda ixtera.

Herriko merkataritza

Azken urtean herriko merkataritza giroa jaitsi egin dela azaldu digu Ugaldek eta herriko negozioak sustatzeko proposamena ere egin digu: "Antzuolan dendak zabalik mantentzea eta herrian erostea oso garrantzitsua da. Denda guztiak ixten ari bagara, zer da Antzuola merkataririk gabe? Ezer ez".

Denda itxita burua lasaitu nahi duela azaldu digu Ugaldek eta gustura dagoela lokalean jarraipena izango delako.

Urteotan egindako argazki batzuk. | MARI PAZ UGALDE

'Baginaren bakarrizketak' antzezlana bihar, zapatua

U.A. | ANTZUOLA

Baginaren bakarrizketak antzezlana ikusteko aukera izango da bihar, zapatua, Torresoroan, 22:00etan. Aitziber Garmendiak eta Ainhoa Garaik parte hartzen dute eta hainbat emakumeren sexualitateari buruzko testigantzak taularatuko dituzte.

Emakumeek beren sexualitatea lotsa edo erruduntasun sentimenduz bizi izan dute, eta hainbatek hala bizi dute oraindik ere. Joera hori hausteko helburuarekin mintzatuko dira bi aktoreak. Txalo Produkzioen eskutik eta Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean datoz.

Eve Enslerrek idatzia

Eve Ensler feministaren ekintzaile estatubatuarrak 1996an idatzi zuen *Baginaren bakarrizketak* (*The Vagina Monologues*). Lagun arteko hizketaldietatik sortu zitzaion ideia, eta askotariko egoera, adin eta jatorritako 200 emakumetik gora elkarrizketatu zituen. Batzuen testigantzak bakarrizketa bihurtu, eta dozena batek osatzen dute obra. Sexua, maitasuna, hilekoa, masturbazioa, erditzea, bortxaketa eta ablazioa dituzte hizpide. Inma Infiestak euskaratu du.

Garai eta Garmendia. | TXALO PRODUKZ.

OHARRAK

FUTBOLA

Erregional preferente mailako futbol taldeak bihar, zapatua, jokatuko du Anaitasunaren kontra Azkoitian, 17:45ean. Antzuolak galdu egin zuen azken partidua Ordiziaren kontra (0-1) eta seigarren dago sailkapenean; Anaitasuna, berriz, hirugarren dago. Kadete mailakoek Eztalan jokatuko dute bihar, zapatua, 11:45ean, Urkiren kontra. Infantilek, berriz, Oriokoren kontra jokatuko dute bihar, zapatua, 10:00etan, Eztalan.

KONTZERTUA

Musika Eskolaren Gabonetako kontzertua izango da hilaren 19an, astelehena, 19:00etan, Torresoroan.

SANTO TOMAS

Eskolako umeek 14:30ean hasita eskolako patioan egingo dute Santo Tomas egunaren ospakizuna, eskolaren eta Pausokaren eskutik. Erretiratuek, berriz, txistorra-jana eta kina egingo dituzte arratsaldean, erretiratuen elkartean bertan.

Xinkonan egindako eskulanen erakusketa aste bukaeran

55 ume inguru aritu dira eskulanak egiten Xinkona dendan eta aste bukaeran erakusgai jarriko dituzte Olaranen. Zapatuan eta domekan 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Amantalak, poltsak, orri-puntuak, diru-zorroak, brotxeak, ileko kakoak... erakutsiko dituzte.

Martuteneko presoendako bilketa egiten ari dira

Antzuolako espetxe-pastorala eguneroko mezaren aurretik eta ondoren bilketa egiten ari da Martuteneko kartzelako presoendako. Honako hauek jasoko dituzte, besteak beste: barruko arropa berria, galtzerdiak, telefonorako txartelak, tabakoa, hortzetako pasta eta gutun-azalak.

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Gillen Agirre, Jon Errasti eta Alex Mendikute, AOBTko kideak, eguaztenean, erakusketa antolatzen. | JOKIN BEREZIARTUA

AOBTk 36ko gerra ikertu gura du, auzolana oinarri

Erakusketa irekiko dute gaur Sastiñan, domekara arte; aurkezpen ekitaldi berezia egingo dute, 19:30ean

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

"Erakusketa oinarri edo aitzakia bat da Espainiako gerrak Aramaion izan zituen ondorioak ikertzeko lantaldea sortu dadin". Alex Mendikute Aramaioko Ondarea Berreskuratzeko Taldeko kidearen hitzak dira, gaur bertan Sastiñan irekiko den erakusketaren gainean. Uztailean Murugainen egindako indusketen harira eta Juan Ramon Garai Intxorta 1937 kultur elkarteko kideak emandako informazioari esker irekiko dute erakusketa.

Baina AOBTren lehen helburua da 36ko gerrak Aramaion eragindakoa ikertzeko lantaldea sortzea: "Auzolanean egingo dugu eta taldeak berak erabaki dezala zer ikertu eta nola", dio Mendikutek. Hala ere, AOBTko kideek uste dute egin beharreko lehen lana dela herriko adinekoengana jo eta "berandu baino lehen" Aramaioko kasuen gaineko informazioa batzea. Hau da, testigantzak ahalik eta lasterren jasotzea "oso garrantzitsua" dela uste dute. Lubakiak lokalizatzen jarraitu beharra ere badago eta baita beste hainbat lan ere.

ESANAK

"Lantaldeak erabaki dezala zer eta nola ikertu"

ALEX MENDIKUTE | AOBT-KO KIDEA

'Lurgorri' erail zutela 74 urte

Erakusteko elementu askorik ez dute: gerra garaiko zenbait argazki, Aramaioko frontearen bilakaera erakusten duen zenbait plano, orduko epaiak jasotzen dituzten zenbait dokumentu eta banderaren bat edo beste.

Erakusketa Gabonak baino lehen ireki gura zuten eta horregatik aste bukaera honetan bakarrik egongo da zabalik: egubakoitzean (19:30-21:00), zapatuan (19:00-20:30) eta domekan (13:00 -14:30). Irekiera eguna borobila izango da, gainera. Izan ere, gaur 74 urte beteko dira Jose Mari Azkarraga *Lurgorri* erail zutela. Hondarribikoa izan arren lotura handia zuen Aramaiorekin. Idazle ona eta iraultzailea, Aramaioko EAJn sartu eta Amaiur batailoiko kidea izan zen.

Bertsoak aurkezpenean

Eguna bera berezia izanik, erakusketa irekitzeko aurkezpen ekitaldia ere berezia izango da. Ekitaldia 19:30ean hasiko da: Manex Agirre eta Jokin Labayen bertsolariek agur bertso bat abestuko dute eta gero Eneko Barberena literaturagile arrasatearrak testu bat irakurriko du. Amaitzeko, Espainiako Gerraren gainean Joseba Tapia musikari ospetsuak idatzitako bertso batzuk abestuko dituzte Labayen eta Agirrek.

Bizente Goikoetxearen kontzertua Arrasateko San Andres auzoan

Bizente Goikoetxea abesbatzak kontzertua emango du bihar, zapatua, Arrasaten. Gabonak badatozela ospatzeko kontzertua emango dute San Andres auzoko elizan, 19:00etako mezaren ostean.

Antton Errarte abesbatzako zuzendariak aurreratu duenez, euskal kantak eta Gabon kantak tartekatuko dituzte. Horra abestuko dituzten kantuetako batzuk: *Gurea da* (Sabin Salaberri), *Gabiltzan kalez kale* (Pablo Sorozabal), *Haur eder baten bila*, *Gloria In Excelsis Deo* eta amaitzeko, *Haurtxo maite*. Arrasate Musikaleko txistulari talde baten laguntza izango dute.

Presoen aldeko elkarretaratzea gaur, Udalak deituta (18:30)

Azken osoko bilkuran euskal presoen aldeko mozioa onartu ostean eta euskal presoen eskubideak aldarrikatzeko, elkarretaratzea deitu du gaur udal gobernuak Herriko Plazan, 18:30ean.

Mozioan onartutakoaren arabera, gainera, urtarrilaren 7an Bilbon egingo den herri mobilizazio orokorrera joateko deia ere egingo diete herritarrei: "Herritarrei deialdi zabal eta anitza luzatu nahi diegu ezberdintasun politiko guztien gainetik giza eskubideen alde urratsa eman eta herri honek inoiz ezagutu duen mobilizaziorik handiena denon artean osatu dezagun".

Osasun zerbitzua eskasa izan delako, zenbait kexa

Bajak direla-eta medikua ez da egunero egon; astelehenetik aurrera konponduko da arazoa

J.B. | ARRASATE

Osakidetzaren zerbitzuak zenbait gabezia izan ditu azken egunotan, Udalak jakinarazi duenez. Joan den astean sortu zen arazoa, orain arte egunero Aramaioko anbulatoriora igotzen zen medikuak baja hartu zuenean. Haren ordezkoak ere baja hartu zuen ia une berean eta horregatik zenbait egunetan ez da mediku zerbitzurik egon herrian.

Hala adierazi digu Edurne Uribarren-Iturrietak, Ongizate zinegotziak: "Joan den astean kanpoan egon nintzen eta astelehenean enteratu nintzen gertatzen zenaz, herritarrek kalean esanda. Zenbait egunetan ez da medikurik egon eta autorik ez dutenendako oztopo handia da Arrasatera joan beharra". Ohiko mediku zerbitzua izan da hutsuneak izan dituena. Eguneko zentroak, esaterako, normaltasunez funtzionatu du.

Kexa formalik ez, "oraingoz"

Udalak Osakidetzan kexa formala jartzeko asmoa erakutsi zuen hasieran baina oraingoz ez dute halakorik egingo. Uribarren-Iturrieta atzo egon zen Osakidetzako arduradunekin eta adierazi zioten astelehenetik aurrera arazoa konponduko dela: "Postu asko betetzeko jende gutxi zutela esan zidaten, baina astelehenetik aurrera egunero egongo zela medikua. Espero dugu hala izatea eta egoera normaltasunera bueltatzea. Oraingoz ez dugu kexarik jarriko, baina zerbitzuaren jarraipena egingo dugu".

Aramaioko Papargorri abesbatzaren kontzertu bat. | BLANCA MENDIALDUA

Agenda lepo beteta dauka Papargorri abesbatzak

Domekako kontzertua bertan behera geratu da, egunotan beste lau kontzertu emango dituztelako

J.B. | ARAMAIO

Gabonak direla-eta agenda beteta dute Papargorri eskolania abesbatzako kideek. Hain dute beteta, domekan eman behar zuten kontzertua bertan behera utzi behar izan dute, datozen egunotako hitzorduak direla-eta. Aurrez hitz emandako beste lau kontzertu edo kantaldi dituzte eta domekako kontzertua prestatzeko denborarik ez eta haurrak nahasteko arriskua dagoelako ez dute kontzertua emango.

Hiru talde eta 34 abeslari

Papargorri abesbatzako kantari kopurua urtero aldatuz joaten da. Egun, 34 aramaioar daude 7 urtetik 20 urte bitartekoak eta kontzertu batzuetara, batez ere nagusienen emanaldietara, Arrasateko beste bost neska etortzen dira. Hala, hiru talde daude: 7 urtetik 10 urtera artekoak, 10 urtetik 14 urtera artekoak eta 14 urtetik gorakoak. Hiru talde horien zuzendariak dira Arantza Uriarte eta Eli Izagirre. Abenduaren 24ko Olentzeroren jaialdian abesbatzako kide guztiek hartuko dute parte. Nagusienek, berriz, beste bi kontzertu emango dituzte: hilaren 23an Gasteizko San Pedro elizan eta hilaren 31n Arrasateko parrokian.

Baina Papargorriren jarduna ez da Gabonetara mugatzen. Lehen jaunartzeetan, Erretiratuen Egunean, San Martin jaietan –kontzertu berezia egiten dute, ikasturte berriko nobedadeekin–, eskolako jaialdietan, Korrikaren jaian edota beste hainbat egun berezitan abesten dute. Aramaiotik kanpo ere hainbat kontzertu ematen dituzte; Gasteizen eta Arrasaten batez ere.

ELGETA

36ko gerrako kontuek interesa pizten dute

Durangoko Azokan milaka lagunek jaso dute Elgetako egitasmoaren berri

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Postu propioa izan du aurten Intxorta 1937 elkarteak Durangoko Azokan. Eta pozik itzuli dira: salduenak *Gerrako ipuinak* liburua eta Elgetako gudua jasotzen duen *Gerra Zibila Euskal Herrian* DVDa izan dira.

Euskal Herria aldizkariaren postuan ere presentzia izan du Intxortako Ibilbide Tematikoak. Bi postuotan, milaka eskuorri eta Elgetako bisita gidatuen datak jasotzen dituzten 9.000 egutegi banatu dituzte.

Bada, Elgetan nabaritu egin da azokaren bultzada: azoka egunetan mugimendu handiagoa egon da Espaloiko Interpretazio Gunean eta jende asko ibili da Asentzioko lubakietan.

JUAN RAMON GARAI
INTXORTA 1937 ELKARTEA

"Bi helbururekin joan gara Durangora; argitaletxe moduan gure burua ezagutzera ematera eta Elgetako museoa jendeari aurkeztera. Pozik itzuli gara; jendea hurbildu zaigu eta salmentak ondo joan dira".

OXEL EROSTARBE
ELGETAKO ALKATEA

"Denerako jendea hurbildu da azokako postura; Intxortako frontean ibilitakoen senitartekoak, *Gerrako Ipuinak* liburua eskuratu nahi izan duten gazteak... Gerrak gure herrian suposatu zuena ezagutzera ematen ari gara".

Elgeta turismo azoketan

Espainiako gerraren ingurukoek interesa pizten dute. Argi dute hori, bai Oxel Erostarbe alkateak, bai Elgetako Turismo batzordeburu Patxi Basaurik. Ez hori bakarrik, Donostian eta Bilbon berriki egindako turismo azoketan ere harrera ona izan du Elgetako eskaintzak. Hori horrela, bestelako foroetara eramatea aztertzen ari dira orain. "Bisita gidatuak ditugun egunetan –hilean bi– gutxieneko pertsona kopurura iristen gara: 10-25 lagun", adierazi dute udal ordezkariek. "Gure lekutxoa egiten ari gara".

Bisita gidatua domekan

Etzi, hilak 18, izango dugu Intxortako ibilbide tematikora bisita gidatua egiteko beste aukera bat. Iraitz Lazkanok gidatuko du. Izena emateko 943 79 64 63 telefono zenbakira deitu behar da. Prezioa bost euro da; 6-16 urte bitartekoendako, bi euro.

VIII. PILOTA TXAPELKETA

Haur eta helduen partiduak, gaur

Helduen pilota txapelketa finalerdietara heldu da. 19:00etan hasita jokatuko dira lau norgehiagokak. Ostean, afaria egingo dute parte-hartzaile guztiek Intxorta elkartean. Haurrak ere badihardute pilotan. Eskuz eta palaz ari dira. Umeen partiduak 17:30etan hasiko dira.

SAILKAPENA (40 URTETIK GORAKOAK)	J	I	G
1. Alex Arantzabal - Iñaki Izagirre	5	5	0
2. Angel Ibarluzea - Alberto Telleria	5	4	3
3. Pello Larrea - Mikel Elkoro	5	3	2
4. Jose Mari Zubiaurre - Iñaki Ugarteburu	5	2	3
5. Asier Morales - Koldo Goenaga	5	1	4
6. Satur Ramos - Mikel Arkarazo	5	0	5

SAILKAPENA (40 URTETIK BEHERAKOAK)	J	I	G
1. Odei Zenitagoia - Andoni Elortza	9	9	0
2. Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua	9	6	3
3. Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga	9	6	3
4. Oskar Askasibar - Haritz Gallastegi	9	6	3
5. Sergio Bouzas - Koldo Erostarbe	9	5	4
6. Mikel Ormaetxea - Garikoitz Arrazola	9	5	4
7. Ibai Etxaniz - Jon Irazabal	9	4	5
8. Iban Retolaza - Jabier Larrañaga	9	3	6
9. Antxoka Etxabe - Igor Irazabal	9	1	8
10. Iker Irazabal - Diego Cantabrana	9	0	9

FINALERDIAK, BARIKUAN 19:00ETAN

Alex Arantzabal - Iñaki Izagirre / Jose Mari Zubiaurre - Iñaki Ugarteburu
Odei Zenitagoia - Andoni Elortza / Oskar Askasibar - Haritz Gallastegi
Angel Ibarluzea - Alberto Telleria / Pello Larrea - Mikel Elkoro
Iñaki Olaortua - Oskar Sarasua / Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga

OHARRAK

BOLO TXAPELKETA

Bigarren saioa jokatuko da bihar, zapatua, 23:00etan hasita. Aurreko asteko jardunaldian 20 bat bolari elkartu ziren eta irabazlea Beñat Leanizbarrutia izan zen. Bigarren egin zuen Geaxi Ezpeletak.

MIZPIRUALDERA BISITA

Elgetarrak abenduaren 21ean, eguaztena, egingo dute Gabonetako bisita Bergarako Mizpirualde egoitzara. 15:30erako egin dute hitzordua. Boluntarioak, alkatea, Gizarte Ongizateko batzordeburua eta Gizarte langilea joango dira, besteak beste. Uneotan zortzi elgetar daude Bergarako zaharren egoitzan.

Espaloia Eusko Jaurlaritzaren Kultura Bonua 2012 programan

L.Z. | ELGETA

Urtarrilaren 20ra bitartean Kultura Bonua onartuko dute Espaloian. Bonuak salgai daude BBK, Kutxa eta Vital Kutxa kutxazainetan. 25 euro ordaintzen dira eta 40 euroko gastua egiteko aukera ematen dute. Zuzeneko ikuskizunetan edo urteko kuota ordaintzeko onartuko dituzte Espaloian. Hori bai, bonua erosketa bakar baten erabili beharko da.

Antzezlana zapatuan

Bada, Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai antzokian izango dira zapatuan. *Baginaren bakarrizketak* antzezlana egingo dute, 22:30ean hasita. Emakumeen sexualitateaz ariko dira. "Moldeak apurtu eta eztabaida piztea" du helburu Begoña Bilbaok zuzendutako obra horrek.

Abesbatza domekan

Eta biharamunean Donostiako Ganbera Korala izango da Elgetan. Udalak antolatuta *Emakumea historian zehar* izeneko kontzertua eskainiko dute, 19:00etan. Maria Pilar Otxoaren zuzendaritzapean 16 kantu eskainiko dituzte;.emakumeek historian zehar bizi izandako egoerak jasotzen dituen errepertorioa dute.

LEINTZ GATZAGA

'Konkistak 500 urte, deuseztatu ezin izan duten oroimena' berbaldia izango da gaur

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gipuzkoa, Leintz bailara eta Nafarroako erresuma izango dituzte berbagai gaur, egubakoitza, kultura etxean (19:00). Navarrate elkarteak antolatuta eta LN ProLibertate Nabarra eta Nafarroa Bizirik 1512-2012 taldeen laguntzarekin, Patxi Abasolo historia kontuetan aditua etorriko da. *Konkistak 500 urte, deuseztatu ezin izan duten oroimena* leloarekin 1512tik honako kontuak gogoraziko ditu hark.

Memoria berreskuratu

Patxi Abasolo historialaria 1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimeneko kidea da, eta jakinaraziko du 1512ra arte Nafarroako erresumak estatu batek dituen eskubide guztiak izan zituela; eta gogoraraziko du ondoren etorri zirela mendekotasun politikoa, soziala eta ekonomikoa. Gainera, memoria berreskuratzeko ekimenak ezin direla ikerketa zientifikoetan bakarrik geratu aldarrikatu izan du, baizik eta mugimendu sozialen parte-hartzearekin batera egin behar dutela aurrera.

Abasolo historialariak irailean Oñatin egindako historialarien II. kongresuan hartu zuen parte eta azken 500 urteotako kontuak gogoraraztearen garrantziaz jardun zuen.

Gabon zoriontsuak, guztioi!
Amagoia arraindegia
Salbador kalea 5, behea. ELGETA
Gabonetako enkarguak hartzen dira
943 78 81 00 • 669 95 25 63

ARGITU
Psikologia eta osasun etxea
Psikoterapia kognitiboa eta jokabidearena
Haurrak – nerabeak – helduak – indibiduala – bikoteak - familiak
PROGRAMAK ETA TAILERRAK
Tabakoaren mendekotasuna gainditzeko tailerra
Urtarrilak 28 eta 29
Laguntza doluan
Adimen emozionala
Ikasketa ohiturak
Guraso eskola
Beste batzuk...
675 70 68 07
Bidebarrieta 27 B, 9. bulegoa. EIBAR

Debagoieneko **GREMIOAK**



AROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
Bergara
- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA
Aretxabaleta
- Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.
Arrasate
- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK
Eskoriatza
- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
- Kontratak
- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA
Eskoriatza
- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL
Aretxabaleta
- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK
Arrasate
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30
http://merkatua.net/argiplastik

ION LEIHOAK
Arrasate
Debagoiena Industrialdea 11.Pab
Tel.: 943 79 11 35
F: 943 773 120
http://www.ventaion.com

LOREZAINTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA
Aretxabaleta
- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA
Arrasate
- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

ATLETISMOA

Iazko lasterketa hasi berritan, korrikalariak lehenengo metroetan, Maalatik Seber Altubera bidean. | JOXE ELORTZA

Urtea amaitu aurretik hiru hitzordu, lehena Arrasaten

Santamasetako krosa egingo dute domekan; urteko azken egunean San Silbestre Eskoriatzan eta Oñatin

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Urri eta azaroko lasterketak atzean utzita badirudi abenduan kirol jarduerak behera egiten duela, eta ez du zertan. Hil honetan hainbat atletismo proba izango ditugu gurean, horietako bat domekan bertan, hilak 18, Arrasateko Santamas jaien barruan egingo dutelako 34 edizio beteko dituen Koadrilen Arteko lasterketa (Enrique Kabiketa memoriala).

Esan dugu hitzordu gehiago izango direla, abenduaren 31n bai Oñatin eta baita Eskoriatzan San Silbestre lasterketa antolatuko dute-eta (Eskoriatzakoa Lehenengo Milia Eskoriatzarra, Manolo Muñoz Saria izango da). Oñatin, nagusien lasterketa 16:30ean hasiko dute eta Eskoriatzan, 17:00etan. Nagusien lasterketa baino lehenago, baina, gaztetxoendako probak egingo dituzte; Eskoriatzakoek goiza aprobetxatuko dute horretarako, 12:00etan elkartuko dira-eta gazteekin plazan. Oñatin, berriz, nagusien lasterketa baino ordu erdi lehenago egingo dute gazteena, 16:00etan.

Domekan, 6,4 kilometro

Domekan (12:30) Arrasaten egingo duten lasterketak azken urteotako ibilbide bera izango du, Arrasateko erdialdeko kaleetan 6,4 kilometroko ibilbidea prestatu dute. Arrasate Atletiko Taldeko antolatzaileak Erdiko Plazan egongo dira lasterketa baino lehen izenak hartzen, eta banakako sailkapenaz batera koadrila bakoitzeko bost atleta azkarrenen denborak hartuko dituzte kontuan. Lehenago, 11:00etan hasita, gaztetxoen (7 eta 14 urte bitartean) lasterketak egingo dituzte.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

LEHENENGO MAILA
Real Racing-Reala
Domeka. 19:45. El Sardinero.

EMAKUM. BIG. MAILA
Mondra-Marcilla
Zapatua. 16:00. Mojategi.

GAZTEEN EUSKAL LIGA
Hondarribia-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Ondartza.

OHOREZKO ERREGIONALA
Aloña Mendi-Elgoibar
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Anaitasuna-Bergara
Zapatua. 15:30. Txerloia.
Aretxabaleta-Urola
Domeka. 16:30. Ibarra.
Tolosa-Mondra
Domeka. 16:30. Berazubi.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Anaitasuna B-Antzuola
Zapatua. 17:45. San Juan.
Aretxabaleta B-Ilintxa
Zapatua. 16:30. Ibarra.

LEHEN ERREGIONALA
Soraluze B-Mondra B
Zapatua.16:00. Ezozia.
Aretxabaleta C-Urki
Zapatua. 16:30. Ibarra.

GAZTEEN OHOREZKO MAILA
Mondra-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Mojategi.
Ordizia-Bergara
Zapatua. 15:30. Altamirai.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Eskoriatza-Tolosala
Domeka. 11:00. Manuel Muñoz.

BIGARREN MAILA
Denak Taberna-Aretxabaleta
Gaur. 20:30. Ibarra.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Usurbil-Soraluce BKE
Zapatua. 18:00. Usurbil.
La Bacaladera-Ford Mugarri
Domeka. 12:00. Hondarribia.

EKUMEZKOAK PREF.
Aloña Mendi-Egia Bera Bera
Zapatua. 16:30. Zubikoa.

LEHEN LURRALDEKO SENI.
Tolosa-Izarraitz Aloña
Zapatua. 18:15. Egia.

SASKIBALOIA

EBA
Natra Oñati-EHU Araba
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

LEHEN NAZIONAL MAILA
MU- Goierri Verkol
Domeka.19:00. Iturripe.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA
MU-Easo A
Domeka.17:00. Iturripe.

SENIOR EMAKUMEZKOAK
Eskoriatza-BKL
Zapatua. 19:00. Manuel Muñoz.

ERRUGBIA

KADETEAK
Arrasate/Durango-ATT. SS.
Zapatua. 12:30. Durango.

GAZTEAK
Arrasate/Durango-Gaztedi
Zapatua. 13:30. Durango.

ZIKLO-KROSA

OÑATIKO LASTERKETA
Domekan, 10:00etan.

ATLETISMOA

SANTAMASETAKO KOADRILEN LASTERKETA
Domekan, 12:30ean, Arrasaten.

TENISA

SANTAMASETAKO TORNEOA
Domekan, 10:30ean hasita finalak, Musakolan.

JOSETXO ARANTZABAL

SANTAMASETAKO TENIS TORNEOKO FINALA DOMEKAN
Kepa Aranbarri eta Sebas Sierra sailkatu dira AKE taldeak antolatu duen torneoko finalera (Domeka, 10:30, Musakola).

MENDI LASTERKETA

Urte bikaina Leonen irabaziz errematatu du Kortazarrek

X.U. | ARRASATE

Urteko azkeneko lasterketa poltsikoratu zuen Oihana Kortazarrek joan den astean, Leonen egin zuten La Peña del Tren Kros Alpino lasterketaren hirugarren edizioa irabazi zuen-eta.

Eta, gauzak diren moduan, erakustaldia eginda irabazi zuen, aurtengo lasterketa gehienetan egin duen moduan. Elgetarrak Espainiako Kopako lasterketa guztietan topo egin duen selekzio galiziarreko beste korrikalari batekin egin zuen proba osoa. Oraingoan, baina, zailtasun fisiko bat gainditu behar izan zuen Kortazarrek, amigdalitisarekin zen-eta. Bada, entrenamendu gisa hartu zuen proba, urtea borobiltzeko entrenamendua.

Roberto Zugasti, iaz, etxeko lasterketan. | JOSETXO ARANTZABAL

ZIKLO-KROSA

Domekan egingo dute Oñatin lasterketa, zirkuitu berriarekin eta kategoria gehiagorekin

X.U. | OÑATI

Iazko arrakasta ikusita, aurten ere Aloña Mendiko ziklismo ordezkariak animatu egin dira ziklo-kros lasterketa antolatzera. Aurten, gainera, bazen beste motibo bat: herriko txirrindulariz osatutako taldea –Arrikrutz Aloña Mendi– Euskal Herriko lasterketetan parte hartzen dabilela, hain zuzen. Iazko zirkuituarekin alderatuta hainbat aldaketa egin dituzte, nahiz eta paraje berean izango den, San Martinen. Eta aurten, gainera, kadete (10:00) gazte (11:00) eta beteranoekin batera (13:15) senior mailakoak eta 23 urtez azpikoak (12:15) ere lehiatuko dira. Oñatik hamar ordezkari izango ditu, baina ibarreko gainerako herrietako ziklista gehiago izango dira.

SASKIBALOIA

Saski eskolako proiektua eta babeslea aurkeztu ditu Eskoriatzak

X.U. | ESKORIATZA

Eguaztenean aurkeztu zuen Eskoriatza Saskibaloi Taldeak maila txikietatik saskibaloia sustatzeko duen proiektua: saski eskola. Egitasmo hori, batez ere, Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako 8 eta 11 urte arteko neskendako da. Izan ere, hori da Eskoriatzako klubaren berezitasun nagusia, 15 urte daramatzala emakumezkoen saskibaloiarekin lanean. Aurkezpenean berba egin zuten Javi Corbal presidenteak, saskibaloi saileko arduradun Fernando Rasok, saski eskolaren koordinatzaile Jota Etxeberriak eta klubeko bozeramaile Jaxone Zabalak.

Mondragon Linguaren babesa

Saski eskolak bultzatzeko babeslea izango du Eskoriatzak, Mondragon Linguaren izena eramango dute-eta elastikoek. Saski eskolaren helburuen gainean egin zuten berba, eta baita entrenamenduak noiz izango diren ere: astelehenetan Arrasaten (17:45-18:45) eta eguaztenetan beste saio bat egingo dute Eskoriatzan (17:00-18:00). Izena emateko eta harremanetarako, webgunean: *www.eskoriatzake.com*

GAREN HORTAN

Aretxabaletako Udala
laguntzailea

aisia euskara loramendi kultura

25 urte dira Loramendi euskara elkarteak aurten bete dituenak.

25 udaberri, Beinke-Loramendi loratu zenetik, urtez urte Aretxabaletako lurretan euskararen hitzak eta kulturak mila koloretako lore, mila koloretako jende elkartu dituena.

25 uda, eguzki eta itzal, euskararen uzta oparoa ontzen, elkarlanean, auzolanean.

25 udazken, xirimiriaren lana egiten.

25 negu, euskararen eremu elurtuan aztarna utzi dutenak, gailurrerako bidean gaituenak.

Guzti horregatik, eta bide luze honetan lagun izan garen danok badugulako zer ospatu...

garen hortan

ABENDUAK 16

- 22:30ean ANARI Udaletxe zaharren.

ABENDUAK 17

- 11:30ean HAURRENTZAKO EKINTZAK Herriko plazan.
- 13:00etan BERTSO POTEUA Udaletxe zahar parien.
- 18:30ean EKITALDI NAGUSIA Herriko plazan.
  - Gazte eta helduen bertso eskolak
  - Beinke/Loramendi dantza
  - Trikitilariak
  - Txistulariak
  - Perkusioa
  - etab.
  - Argazki erraldoia
- 21:00etan AFARIA Taberna Berrin.

loramendi 25. urteaurrena

IRAKASKINTZA GURASO ELKARTEA
LORAMENDI IKASTOLA
ARETXABALETA (Gipuzkoa)

loramendi euskera elkartea

aisia euskara loramendi kultura

KULTURA

Hostoekin jolastu eta sentitu

- 'Hostoak' ikuskizuna eskainiko dute bihar, zapatua, Amaia Udal Antzokian, 20:00etan
- Mireia Gabilondo bergararra da ikuskizunaren zuzendaria eta eszena zuzendaria

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Musika, dantza, ahotsak eta marrazkia batzen dituen ikuskizuna eskainiko dute bihar, zapatua, Amaia antzokian. Musika Oreka TX taldeak jarriko du, dantza Kukai dantza konpainiak, ahotsak Amaren Alabak eta marrazkia Eñaut Muñoak. Horren guztiaren zuzendaria Mireia Gabilondo bergararra izango da.

Euskal kulturaren tradiziotik datozen taldeak dira hirurak, baina garai berrietara egokituak. Hala, gaur egungo ikuspegia du *Hostoak* ikuskizunak.

Diziplinak nahastea

"Talde bakoitzak bere lanbidea jorratu izan du orain arte eta ikuskizun hau denon bateragune bilakatu da eta ibilbide horiek guzti horiek nahasteko aukera eman digu", azaldu du Arkaitz Martinez de San Vicentek, Oreka TX taldeko kideak. Ikuskizun "komuna" dela gaineratu du eta hiru taldeek eta marrazkilariak leku bera izango dute.

Mireia Gabilondo zuzendariak azaldu du zailena talde guztiekin ikuskizun bakarra egitea izan dela: "Hasieratik hori egin gura nuen, eta hori izan da zailena".

Talde bakoitzaren lana

Oreka TX bikotea aski ezaguna da txalaparta jotzen duelako. Bada, *Hostoak* ikuskizunean bikote izatetik talde izatera pasa dira. "Tutufonoa" da Oreka TXk ikuskizunari eskaini dion instrumentuetako bat: "Material sintetikoetara jo dugu, argindarra eramateko erabiltzen diren tutuetara. Horiek afinatu eta instrumentua sortu dugu. Perkusio-instrumentu melodikoa egin dugu eta txalapartak ematen ez dituen grabeak eman dizkigu honek", azaldu du Martinez de San Vicentek. Amaren Alabak taldeak musika barik abesteko ohitura du; hortaz, hori izan da zailena, musikarekin abestea. Gabilondok gaineratu du dantzariak ohituago daudela musika zuzenean izatera. Elkarlan horretan bata bestearekin zer sentitzen duten ikasi dutela azaldu du Gabilondok.

Eñaut Muñoa, ostera, agertokiaren alde batean egongo da eta hainbat irudi egingo ditu hostoekin. Kamera bat izango du gainean, eta, hala, egiten dabilena momentuan bertan ikusiko da aretoan. "Hostoen egiturarekin jokatuko du eta joko horren bitartez klimax ezberdinak lortzen lagunduko dute", dio.

Oso harrera ona izan duen lana

Otsailean estreinatu zuten ikuskizuna eta ordutik hona 15 bat emanaldi egin dituzte. Pozik daude ikuskizuna izan duen harrerarekin. Istorioaren ildoa azaltzean, hau esan du Martinez de San Vicentek: "Sentsazioak dira bidea markatzen duten pausalekuak eta sentsazio horietatik norberak ateratzen du ikuskizunaren bidea". Emanaldia 20:00etan izango da eta sarrera 15 euro da.

Dantzariak, abeslariak, musikariak eta marrazkilaria igoko dira taula gainera. | HOSTOAK

ESANAK

"Talde bakoitzak bere bidea jorratu du orain arte; hau elkargunea da"

"Argindarra eramateko tutuak erabili ditugu ikuskizunean"

ARKAITZ MARTINEZ DE SAN VICENTE | MUSIKARIA

GOIENA

MIREIA GABILONDO
ZUZENDARIA

"Sentimenduez hitz egiteko aukera ematen duen ikuskizuna da"

Bergararra *Hostoak* ikuskizuneko zuzendaria eta eszena zuzendaria da. Lanak sentimenduez berba egiteko aukera ematen duela azaldu du.

Nolako ikuskizuna da *Hostoak*?

Emozioak sortzen dituen ikuskizuna da. Barruan zer edo zer ukitzen du, emozionatzen duena. Gauza asko dauzka: musika, ahotsa, dantzariak... ez dakit nola esan, oso eklektikoa da.

Ikuskizunean ze mezu eman gura izan duzue?

Sentimenduez hitz egiteko aukera ematen du. Hasieran, *Sustraietatik hostoetara* izena izan genuen buruan, hiru taldeek sustraietatik jaten dutelako. Hiru taldeen arteko elkarlana izan da garrantzitsuena eta politena.

Egin zaitez bazkide eta pendrive bat zuretako!

...eta gainera zozketan parte hartuko duzu!

ASTILLERO ERRETEGIA
bi lagunendako bazkaria

+

Balentziaga museorako bi sarrera

goienakluba 2012

943 25 05 05 | kluba@goiena.com | goienakluba.com | Urteko kuota: 50 €

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Belcebluesen lan berria: 'Diabulus in musika' diskoa

Gaur aurrestreinaldia egingo dute Aretxabaletako Akorden, 22:30ean

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Bergarako hirukoteak bigarren lana argitaratu berri du. Datorren egubakoitzean, hilak 23, egingo dute diskoaren aurkezpen ofiziala Bergarako Galway's Irish Pub tabernan. Aurrestreinaldia, baina, gaur izango da, egubakoitza, Aretxabaletako Akorde tabernan, 22:30ean.

Autoekoiztutako lana

Bergararren diskografian bigarren lana da *Diabulus in musika*. 2008an argitaratu zuten lehenengo diskoa: *Infer*. Hain zuzen, Danbaka musika lehiaketako finala jokatu ostean egin zuten lan hura.

Hiru urte geroago, bada, autoekoiztutako diskoa egin dute. Eta, aurreko lanean bezala, blues doinuak dira abestien oinarri. 12 abestiz osatutako lana egin dute, ingelesez eta euskaraz kantatuak.

Oinarria bluesa den arren, beste hainbat estilo ere sartu dituzten bergararrek: country, jazz, rock eta funka, besteak beste. Estilo horiek nahastu dituzte, eta baita instrumentu berriak sartu ere: harmonika, dobroa, gitarra akustikoak, perkusio efektuak... "Betiere, bluesaren oinarria eta sustraia oinarritzat hartuta", azaldu dute taldekideek.

Gaiei dagokienez, eguneroko kontuak bildu dituzte abestietan, baina hainbat metafora ere sartu dituzte. Alde horretatik, bigarren disko horretan jauzi kualitatiboa igartzen dela diote bergararrek. Soinua ere sendoagoa dela diote eta masterizazioa asko zaindu dutela. Azken finean, disko borobilagoa eta landuagoa da bigarren hori.

Kolaborazioak

Diskoan hainbat lagunen kolaborazioak izan dituzte: Aitor Gorosabel gitarra eta ahotsarekin pare bat kantutan, Jon Gurrutxagak ahotsarekin lagundu du, Israel Santamariak teklatuak jo ditu eta Enrike Txurruka bergararrak, pianoa.

Satan Ass haize-taldea

Ibon Larrañaga, Asier Elortza eta Oihan Vega dira taldekideak. Zuzenekoetan, baina, lan kontuak direla-eta, Oihan Vegaren ordez Guille Sanz madrildarrak jotzen du bateria. Gainera, zuzenekoetan izaten duten moduan, Satan Ass haize-taldearen laguntza izan dute hainbat abestitan.

Ibon Larrañaga, Asier Elortza eta Aitor Gorosabel. | BELCEBLUES



Eguaztenean hartutako irudia: Eibarko abesbatza kantuan. | ARRITXU BARRUSO

Gipuzkoako erretiratuak kantuan ibili dira egun hauetan Oñatin

A.E. | OÑATI

Gipuzkoako erretiratuen elkarteetako hainbat abesbatza izan dira azken egunotan Oñatin. Hain zuzen, Gipuzkoako erretiratuen abesbatzen XII. topaketak egin dituzte. 16 talde ibili dira kantuan bi egunean. Gabon inguruan urtero egiten duten jarduera izaten da; herri ezberdinetan egiten dute, eta, oraingoan, Oñatin egin dute.

Emanaldiak, parrokian

Oñatiko parrokian izan dira topaketak. Eguaztenean Eibar, Lasarte Oria, Bergara, Donostia, Beasain, Hondarribia, Legazpi eta Aretxabaletako abesbatzen txanda izan zen. Atzo, eguena, ostera, Olaberria, Trintxerpe, Mutriku, Urretxu-Zumarraga, Lezo, Añorga, Ordizia eta Oñatikoen txanda izan zen.

Abesbatza bakoitzak lau kantu abestu zituen; eta, garai hauetan ohikoa den moduan, Gabon doinuak ez dira falta izan jardunaldiotan.

Gure ordezkariak

Bergarako, Aretxabaletako eta Oñatiko taldeak izan dira Debagoieneko ordezkariak. Ilusioz eta gogo handiz abestu dute. Gainera, Oñatikoek etxekoen aurrean abesteko ardura izan dute. Loli Ordokik zuzentzen duen Aloña abesbatzak izan zuen atzoko eguna eta jardunaldiak ixteko konpromisoa.

Rafa Ruedak eta Andrakan boskoteak girotuko dute Bergarako gaztetxea gaur, egubakoitza

Rafa Ruedak *Enaren geometria* diskoa aurkeztuko du Bergarako gaztetxean. Eta Ruedari gaua berotzen Andrakan boskoteak lagunduko dio. Pop eta folk kutsua duen musika egiten du boskoteak, klasikoak diren musika tresnekin, baina folketik edaten duten beste musika tresna batzuk ere erabiltzen dituzte. Gaztetxean izango da kontzertua, 22:00etan.

Ipuin tailerra egingo du Oihulari Clown antzerki taldeak Antzuolan etzi, domeka, 80 euroren truke

Virginia Imazek emango du ikastaroa. Etzi izango da, domeka, Antzuolako baserri baten, bazkaria barne. Ikastaroa 10:30etik 21:00etara izango da eta aurrez eman beharko da izena: 943 76 97 90 zenbakian edo *oihulariklown@oihulariklown.org* helbidean. Matrikula 80 euro da. Ipuinak kontatzeko teknikak erakutsiko ditu: denbora, metaforak, arnasketa eta beste hainbat gai.

'Olentzero & Co!' musikalak arrakasta izan du Bilbon eta Baluarterako ere sarrera asko saldu dituzte

Bilboko Campos Eliseos antzokia bete egin zen joan den eguenean *Olentzero & Co!* musikala ikusteko. Bergarako Orfeoiak, Bergarako Musika Eskolak eta Eibarko Biraka dantza taldeak elkarrekin egin duten ikuskizunak arrakasta handia izan zuen: 1.200 lagun batu ziren. Bada, Iruñeko Baluarten abenduaren 27an eskainiko duten saiorako 800 sarrera saldu dituzte.

Indarkeria matxistaren aurkako Zinemaldi Soziala asteon hasi dute eta gaur hitzaldia dago Arrasaten

Mugarik Gabe eta Elkarhezitzen gobernuz kanpoko erakundeek bigarren urtez antolatu dute Zinemaldi Soziala. Astelehenean hasi zuten. Gaur, egubakoitza, hitzaldia egingo dute Arrasateko gaztetxean, 22:00etan: *Propiedad privada* eta *Hechos son amores* gaiak landuko dituzte eta ondoren eztabaida egingo dute. Hurrengo hitzordua astelehenean izango da, 19:00etan, Kulturaten.

Kultura Bonuaren hirugarren kanpaina martxan da dagoeneko

44.000 bonu jarri ditu salgai Eusko Jaurlaritzak

A.E. | ARRASATE

Astelehenean hasi zuten kanpaina. Hirugarren urtez, Jaurlaritzako Kultura Sailak kultura ondasunen kontsumoa sustatzeko Kultura Bonuak atera ditu. 25 euroko kostua eta 40 euroko balioa izango duten 44.000 bonuak BBKn, Kutxan eta Vitalen erosi ahal izango dira, eta liburuak eta diskoak erosteko, zinemara eta zuzeneko ikuskizunetara joateko eta museoetako sarrerak erosteko balioko dute.

Bonuak 2012ko urtarrilaren 5era arte erosi ahal izango dira eta erabiltzeko epea, ostera, 2012ko urtarrilaren 20ra artekoa izango da.

Atxiki diren dendak

Kultura bonuak hainbat denda edo jaialditan erabil daitezke. Gurean, hauek dira kanpainara atxiki diren dendak: Arrasaten, Erdiko kaleko Elkar denda eta Jon Arriaran liburu-denda; Bergaran, Elkar dendak eta Zangitu estankoa; Oñatin, Altuna estankoa, Ibarrondo liburu-denda eta San Lorentzoko Soto Herrera liburu-denda; eta Elgetan, Espaloia kafe antzokia. Kultura sustatzeko balio du kanpainak.

Tobera lanerako sarrerak salgai daude 7 eurotan

A.E. | ARRASATE

Hilaren 28an, Inuzente Egunean, egingo dute Tobera herri antzezpena. Bada, antzezpenerako sarrerak salgai daude Interneten –*www.barrabarra.eu*– eta Arrasate eta Bergaran astelehenean jarriko dituzte salgai, hilak 19. Arrasaten Kajoi tabernan eta Ttukun fotokopia dendan egongo dira salgai eta Bergaran, Gracian mertzerian eta Bule tabernan.

Sarrerak 7 eurotan jarri dituzte salgai eta antolatzaileek esan digute 600 sarrera atera dituztela.

Gospel Soul taldeko kideak. | GOIENA

Gospel doinuak gaur, egubakoitza, Oñatin

Gospel Soul taldeak 22:30ean egingo du kontzertua Santa Ana aretoan

MONIKA BELASTEGI | OÑATI

Gazteak badira ere, Gospel Soul taldeko kideak eskarmentu handiko abeslariak dira, ahots heldua dute eta ia Frantzia osoko agertokietan ibili dira proiektu honetan murgildu aurretik. Gospel Soul taldeko kideak Karibe eta Afrika erdialdekoak dira jatorriz, baina euren sustrai eta herentzia kulturalarengatik erabat lotuta daude halako doinuetara; izan ere, ez dira afro-amerikarren doinuak bakarrik.

Eta hori guztia erakutsiko dute gaur, egubakoitza, Oñatiko Santa Ana aretoan pianoa –instrumentu bakar moduan– lagun dutela egingo duten kontzertuan.

Pianola lagun dutela

Gospel Soul laukoteak –hiru emakumezko eta gizonezko bat– egingo duen emanaldia 22:30ean hasiko da eta sarrerak dagoeneko salgai daude, kultura etxean, 10 eurotan.

Leihatilan ere egongo dira salgai, 12 eurotan.

'Gabon kontuk' 4 urtetik gorako umeendako antzerkia bihar, zapatua, Bergarako Zabalotegin

M.B. | BERGARA

Deabru Beltzak taldeak *Gabon kontuk* izeneko antzezlana egingo du bihar, zapatua, 18:00etan, Zabalotegi aretoan.

4 urtetik gorako haurrentzako antzerki emanaldia da, –Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak lagundutakoa–, euskaraz, eta, izenburuak jasotzen duen moduan, Gabonak dira ardatza. Leihatila 17:00etan zabalduko dute eta prezioa hiru euro da.

Olentzeroren etxean bisitan

Bada, urteko egunik garrantzitsuena iristear dagoela, Olentzeroren etxean benetan gertatzen ari denaren testigu izango da haur talde bat. Prestakuntza lanen, nerbioen eta Olentzeroren manien eta azken uneko aldarrikapenen lekuko izango da haur taldetxo hori eta ikusiko dute Olentzero ez dela betikoa. Zer gertatu ote zaio? Umeak Olentzero betikoa izan dadin saiatuko dira Mari Domingiren laguntzarekin.

Euskal Herriko hainbat antzerki taldetan parte hartutako aktoreek sortu zuten 1996an Deabru Beltzak kale antzerkia eta ordutik hona hainbat ikuskizun egin dituzte.

Antzezlanaren une bat. | GOIENA



Mikel Altuna, lasterketetako autoaren ondoan, garajean.

MIRYAM GALILEA

Mikel Altuna | Pilotua

"Pilotuen artean adiskidetasuna sortzen da eta, horrela, tentsioa partekatu egiten da"

MIRYAM GALILEA | OÑATI

Hamar urte baino gehiago dira Mikel Altuna oñatiarra autoen munduan murgiltzen hasi zela. Momentu honetan 29 urte ditu eta gidatzeak ematen dion adrenalina hori lasterketetan bilatzen du.

Nondik datorkizu zaletasuna?

Afizioa aitarengandik dator; gaztetan harekin joaten nintzen Urrakira, Jaizkibelera.... hantxe sortu zen. Gero, lagunekin joaten hasi nintzen eta ikasketa garaia iritsi zenean Oñatitik irten beharra izan nuen Automozioa egiteko; ikasketak amaitu, tailerrean sartu, eta orain arte.

Noiz eskuratu zenuen zure lehenengo autoa?

17 urte nituela auto-kroserako autoa lortu nuen. Autoak desegiteko tokira joan nintzen, auto bat hartu eta guztiz hustu genuen: eserlekuak, kristalak... eta, hasiera baten, basoan ibiltzen hasi nintzen. Aspaldi auto-krosak egiten ziren Oñati inguruan, baina Oñatikoak konkretuki ospea zuen eta horretan hasi nintzen orain dela hamabi urte; uste dut karreretako zaletasuna handik etorri zaidala.

Zergatik lurrako pistetan eta ez errepidean?

Horietan ikasi izan dut, eta gustatzen zait autoak lurrean duen mugimendua; asfaltoan gehiago heltzen da. Oso desberdinak dira; hala ere, errepideko lasterketak probatzea gustatuko litzaidake, baina horretarako behar den aurrekontua ez da txikia.

Zein lasterketatan parte hartzen duzu?

Errioxara joaten gara, hemen ez baitago horrelako pistarik, hemengoak 4x4 ibilgailuentzako dira. Aurten, adibidez, Zeberion egin dute lasterketa bat, eta urteak ziren han lurrekorik ez zutela egiten. Errioxan dena laua da eta hemen, berriz, aldapak, pinuak... daude eta guretzako arriskutsua da, min hartzeko errazagoa. Aurten ere Kantabriara joango naiz lehenengo aldiz. Lau urte badira lasterketa hau antolatzen dutena eta oso polita dela esan didate: tramu motza, baina polita.

Kopiloturik eramaten duzu?

Bai. Lagun batekin joaten naiz orain dela bi urte; lehen, beste batekin joaten nintzen. Dena den, baliteke hurrengo urterako aldatu behar izatea; izan ere, aita izan behar da, eta denbora eta dirua beste era batera baloratzen dira.

Zaletasun honetatik zer gustatzen zaizu gehien?

Pilotuen arteko harremana. Oso giro ona egoten da, bai pista barruan, baita kanpoan ere. Adiskidetasuna dago eta lasterketa hasi aurretik sortzen den tentsioa partekatu egiten da.

Istripurik izan duzu?

Bai, batzuk izan ditut, baina kolpe handiena autoak eraman du; guretzako segurtasun maila oso ondo dago, ez dugu arriskurik.

Autoa mantentzeko babeslerik baduzu?

Bai, batzuk baditut, baina ez dirua irabazteko intentzioarekin, baizik eta mantentze-lanak egiteko. Egia esan, laguntza hori izatea asko estimatzen dut; adibidez, negozioa zabaldu berri duen koadrilako lagun batek asko laguntzen dit. Orokorrean, dirua baino gehiago, faboreak izaten dira, beste gauza batzuekin laguntzen didate: Zumarragan serigrafiako tailer baten lagun bat dut eta hark errotulua jartzen dit, beste batek seguruarekin lagundu... Handik eta hemendik lortzen dudanarekin moldatzen naiz. Bestalde, txapista naiz, baina mekanika apur bat ere badakit, bestek beste, eta, ahal dudan neurrian, konponketak nik egiten ditut.

Kirol horretan noraino heldu nahiko zenuke?

Ez dut aurreikuspenik. Bertan segitzearekin konformatuko nintzateke. Mundu honetan aurrera egitea oso zaila da eta kostu handiko kirola da; beraz, mantentzea ez da gutxi. Dena den, lasterketa hasi baino lehen sortzen den txizagura hori joaten zaidanean utzi egingo dut, hori bai adrenalina!

PERTSONALA

Oñatiko txoko maiteena: Zaila da bat aukeratzea, baina garajea esango dut.

Gosari gustukoena: Kafesnea ogi txigortuarekin.

Telefono dei pozgarriena: Neskalagunak egindako deia.

Bidaiatzeko pertsona bat: Berriro ere, nire neskalaguna.

Musika Talde bat: Kaotiko.

Gidatzeko leku bat: Nürburbring-eko zirkuitua, Alemanian. Pare bat aldiz egon gara eta mundiala da.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Beheko auzoa 1 zenbakian etxebizitza salgai. Berritua. 120.000 euro negoziagarriak. 943 72 27 86.

Bergara. Etxebizitza eguzkitsua salgai Artzamendi kalean. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela handia. Garaje eta trastelekuarekin. Jantzia. 150.253 euro. 629 97 37 05 edo 943 76 05 22.

Oleta. 5 urteko etxe bakarra salgai. Lursaila dauka. Bizitzera joateko prest dago. Prezio interesgarria. Etxea trukatzeko ere aukera egon daiteke. Idatzi *camilabagues@gmail.com* helbidera edo deitu telefonoz 945 45 05 15 edo 645 73 82 31 zenbakira.

Oñati. 67 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukalde hornitua, jangela-egongela, bi logela eta bainugela. Jantzia eta bizitzera sartzeko moduan. 252.000 euro. 35 metro koadroko garajea aukeran. Iñigo. 659 72 06 64.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Biteri kalean, Grupo San Juanen. Hiru logela, sukaldea, komuna eta egongela. Ganbara. Jantzia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 605 43 29 31.

Eskoriatza. Erdigunean bi logelako apartamentua saldu edo errentan ematen da. Interesatuok deitu zenbaki honetara:. 667 40 86 67

Oñati. San Lorentzon etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. 650 56 62 06.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dugu errentan. Bikotea gara, neskatila batekin. Presazkoa da. 666 98 25 45.

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. 500-600 euro ordaintzeko gertu nago. Brigitte Castro. 664 51 64 98.

Etxebizitza ekonomikoaren bila. Bikote langilea, umerik gabe, pisu txiki (1-2 gela) edo etxebizitza ekonomiko bila (400 euro) Arrasate, Oñati edo Bergaran. 652 76 67 04.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. 678 73 66 54.

Arrasate. Pisukide bila nabil. Erdigunean dago etxea. Ione. 636 05 36 18.

Arrasaten. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. Interesatuok deitu 630 71 35 83 telefono zenbakria.

Bergara. edo inguruan errentan hartzeko logela bila nabil. Mutila naiz. Lehenbailehen hobe. 672 68 57 77.

Gasteiz. Logela ematen da errentan. Marco. 696 38 10 07.

106. BESTELAKOAK

Trukea. Aramaioko etxe txukuna trukatuko nuke Arrasateko antzeko bategatik. Deitu 636 64 90 94 telefono zenbakira.

3. LOKALAK

301. SALDU

Aretxabaleta. Lokala salgai erdigunean. Oso ekonomiko. Interesatuok deitu 609 44 50 86 telefono zenbakira.

302. EROSI

Bergara. Lokal bila gabiltza, erosteko, San Lorentzo edo Matxiategi aldean. Deitu 605 76 32 72 telefonora.

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Magisteritzan diplomatua eta hezkuntza berezian espezialista. 600 39 47 77.

Arrasate. 53 urteko emakume euskalduna, lanerako gertu, ume edo nagusiak zaintzen, etxeko lanak egiten eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 60 89.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu plantxa egin edo bestelako etxeko lanetarako, orduka. 699 54 17 27.

Arrasate. Orduka edo etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 682 31 97 37.

Bergara. Nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Deitu 620 43 85 40 telefonora.

Bergara. Neska euskalduna haurrak zaintzeko gertu edota eskola partikularrak emateko. 620 75 04 94.

Bergarako. neska gertu nagusi zein umeak zaintzen jarduteko Bergara, Arrasate, Eibar edo inguruan. Irene. 651 70 81 70.

Debagoiena. Arrasateko 26 urteko neska arduratsua, umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. 685 71 65 78.

Debagoiena. Bertako neska, esperientziaduna, nagusiak zaintzeko gertu 14:00etatik aurrera. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23.

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu garbiketa lanak egiteko eta pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 627 21 08 93.

Debagoiena. Emakumea gertu etxean bertan bizi izaten edo bestela, nagusi edo umeak zaintzen. Gauez ere bai. Legezko paperak ditut. Romelia Castaño. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 83 45 10.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu, sukaldari zein etxeko lanak egiten jarduteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 99 70 46.

Debagoiena. Emakumea gertu sukaldari edo garbiketa lanak egiteko. 662 26 71 42 edo 943 25 36 14.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, nagusiak zaintzen eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 70 38 82.

Debagoiena. Etxeko lanak eta garbitasunak egingo nituzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646 10 21 66.

Debagoiena. Etxeko lanetarako emakumea gertu, baita asteburuak edo gauak etxean egiteko ere. 659 90 85 13.

Debagoiena. Garbiketan, nagusiak zaintzen (baita gauez ere), tabernatan zein sukalde laguntzaile jardungo nuke. 943 10 96 89.

Debagoiena. Lan egingo nuke nagusiak zaintzen, sukalde edo jatetxean, garbiketa lanetan eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 633 37 53 13.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoiena. Lantegian, zerbitzari, kamioilari, nagusien zaintzan edo etxeko garbiketan lan egingo nuke. Anbulantzia gidari titulua daukat. Eduardo. 690 25 29 33

Debagoiena. Mutila peoi lanetan, sukalde laguntzaile, taberna, garbiketa eta abarrean lanerako gertu. Andres Felipe. 632 83 45 10

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko ikasketak dituen mutila gertu lanerako. Nagusi eta Alzheimer gaixoen zaintza, etxeko lanak egin, sukaldatu eta abarretan ondo moldatzen naiz. Debagoienean zehar mugiteko arazo barik. 693 72 41 66

Debagoiena. Neska arduratsua gertu umeak zaindu, orduka garbitasun lanak egin edo nagusiak zaindu zein laguntzeko. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95.

Debagoiena. Neska euskalduna, eskarmentuduna eta erreferentzia onekoa, gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 671 35 22 60.

Debagoiena. Neska gaztea gertu ume edo nagusiak zaintzeko, eta zerbitzari edo garbitasun lanak egiteko. 674 95 79 28.

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
- Dr. Fleming 82 m² + ganbara goian. Duplexa egiteko aukera.
- Matxiategi. 65 m². 170.000 €
- Masterreka 70 m². 2 logela. Igogailua eta garajearekin.
- Masterreka 88 m². Aire girotua, oso ondo.
- Ibargarai 54 m². Garajearekin. Aukera ona
- Ibargarai 74 m². Igogailua eta garajearekin.
- Burdiñate. 104 m². Garajearekin. Oso prezio ona.
- Burdiñate 53 m². Apartamentua, oso ondo.
- Koldo Elizalde 74 m². Oso eguzkitsua. Tximiniarekin
- Toki Eder Plaza. 54 m²ko apartamentua. Oso ondo.
- Ozaeta 67 m². 3 logela eta oso eguzkitsua. Aukera ona.
- Ozaeta 105 m². Oso ondo
- Bidekurutzetan 60 m² obra egiteko. Oso prezio ona.
- Zubieta 240 m2, ortuarekin.
- Cruz Gallastegi 70 m². 3 logela. Trastelekua.
- Artekale 40 m²ko apartamentua. Berriztuta. 111.187€.
- Ibarra 47 m². 2 logela. Berriztua. 119.601€
- Martoko 140 m². Duplexa. Berria. Aukera ona
- Martoko 60 m². Berriztua. Igogailuarekin.
- Zabalotegi 54 m². Balkoiarekin. 120.202 €
- Zubiaurre 51 m². 102.000 €
- Zubiaurre 82 m². Igogailua eta berogailuarekin. 150.253€.
- Bolu 140 m² duplexa. Terraza eta garajearekin. Aukera ona
- San Antón Abad. 75 m². Berriztua. Txokoarekin, 138.233€
- San Antonio 87 m². Erabat berriztua. Oso ondo. Garaje bikoitza aukeran.
- Lorentxokon pisuak estrenatzeko. ERREGALATUTAKO PREZIOAN!
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan, San Lorentzon , Toki Ederren eta Ibargarain. Aukera ona.

Antzuola:
- Buztinzurin apartamendua estrenatzeko. Aukera ona.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m². Oso etxe ona.

Soraluze:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

